



2012-05-14
ASTELEHENA
364. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



ARANTZAZU EZKIBEL

"Estresa eragiten duen faktore bat nork bere buruari jarritako exijentzia maila da"

Sonia Ulazia | Pedagogoa | 7

Astoak, Urrezko Astokiloak eta haien lagun ugari izan dira, Musakolan | 13



Alaitz Zabalo Euskal Herriko Flauta Orkestrarekin, etxean | 30



Txillardegi bizirik izan zen, bere narrazioen bitartez, Kulturaten | 29



Azken agurra Gesalibarren

Senide, lagun, auzotar eta herrikideendako txiki geratu zen Gesalibarko Santa Ageda eliza, eta errepidearen beste aldean geratu behar izan zuten gehienek | 4

Bigarren hilkutxa elizatik ateratzen, Horazio Argarate parrokoaren begiradapean . | JOSETXO ARANTZABAL

Poliki eta ondo jatearen plazera gogora ekartzen du slow food-ek

Jateko eta bizi izateko modu lasterraren, eta horrek dakartzan ondorio txarren aurkako iraultza proposatzen du slow food edo "jateko geldoa" delako mugimenduak. Jateko, janariaz gozatzeko eta janariak aukeratzeko modu bat da. Mundumiran izango dugu lekukotza zuzena. | 2

Mondrak, lehia galduta, arazoak izango ditu maila mantentzeko | 24

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11
KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29
ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 |
ZORION AGURRAK 38 | JAIOAKOAK 39

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK
www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

%10 eko
deskontua

► Zoaz 21. orrialdera.

JAIXAK
disfrutatzeke oparixak
JAIXAK
dendaren eskutik

Poliki eta ondo jatearen plazera gogorarazten du slow food-ek

- ▶ 'Janari geldoa' mugimendua Gipuzkoan ere badago
- ▶ Mundumira jaiari hainbat ekintza egingo dituzte
- ▶ Janari "on, garbi eta bidezkoa" aldarrikatzen dute

LEIRE KORTABARRIA | LEINTZ GATZAGA

Jateko eta bizi izateko modu lasterraren eta horrek dakartzan ondorio txarren aurkako iraultza proposatzen du slow food edo "jateko geldoa" delako mugimendua. Jateko modu bat, janariak aukeratzeko modu bat da; eta, era berean, tokian tokiko produktuak eta ohiturak babestu nahi dituen mugimendua.

Slow food mugimendua mundu osora zabaldu da, 1989an sortu zenetik. Irabazi asmorik gabeko mugimendua da eta kideek finantzatzen dituzte ekintzak. Herrialde bakoitzean, nor bere hirian edo eskualdean, taldeka antolatzen dira kideak, eta convivium deitzen diete talde horiei.

Gipuzkoan ere badaude slow food conviviumak, bi, zehazki: Slow Food Gipuzkoa-Donostia eta Slow Food Donostia. Bi taldeetako ordezkariak Mundumira jaiari izango dira, aste bukaeran. Hain zuzen, Mundumiran lehengo aldiz, Ekoferixa izango da, eta slow food produktuak eta produktu ekologikoak erakutsiko dituzte eta dastatzeko emango dituzte. Domekan, Slow Food Donostia conviviumeko liderrak, Juan Manuel Garmendiak, hitzaldian azalduko du zertan datzan mugimendu hori.

Italiatik mundu osora

Slow food mugimendua fast food edo janari lasterraren aurkako erantzun gisa sortu zuen 1986an, Italiako Bra hirian, Carlo Petrini. 1989an nazioarteko elkarte gisa egituratu zen, eta gaur egun 100.000 bazkide inguru ditu 122 herrialdean.

Juan Manuel Garmendiak zehaztasun gehiago ematen dizkigu: "Ez da bakarrik geldi jatea; guk kontsumitzaile gisa ze eragin

ESANAK

"Elikagaien komunitateak bultzatzen ditugu: produktua, ekoizlea eta kontsumitzailea"

"Kontsumitzaile gisa, eragin bat dugu: izan ere, ze janari eskatzen dugun, hori ekoiztuko da"

JUAN MANUEL GARMENDIA
SLOW FOOD DONOSTIAKO LIDERRA

SLOW FOOD MUNDUMIRAN

EGUBAKOITZA, 18

19:00 Slow Food buffeta.

ZAPATUA, 19

11:00-20:00 Ekoferixa: produktu ekologikoak, slow food gastronomiakoak eta Euskal Txerriarenak.

DOMEKA, 20

11:00-14:00 Ekoferixa.

12:00 Hitzaldia: *Slow food mugimendua* (Juan Manuel Garmendia).

izan dezakegun ikustea ere bada. Izan ere, ze kontsumitzen dugun, hori ekoiztuko da. Guk elikagaien komunitateak bultzatzen ditugu: produktua, ekoizlea eta kontsumitzailea".

Bastioiak eta gustu-kutxak

Slow food filosofiaren printzipio nagusiak laburtzen ditu Juan Manuel Garmendiak: "Petriniaren liburu batek *Ona, garbia eta bidezkoa* du izenburua. Elikadurak izan behar du ona gustuz; plazera eman behar du, eta ez dugu hori onartzeko lotsarik izan behar". Bestalde, "garbia izan behar du janariak, hau da, ez da transgenikoa izan behar; eta bidezkoa, hau da, ekoizleak ordain bat jaso behar du bere lanaren truke, eta hark ondo bizi izateko aukera eman behar dio".

Leku bakoitzeko elikagaiak gordetzea eta produzitzea bultzatzen dute slow food-ekoek, izan ere, horrek "bioaniztasuna sustatzen du". Hori lortzeko, baina, kontsumitzaileak behar dira. Bada, slow food mugimendua lotura hori lantzen du. Honela esaten du Garmendiak: "Lortzen badugu kontsumitzailea heztea, balio batzuk izan ditzen eta garrantzia eman diezaion bertako produktuari, ko-ekoizle bihurtuko dugu: bertako produktuak kontsumituko ditu, eta hemengo ekoizleak aukera handiagoak izango dituzte euren produktua saltzeko".

Leku bakoitzeko slow food taldeek zenbait produktu identifikatzen dituzte, eta *bastioi* edo *gustuaren kutxa* kategorietan sailkatzen dituzte. Euskal Herriaren kasuan, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko mugimendua daude eta hamaika produktu identifikatu dituzte: Aretxabaletako mozkorra delako tomate, euskal oiloa, euskal txerria, Errezil sagarra, Gorbeiko patata eta beste



Euskal Oilo Marradunaren dastatzea egin zuten Slow Food Donostiakoek joan den abenduan.

asko. Arreta berezia ematen diete galtzeko arriskuan dauden produktu edo espezieei, baina ez horiei bakarrik. Oro har, slow food mugimendua denborarekin kontsolidatu diren janariak, lehegaiak eta haiek lantzeko moduak zein leku bakoitzeko espezieak babestera konprometitzen da; hitz baten, lekuan lekuko ondarea babestera.

Oraindik, kultura handia

Euskal Herrira ere ailegatu da janari lasterraren kultura; baina oraindik "gastronomia kultura handia" izaten jarraitzen dugu, Garmendiaren iritziz: "Bertako produktuarentako errespetua eta ardura beti izan dira hemen; beti bilatu izan ditugu kalitate handiko produktuak".

Bizimodu lasterrarekin ere, kalitatez eta geldo jan daitekeela uste du Slow Food Donostiako liderrak: "Norberak zeri ematen dion garrantzia, hari ematen dio denbora. Berandu ailegatzeko gara etxera eta janaria gertatzeak denbora behar du; baina bezperan gertatu daiteke hurrengo egunerako. Borondate eta norbera antolatze kontua da".

"Elikadura eta amodioa"

Gatzagako hitzordua pasata, slow food-ek gehiago jakin gura duenarenak honako ekintzak antolatu ditu Slow Food Donostiak, Zaragozako conviviumarekin batera, Donostian: hilaren 25ean, *Pasta versus cuscus* hitzaldia egingo dute; eta ekainaren 1ean, *Alimentación y amor* delakoa.



Slow Food Donostiakoak, Arantzazuko artzain eskolan. | JUAN MANUEL GARMENDIA



an. | JUAN MANUEL GARMENDIA

'Bastioiak' eta 'Gustuaren kutxak': slow food-ek onetsitako produktuak

ARETXABALETAKO MOZKORRA

Hazi gutxi eta kolore eta zapore biziak ditu tomate horrek, eta handia da.



KARRANTZAKO ARDI GAZTA

Muturbeltzaren esne gordinarekin egindako gazta. Muturbeltz espeziea arriskuan dago.



EUSKAL OILOA

Euskal arrazako oiloa dago, berezko ezaugarriekin, eta hala aitortuta dago. Arrautzetarako eta okelatarako bikaina da.



ARABAKO ZALDI-OKELA

Euskadiko mendiko zaldia arriskuan dagoen espeziea da. Moxal-okelak koipe gutxi eta burdina asko; dieta orekatua egiteko ona da.



Oñatiko azoka ekologikoan izan zirenekoa. | JUAN MANUEL GARMENDIA

Zer behar duzun badakigulako,

defentsa onena eraso ona egitea da

GORPUTZ ZAINKETA ETA TRATAMENDUAK

- **Zelulitisaren kontrakoak:**
 - Bilgarriak,
 - Buztinak,
 - Ultrasoinuak,
 - Kabitazioa.
- **Sendotzeko:**
 - Bakunterapia,
 - Alginatoak,
 - Alektroporazioa.
- Hidratazioa, gorputzeko peelinga.
- Gorputza prestatzea beltzaran jartzeko.

TERAPIA MEDIKO ESTETIKOAK, MESOTERAPIA
Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073

KABITAZIOA

6 saio + 1 opari



AG
Amagara

Erdiko kalea 54 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Gesalibar gainezka, Uriarte-Arana familiakoei azken agurra egiteko

Izaskun Arana egonkor dago eta orain itxaron egin behar dela diote adituek

UBANE MADERA | ARRASATE

Atzo, domeka egin zieten azkeneko agurra Jose Inazio Uriarteri eta Milagros Aranari, Aldape baserriko ez-tandan egubakoi-tzean hildako bizilagunei.

Espero zen moduan, Gesalibarko Santa Ageda elizak gainezka egin zuen, eta bertaratu ziren senide, lagun, auzotar eta herritar gehienak, kabitu ezinda, errepearen beste aldean egon ziren hileta-elizkizunek irau zuten bitartean.

Horien artean, Arrasateko aurpegi ezagun asko izan ziren: oraingo udal ordezkariak: Joxe Etxeberria (Aralar), Juan Karlos Garitano (EAJ) eta Joserra Askasibar, Maider Morras, Iratxe Zeziaga eta Omer Arregi (Udal gobernutik, Bildu); urte luzez ordezkari izandakoak (Xabier Zubizarreta alkate ohia), edo bestelakoak: (Jose Luis Ezkurra, urtetan Mondrako presidente izandakoa), Iñaki Maidagan (Goi-kobalu abesbatzako zuzendaria) edo Iñaki Galparsoro (Gesalibarko betiko apaiza, erretiratuta izan arren, meza esaten laguntzen jardun zuena), besteak beste. Bestalde, Gesalibarko abesbatzak kantatu zuen atzoko meza.

Itxaron egin behar

Eztandatik bizirik atera zen Izaskun Aranari dagokionez, berriz, GOIENAK eskuratutako azken informazioaren arabera, "egonkor dago, ebakuntza egin diote, eta orain itxaron egin behar". Gurutzetako ospitalean segitzen du.



Autoak hilkutxekin, hileta-elizkizunak hasteko zain. | JOSETXO ARANTZABAL

"Beti mesede egitekoak, esker onekoak"

"Hiltzen garenean guztiok gara onak, baina hori gizonori pastela baino hobea zen, eta alaba berdin-berdina da. Sekula aurpegi serioerik ez, beti mesede egitekoak ziren. Eta beti eskerrak ematekoak ziren, dena ematekoak", berba horiek izan ditu Juli Pagaldai Gesalibarko Garatetxe etxeok Uriarte-Arana familiakoendako.

Adibideak ere segitu-segituan etorri zaizkio burura: "Nire ahizpak medikuarengana joan behar zuen astelehenean, eta berak eraman zuen, Jose Inaziok. Eta, Izaskunek, berriz, urtero gordetzen zizkidan mailukiak, letxugak, piperrak... dena ematen zidan. Eman zizkidan, adibidez, pentsamendu haziak eta orain loreak irten zaizkit, hortxe dut oroitzapena", gaineratu du.

Gogoan du, bereziki, paseatzea zutela gustuko. "Beti-beti joaten ziren Aramaio aldera. Izaskunek esaten zuen Donostian goizean hondartzara-edo joaten zirela, baina gero ahizpa eta biek zapatila kiroltakoak jantzi eta kilometroak egitekoak zirela". Izan ere, pisua dute Donostian, "normalean egubakoitzetik domekara arte hantxe egoten ziren, eta jendeak horixe esaten du: han egon baziren..."

Uriarte-Aranaren zoritxarreko heriotzak auzoan "samin" handia eragin duela egiaztatu du Garatetxe bizilagunak: "Horiek auzoan ez zuten inorekin haserrik".



Jose Inazio Uriarte zena eta familia Santa Ageda korua entzuten. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA



AUZO LAGUN, KOOP.E. - ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera, Ohiko Batzar Orokorrerako deia egiten da.

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

DATA: 2012ko maiatzak 19.
ORDUA: 10:30ean, lehen deialdia.
 11:00etan, bigarren deialdia.
TOKIA: Garaia Berrikuntza Gunearen Auditorioa (Arrasate).
GAI - ZERRENDIA

- 2011ko BATZAR OROKORREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA.
- MEMORIAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.
 - 2011ko Kudeaketari buruzko akordioa
 - 2012ko Kudeaketa Planaren onarpena
- 2011ko KONTUEN ETA BALANTZEAREN AZTERKETA.
- SOBERAKIN GARBIA BANAKETA.
- EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK.
 - Sarrera kuotak eta ekarpena.
 - Kapitalari egindako ordainketa.
 - IPDK aplikatzeko irizpideak.
- KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK.
- MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
- ZAINTZA BATZORDEKO ETA BALIABIDEEN BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA.
- GALDERAK ETA ESKARIK.

Susana Roa.
Lehendakaria

2012ko maiatzaren 3an

Emakumea etxetik ateratzeko suhiltzaileak

Bergarako Infernukua tabernaren pareko etxe batean suhiltzaileak egon ziren atzo. Hango bizilagunak —adineko emakumea— ez zuen familiakoen deia erantzuten, eta suhiltzaileei eman zieten abisua. Emakumea erorita zegoen etxean.



LEIRE ASIAIN

Zero zaborraren beharra azpimarratuta

Adibideen bitartez ilustratu zituen Joan Marc Simon hizlariak zero zabor filosofiaren beharra eta eraginkortasuna Arrasaten emandako hitzaldian. Ahalik eta zabor gutxien sortzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuen.



UBANE MADERA

Aldundiarekin euskaraz aritzera konprometitu dira

16 erakunde, elkarte eta enpresak konpromisoa sinatu dute Aldundiarekin, tartean bailarako lauk

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Eguenean Gipuzkoako hamasei erakunde, enpresa eta elkarteek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin euskarazko harremana izateko konpromisoa sinatu zuten. Konpromiso hori sinatu dutenen artean Debagoieneko lau daude: Elkargi, Elay, Topagunea eta Goiena Komunikazio Taldea.

Zigor Etxeburua Euskara zuzendariak esan zuenez, "Aldundiak konpromiso sendoa du euskaraz bizitzeko aukerarekin, eta horren aldeko apustu garbia egin du: 2015erako zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko ditu, eta euskara laneko hizkuntza bilakatze-ko urrats sendoak emango ditu".

Ildo horretatik, erakundearekin euskara hutsezko harremana izateko aukera eman die Aldundiak gipuzkoarrei. Horretarako Ogasunaren errenta kanpaina baliatu du. Egunotan milaka gipuzkoar errenta aitorpena egiten ari dira. Hain zuzen, Aldundiari euskara hutsezko harremana eskatzeko



Sinadura ekitaldiko une bat. | IBAN ARANTZABAL

galdera gehitu da errenta aitorpenaren inprimakian. Harremanetarako hizkuntza hautuaz galdetzen duen laukitxoan euskara aukeratuta, aurrerantzean euskara hutsezko harremana izango dute herritarrek Aldundiko departamentu guztiekin.

Egueneko sinatze ekitaldian, hain justu, Gipuzkoako jendar-tearen ordezkariak esanguratsu

batek berretsi egin zuen gipuzkoarrei egindako gonbidapena, eta haiek ere Aldundiarekin euskara hutsezko harremana izateko konpromisoa hartu zuten. Aipatutako debagoiendarrak gain konpromisoa hartu dute, esaterako, Real Sociedad Fundazioak, Asmoz Fundazioak eta Gipuzkoako Pilota eta Surf Federazioek.

Mondragon Assemblyk 11 milioiko bi kontratu lotu ditu

Lituanian eta Asia erdialdean egin ditu kontratuok, bi lantegi eraikitzeko

M.B. | ARRASATE

Aretxabaletan dagoen eta automatizazio eta robotikako soluzioetan diharduen Mondragon Assembly kooperatibak bi eskari lortu berri ditu, 11 milioi eurotik gorakoak. Bata, Asia Erdialdean lotu du, eguzki panel edo moduluak egiteko lantegia eraikitzeko; eta bestea, Lituanian. Han ere sektore bererako planta eraikitzea da helburua -baina integrazio arkitektonikora zuzenduta-.

Mondragon Assemblyk Europa Ekialdeko merkatu horietan egiten duen lehenengo sarrera da. Bi proiektue-

tarako ekipamenduak Mondragon Assemblyk Aretxabaleta duen lantegian egingo dira eta, horrenbestez, kooperatibaren enplegua finkatzen lagunduko dute eta ingurune-ko tailer laguntzaileen jarduerara handitzea ahalbidetu.

Hitzarmena Tecnaliarekin

Bestetik, Mondragon Assemblyk eta Tecnaliak lantegia hitzarmen bat izenpetu berri dute elkarrekin modulu fotovoltaikoen fabrikazio sistema eta prozesu berriak garatzeko eta kalitatea kontrolatzeko.

Mundumira jaialdiaren barruan egingo diren mendi ibilaldietarako izen-ematea zabalik dago

Lau ibilaldi antolatu dituzte. Maiatzaren 19an, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga artekoa egingo dute. Maiatzaren 20an, berriz, hiru: Eskoriatza eta Leintz Gatzaga artekoa; Elgetako gerra zibileko ibilbide tematikoa; eta familiendako Uretsen bidea Aretxabaletan. Parte hartzeko izena eman behar da turismo@debagoiena.net eta info@mundumirafesta.com helbideetara idatzita edo 902 18 14 71, 943 71 89 11 eta 943 79 64 63 zenbakietara deituta.

Nahi baduzu, Gasteizen bizi zaitezke Sartu eta aukeratu!



Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)

Ez da beharrezkoa Gasteizen erroldatua egotea. Bi eta hiru logelako etxeak, garajea eta trastelekua **84.736** eurotik aurrera (14.098.889 pzta.).

Informazio gehiago >



SALBURUA Toni Morrison kalea

BOE bat baino pixka bat gehiagogatik, etxebizitza libreak. Hiru logela, garajea eta trastelekua **199.000** eurotik aurrera (33.110.814 pzta.). Atikoak **205.000** eurotan (34.109.130 pzta.).


Informazio gehiago >



ZABALGANA Veleia behatokia

Bat, bi eta hiru logela, garajea, trastelekua eta terraza dituzten etxebizitza libreak. Sukaldea altzariekin eta horma-armairuak **135.000** eurotik aurrera (22.462.110 pzta.).

Informazio gehiago >



BOE Alto de Olarizu bizitegia

Eraikuntza berriko BOE etxebizitzak bi eta hiru logelarekin, garajea, trastelekua eta terraza **131.577** eurotik aurrera (21.892.571 pzta.).

Más información en >



Baleren Bakaikoa | Ekonomia Aplikatua katedraduna

"Balio erantsiko enprekin antolatzen hasi beharko litzateke 3. sektorea"

- ▶ "Enplegua zerbitzuetara bideratzen dabil"
- ▶ "Norwegian, 3. sektorea beste mota batekoa da"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ekonomia Aplikatua katedraduna eta Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea da Baleren Bakaikoa. Dioenez, krisiak luze iraungo du, eta Euskal Herriko ekonomia eta lana aldatu egingo dira.

Zenbat iraungo du honako krisialdiak?

Aztertutako 29ko, 71ko eta 90eko krisiak; azken hori Euskal Herrian oso sakona izan zuen, langabezia tasa %25era ailegatu zelako. Oraingo krisia bestelakoa da: ekonomia ere ez dago lehen moduko isolatuta, gaur egun erabat globalizatua dago eta; bestalde, babes neurriak ez dira nolatan hartu, eta politika ekonomiko burujabea egiteko oso tresna gutxi daude.

Hego Euskal Herrian eta Espainian ze langabezia dagoen ere ikusi behar da: ekonomiako lege batek dioenez, langabezia murriztea eta Barne Produktu Gordina handitzea lotuta daude, eta BPG %2 hazi behar dela, langabezia aldatu barik egoteko. Hortik aurrera, 2,5 puntu handitzen bada, langabezia puntu bat jaitsiko da.

Oro har, ikusirik %13ko tasa daukagula orain eta %7-8ra iristea dela helburu nagusi bat, krisiak oraindik lau bat urte iraungo duela uste dut. Espainiako estatuan are luzeagoa izango da.

Horrez gain, austeritate planaren inguruan antolatzen ari da erantzun guztia, eta horrek are gehiago mantsotzen du ekonomia. Beraz, esaten dute 2020an ikusiko dela ekonomia ondo bidean.

Zelakoa izango da etorkizuneko enplegua?

Enplegua hirugarren sektorera dabil bideratzen. Produktibitatea handitzen ari da industrian, jendea soberan dago, eta Txinatik, Indiatik... izugarriko produktuak datozkigu. Baina 3. sektorean, hemen, denetarik sartzen da, eta


"Krisiak oraindik beste lau urte iraungo du Euskal Herrian"

hor daukagu tabernak, jateak... euskal kulturaren oso garrantzitsuak direnak, baina Norwegian, Herbehereetan... 3. sektorea beste mota batekoa da: kontsultorak, ingeniarien azterketa-zentroak eta balio erantsi handiagoko enpresak daude. Hemen ere ondo prestatutako jendea badago, eta beste enpresa batzuen itxura hartuz antolatzen hasi beharko litzateke.

Gaur egungo kooperatibak izan daitezke irtenbide bat?

Kooperatibak ere jo ditu krisiak, baina badituzte euren burua erregulatzeko mekanismoak. Kooperatibek enpresa kapitalistek ez dituzten balio batzuk dituzte. Nik uste, arretaz eta zuhurtasunez kudeatzen badira, orain arte bezala, etorkizuna badaukatela, nahiz eta momentu gogorrak pairatu beharko dituzten.

Nik uste dut mundu osoan kooperatibismoak baduela etorkizuna, ez bakarrik industrialak, baita hezkuntzan eta nekazaritzan ere. Euskal Herrian badugu nekazaritza produktu batzuk ekoizteko gaitasuna. Kooperatiben bidez



Baleren Bakaikoa, Donostian. | MIREN ARREGI

ahalbidetzen da ustiatzen jarraitzea, bizitza-proiektua aurrera eramateko adina.

Unibertsitateko irakaslea zara. Unibertsitateak ematen duen formazioa zelatan ikusten duzu, errealitateari egokituta dago...?

"Gizarte ekonomiak sortuko du lana; unibertsitatean, baina, ez du tokirik"

Prestakuntza guztia enpresa kapitalistetara zuzenduta dago, euren dako oso prezio onean. Guk enpresa erraldoi askorik ez dugu, eta arreta handiagoko jarri beharko litzateke enpresa txiki eta ertainen beharrezanetan, eta haiektara zuzendu prestakuntza.

Bestalde, gizarte ekonomiak sortuko ditu lanpostuak. Unibertsitatean, guk badugu Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatibo Institutua, eta master bat sortu dugu. Baina ohiko prestakuntzan, gizarte ekonomia ez da existitzen, tamalez.

Krisian arrakasta duten enpresak aztertuko dituzte

Miguel Altunako hitzaldi baten, ondo doazen enpresen ezaugarriak azalduko ditu aditu batek

L.K. | BERGARA

Claves para trabajar en la coyuntura actual delako hitzaldia egingo du Vicente Gutierrez Agirrek, Grupo Bentaseko bazkide-zuzendariak, Bergarako Miguel Altuna Institutuan. Gerenteei, zuzendari komertzialei eta giza-baliabideetako arduradunei zuzendutako hitzaldia da, eta Miguel Altuna Institutuak antolatu du. Maiatzaren 17an izango da, 16:00etan, eta joan nahi duenak aldeztu aurretik deitu behar du 943 76 70 49 edo 688 81 50 70 telefono zenbakietara. Ordu eta erdiko hitzaldia da eta, gero, entzuleek galderak eta egiteko aukera izango dute.

Hainbat sektore

Helburua da krisialdian arrakastan izan duten enpresak zertan

datozen bat jakitea. Izan ere, antolatzaileen esanetan, "krisialdian urtero gero eta gehiago fakturatzen duten enpresak ere badaude".

Hori ikusita, Grupo Bentasekoek hainbat sektore ikertu dituzte, esaterako fabrikazioa, forja, automobilgintza, makina-erreminta, hidraulikoko osagaien fabrikazioa, eraikuntza, higiezineta promotoreak, catering eta elikadura enpresak eta abar. Ikerketa horretatik atera dituzten ondorioak azalduko ditu Gutierrez Agirrek hitzaldian.

Profesionalendako zerbitzuak

Bilboko kontsultora bat da Grupo Bentas. Enpresetako profesionalen kompetentziak eta jarrerak garatzen laguntzeko zerbitzuak ematen ditu.

Aitorpen guztien %62 tramitatu dira dagoeneko

Autolikidazio proposamenak onartzeko epea maiatzaren 18ra arte luzatu du Ogasunak

L.K. | ARRASATE

Aurreko kanpaina osoan baino autolikidazio gehiago onartu dituzte zergadunek dagoeneko: iaz 182.737 proposamen onartu ziren, eta aurten dagoeneko 189.857 onartu dira. Horregatik, autolikidazio proposamenak onartzeko epea maiatzaren 18ra arte luzatu du Ogasunak, eta hala jakinarazi zuen egun goizean Xabier Olanok, Ogasuneko zuzendariak. Esan zuenez, aurtengo kanpaina "marka guztiak gainditzen" dabil, eta datu batzuk eman zituen: aurten, maiatzaren 9ra arte 241.883 errenta aitorpen tramitatu dira, iaz baino %2,35 gehiago.

Iaz baino %3,9 gehiago

Dagoeneko kanpaina osoaren erdi aldea dela kontuan hartu-

ta, aitorpen guztien %62 tramitatu dira. Epea luzatuta, oraindik askoz gehiago onartuko direla espero du Ogasunak, "ziur aski inoiz izan den onarpen mailarik altuena" lortuta.

Modalitateka, hauek dira tramitatutako aitorpen kopuruak: 189.857 proposamen (2010ean, 182.737, %3,9 gutxiago); 36.963 aitorpen mekanizatu (iaz, 37.011, %0,13 gehiago); Internetez, norbanakoan 5.680 aitorpen (iaz, 5.565, %2,07 gutxiago); eta Internetez, aholkulari bidez, 9.383 (iaz, 11.007, %14,75 gehiago). Ogasunak dagoeneko 180.000 milioi itzuli dizkie zergadunei.

Olanok nabarmendu zuenez, "Foru Ogasunak ahaleginak" egin ditu "kontuak garbi eta erraz aurkeztu ahal izateko".

Kontsumitzaile gehienek beti marka berak erosten dituzte

L.K. | BERGARA

Euskal kontsumitzaile gehienendako -10etatik bederatzirendako- garrantzitsua edo oso garrantzitsua da ohiko supermerkatuan bere aukerako marka topatzea. Kontsumitzaileen %82rendako traba da hura ez topatzea, eta kontsumitzaileen herenak beste denda batera joaten dira hala koetan. Horiek da *Espainiarren erosketa-ohiturak* izeneko inkesta baten ondorio batzuk. Promarcak, Espainiako ekoizlearen marka liderrak egiten dituzten enpresen elkarrekin egin du inkesta hori.

Euskal kontsumitzaileen %83k banatzailearen markaren bat probatu dute eta gero ohiko marka erosten hasi dira berriz, ikerketaren esanetan.

Sonia Ulazia | Pedagogoa

"Estresa eragiten duen faktore bat nork bere buruari jarritako exijentzia maila handia da"

- ▶ Adindu elkarteak autoestimuan gainera ikastaroa ematen dabil Bergaran
- ▶ Pentsamenduak autoestimuan eragin handia duela azaldu digu Ulaziak

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bizikasik eta Bergarako Udalak *Autoestimua* izeneko ikastaroa antolatu dute. Joan den eguaztanean hasi zuten ikastaroa zortzi emakumek eta bi gizonek. Adindu elkarteko Sonia Ulaziak azaldu du zertan oinarritzen den ikastaroa.

Autoestimua. Nola definituko genuke?

Pertsona bakoitzak bere buruarekiko egiten duen balorazioa da autoestimua. Ikastaroa hasi genuenean, definizioa ematerakoan, nik ikuspegi positibotik eman nuen definizioa: nork bere buruarekiko duen jarrera positiboa da autoestimua. Gauzak ahalik eta modu naturalenean pentsatu, sentitu eta egitean datza. Gure ongizatea jarrera aktibo batekin bilatu behar dugu. Horrela definituko nuke autoestimua. Hortik aurrera, autoestimu hori hobetzen lagunduko diguten alderdiak jorratuko ditugu.

Ikastaroa eguenean hasi zuten. Nola joan zen lehenengo eguna?

Talde irekia da, eta horrelakoetan ez da jakiten nortzuek emango duten izena ikastaroan. Nire pertzepzioa ona da, uste dut lehenengo eguna izateko ondo joan zela.

Zer landuko duzue ikastaroan?

Beharren arabera antolatuko dugu ikastaroa. Baina oinarri finko batzuk izango ditu. Pentsatzeko modua, adibidez, nire ustez oso garrantzitsua da. Pentsatzeko modu positiboa landuko dugu. Uste dut pentsatzeko modua oso lotuta dagoela gero sentituko garen moduarekin. Bizitza eta gertatzen zaizkigunak nola enfokatzen ditugun oso garrantzitsua da. Horregatik, ikastaroan arlo hori landuko dugu.

Psikologia kognitiboan oinarrituko zarela azaldu duzu.

Psikologiako alderdia da psikologia kognitiboa, eta, hain zuzen, pentsatzearen arloa lantzen duen joera da. Hortik abiatuta hainbat teknika landuko ditugu. Nik uste dut teknika horiek baliagarriak direla gure buruarekiko edo inguruko pertsonarekiko ditugun pentsamenduak enfokatzeko. Hau da, egunero gertatzen zaizkigun gauzek zerikusi handia dute pentsatu ditugun ideiekin eta horrek eragina izango du sentituko garen moduarekin. Oinarri arrazionalik ez duten pentsamenduak sartuko lirarteke hor.

Pentsamenduak arrazionalak izan arren, gure buruan izaten ditugu askotan.

Bai, eta askotan pentsamendu

arrazional horiek min handia egiten digute. Pentsamendu horiek dira *izan/egin beharko* deiturikoak. Exijentzia larregi jartzen dizkiogu gure buruari: "Dena ondo egin beharko nuke, ez nuke inoiz hutsik egin behar, beti jakin beharko nuke erantzuna...". Horrelako itxaropenak jartzen dizkiogu gure buruari, baina baita ingurukoei ere. Hori ikastaroan landuko dugun arlo bat da. Kontuan hartu behar dugu pertsona bakoitza nolako den eta gaizki egotea nolako pentsamenduek eragiten diguten. Pentsamendu horiek ezabatzeko pauso batzuk eskainiko ditugu: benetakoak ez diren pentsamenduak dira, baina guk benetako moduan hartzen ditugunak.

Gaur egungo gizarteak perfektuak izatera behartzen gaitu?

Estres handiko gizarte bizi gara. Hainbat faktore daude stres hori eragiten dutenak, baina faktore horietako bat gehiegizko exijentzia maila da. Huts egiteko beldurra izaten dugu, perfektuak ez izateko beldurra. Onak izan behar dugu lanean, guraso onak izan behar dugu, denbora atera behar dugu aisialdirako... Presio hori gaineratik kenduko genuke konturatuko bagina gauza askok ez dutela garrantzirik. Erlatibizatu egin beharko genuke.

Definizioa ematerakoan autoestimua positiboa aipatu duzu. Baina autoestimu negatiboa ere badagoela esan daiteke?

Autoestimu on bat nork bere buruarekiko jarrera positiboa izatea da. Hori oinarri hartuta eman dut definizioa. Bizi izaten ari naizen egoera hori modu naturalenean pentsatu, egin eta sentitzea da autoestimua. Ez zait autoestimu handiaz eta txikiak berba egitea gustatzen. Jarrera horiek naturalak dira, denok gura dugu poztasun horiek jarraera aktiboarekin bilatzea. Baina, batzuetan, hainbat arazo izaten ditugu poztasun hori topatzeko. Jarrera horiek autoestimu arazoak sortzen dituzte. Hortaz, arazoak sortzen ditugun jarrera horiek topatu eta deuseztatzea da helburua.

Gaizki sentiarazten gaituen arrazoietakoa bat pentsamendua izaten da?

Bai, pentsamendua oso garrantzitsua da. Landuko dugun beste gai bat erabakiak hartzea izango da. Nola aurre egin erabakiak hartzeko momentu horri. Autoestimua eta ekintza oso lotuta dauden faktoreak dira, erabakiak hartzeko motorra izaten da autoes-



Sonia Ulazia, Migel Altuna institutuan, eguaztanean. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Ahalik eta naturalen pentsatu, sentitu eta egitea da autoestimua"

"Pentsatzeko modua lotuta dago sentituko garen moduarekin"

"Huts egiteko beldurra izaten dugu, perfektuak ez izateko beldurra"

"Inolako baldintzarik gabe onartu behar dugu gure burua"

timua. Azkenik, nork bere burua ezagutzea ere oinarritzkoa da. Nor naizen eta zelan nagoen jakin behar dugu.

Nork bere burua onartzea ezinbestekoa izango da, ala?

Bai, edozein lan psikologiko egiterakoan oinarritzkoa da nork bere burua ezagutzea. "Nor naiz, nola nago, ilusioa daukat...". Garen bezalakoak onartzea ezinbestekoa da. Inolako baldintzarik gabe onartu behar dugu gure burua, eta baita gainerakoena ere.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
http://goiena.net/iritzia/



Europa ezkererantza

Frantziako igandeko hauteskundeetan Holland sozialistak irabazi du eta lehendakari berria izango da laster. Grezian ere ezkerre gorantz joan da. Alemanian Merkel-en politikak galerak ekarri dizkio. Ingalaterran, Galesen eta Eskozian ere laboristek irabazi dute eta gorantz egin dute udal hauteskundeetan.

Baina garrantzitsuenak Frantziako datuak dira, zeren eta Holland-en asmoak Sarkozy, Merkel eta Mariano Rajoyren aurkakoak baitira.

Aspaldian denok diogu neo-liberalismoak galdu egin duela eta krisi finantzario eta ekonomikoaren sortzailea izan dela. Baina, hala ere, Merkel-en eta bere antzekoen gobernuen politikak langilei min handia egiten digu, jende guztiarengan jarri nahi dutelako krisiaren konponketa: BEZ-IVA gehituz, eta hori berdin ordaintzen dugu asko irabazi edo gutxi, gasolinaren prezioa handituz, medikamentuak ordainduz, eskola ikasleen kopurua gelaka handituz... Zor publikoa gutxitzeko gerrikoa estutu behar dugula denok eta inbertsiorik egin ez. Era berean, diru publikoak banketxeak salbatzeko dira eta ez da gelditzen hezkuntza eta osasungintza hobetzeko. Ez, honetarako ez dago dirurik, bakarrik bankuentzat.

Eta Holland-en politika proposamena inbertsioak bultzatzea izango da kontsumoa eta berrikuntza mugitzeko. Bete ahal izango du bere asmoa? Utziko al diote kontserbadoreek politika berri hori aplikatzen? Garbi dagoena da daramagun murrizte politikarekin ezin dela lanposturik sortu eta ezingo dugula garapenik ziurtatu. Langabezia gora joango da hurrengo urteetan hemen eta Europa osoan. Espainian lautik bat lanik gabe dago.

Jadanik ekonomialari batzuk hasiak dira esaten Espainiaren zorra Euskadirentzat pisu salba ezina izango dela hurrengo hogeitau urteetarako (remora bat diote), eta, beraz, askatasuna lortu behar dugula lehenbailehen. Ni ados nago.

"Espainiaren zorra Euskadirentzat pisu salba ezina izango da"

USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.com

Politikaren etorkizuna kalean

Egunotan gustura asko ikusi ditut telebistan Madrilgo Sol plaza, Bartzelonako kaleak edo Valentziakoak protestan aterata den jende gazte, nagusi eta helduz gainezka. Krisiak horrenbeste albiste txar eta tristura ematen dizkigun honetan, esperantzarako atea zabaltzen dute halakoek. Eta poz handia eman dit, batez ere, ikusteak jendeak baduela etorkizuna lantzeko eta proposamenak egiteko (ekonomikoak, politikoak...) gogoia eta grina, bereziki, oraingo gizarteak politikarekiko erabateko apurketa duela zirudielako. Hortaz, zergatik dute horrenbeste arazo alderdi politikoez zerrendak osatu eta politikan jardun gura duen jendea lortzeko? Hori aztertu beharko litzateke akaso.

KALE INKESTA

Eguraldiak eragiten al du zure aldarrean edo umorean?



SOLEDAD
RAIGON
ARRASATE

"Niri asko eragiten dit. Eguraldi onarekin nago ni pozik. Euriarekin ez. Irteteko gogorik ere ez dut izaten askotan".



RAFAEL
NAFARRATE
ARRASATE

"Jaiegunetan inporta dit gehien, bestela ez horrenbeste. Dena dela nahiago dut eguraldi ona, baina beroegi ere ez".



AINHOA
ASTIGARRAGA
ARRASATE

"Eguraldi onarekin umoretsuago egoten naiz, baina katarroa harrapatzeko ere aukera handiagoak izaten dituzu".



AURORA
CORCUERA
ARRASATE

"Niri ez dit eragiten. Eguzkia, euria edo elurra egin, ni kalera irteten naiz. Oso positiboa naiz horretarako".

HANDIK ETA HEMENDIK

Irabazi arte

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Asteazkeneko notiziariatik galdetako banu, zer erantzungo zenidakete?

Zein izan zen, zuen ustez, asteazkeneko notiziariatik garrantzitsuenak? Telebista mintzatuko balitz gure ordez -eta irudipena daukat gero eta gehiago egiten duela-, erantzunak zalantzarako tarterik ez luke utziko: Europa Ligako Athletic-Athletico Madril partida -%63,3ko share-a Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 542.000 ikus-entzule-. Ados, arrazoi duzue, Bateragune kasuari buruzko saiorki ez zen beren-beregi prestatu, ez eta balizko hauteskunde aurrerapenari, Aralar aferari edota Bankiaren bromari buruzkorik ere. [...]

Eguerdi parteko albistegietan, haatik, saiatu ziren olatua harrapatzen: lehenengo 25 minutuak, eksklusiboki, talde zuri-gorriaren ingurukoak izan ziren, gero, kirol tartean, atzera koloreok hartzeko. Eta horregatik bakarrik jada hitz egin beharko nuke asteazken gaueko futbol partidaz? Telebista publikoa guztiok ordaintzen

Leku bila

Leku bila

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Ez hain aspaldi, inor hiltzen zenean, haren etxera joaten ginen: hil berriaren espazio esanguratsuenan egoten ginen zenduarekin, haren bizipen nagusien tenpluan. Tanatorioek ezin dute etxearen itzala eskaini. Iraganbide huts dira, Marc Augé soziologoak ez leku gisa izendatutako kasta bertsukoak: nortasun gabeak, hotz aseptikoak, episodikoak. Aireportu batean bezala egiten dugu tanatorio bateko sartu-irtena: lekuak ez dio baliorik eransten hildakoak dugun oroitzapenari. Aireportuak ere ez handik pasatzera behartu gaituen negoziari, aisiari edo abenturari.

Horregatik, tanatorio batetik irtendakoan, hil berriarekin egon izandako tokiren bat berritzea gustatzen zait, mentalki bederen.

Herenegun, tanatoriotik irten eta paseo luze samarra eman nuen, Zarauzko ikastolako lehen lokalak izandakoen peskizan ibiltzeko (Garrastazu, Alfa, Pilartxo Enea, Egunon...) Basilio Bergara lagun zendu berriaren konpainian.

dugula oroitarazi beharko nuke, baita Real Unioneke zaleok ere? Gure dirua itzultzeko zer egin behar den galdetu? Zer esan beharko nuke asteazken gaueko partidaz, hunkitu egin nintzela ni ere Athleticen jokalaria negarrez ikustean, jakin arren 110.400 euro inguru irabazten dituztela batez beste hilean? Zergatik aukeratu beharko nuke Europa Ligako final galduta -bai, galdu egin baikenuen euskaldunok, herri gisa galdu ere-, Bateragune, hauteskundeak, Aralar, Bankia eta abarrak notizia izan ditugun egun berean? EAEko biztanleen %63,3k jarraitu dutelako soilik? Egoera bitxia bizi dugu: dena galdu dutenak ere kalera ateratzen ez diren honetan, pantailaren aurrean jokatzen da gure etorkizuna. Gaitz erdi, maiatzaren 25eko finala geratzen zaigun oraindik. Pausatzeko galdera litzateke zer gertatuko den egun horretatik aurrera. Hasiko ote garen benetan ezinbestekoak diren kontuekin kezkatzen. Bat baino gehiago esnatuko da kolpetik lurralde ezin gordinago batean. Non eta nola egon naiz orain arte? Bitartean, aupa Athletic. Eta, Idoia Mendia sailburuak esango lukeen moduan, Jo ta Ke irabazi arte.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Asteburuko edizio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zure semeak edo alabak ingelesa **ikastea** nahi duzu?

Sartu

centrocomercialgorbeia.com-en

Irabazi 3 asteko ikastaroa Irlandan

bidaia eta egonaldia barne*



GORBEIA
10 URTE **AURREZTEN**

*Oinarriak irakurtzeko:
www.centrocomercialgorbeia.com

Sustapenak 2012ko Maiatzaren 11tik
Ekainaren 2ra iraungo du

MAGA ZINEA

GOENA TELEBISTA | HARIRA | IZEN ABIZENAREKIN ELKARRIZKETA
HILA 00, 00:00 | HILA 00, 00:00 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA



HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Bidegorriaren lanak hiru urte barru hasita egotea espero da

Turismoari begira azpiegitura oso garrantzitsua dela uste dute Udal ordezkariak

MAIALEN REGUEIRO | LEINTZ GATZAGA

"Gatzagako Goierri auzoko base-rietara doan bidea, garai batean trenbidea zena, egoera eskasean dago. Lur horien azpitik ura pasatzen da eta ur horiek behar bezala bideratu gabe daude". Halaxe jakinarazi du astean Eugenio Otsoa Gatzagako alkateak. Hori horrela, Udalaren asmoa zen apirilaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran bide hori konpontzeko lanen kontratazioaren espedienteari hasiera ematea. Dena den, gaia atzeratzea erabaki zuten, guztia zehaztu aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza eskaera bideratu nahi diotelako.

Bidea konpondu beharra

Udaleko Hirigintza zinegotzia den Asier Ugarteren esanetan, "garai bateko trenbidearen bideak konpontzeko premia handia dauka eta guk horri eman nahi diogu lehentasuna". Izan ere, hainbat baserrietara jotzeko bidea da hori. Gainera, tarte hori bidegorria izango da etorkizunean, eta arazoak konponduta egon behar du ordurako. Alkatearen berbetan, "lur sail hori mugitu egin da eta behera jausita ere badago, azpitik pasatzen diren urak gaizki hartuta daudelako". Udalak pika batzuk jartzea nahi du Aramaiotik Gasteizera bidean, Kurtzeta inguruan, egindako moduan, "horrelako arazoendako sistemarik seguruena eta egokiena delako". Horrek, baina, diru kostu handia suposatzen du, eta halaxe azaldu du Ugarte zinegotziak: "Aldundiari lur horien saneamendu lanak egiteko eskatu diogu, guretako berebiziko garrantzia dutelako. Eurek ez badigute proposamen hori onartzen guk egin behar du ditugu lanok; baina guretzat oso garrantzitsua izango litzateke Aldundiak onartzea".

Bidegorria hiru urte barru

Saso bateko trenbidean egin gura duten bidegorriaren egokitze lanak bi edo hiru urte barru hasiko dituztelakoan daude Udal ordezkariak; izan ere, Aldundia, Gipuzkoa osoan dabil bidegorriak eraikitzen eta bultzatzen. Debagoieneko bidegorri sarearen zati gehiena egin barik dago oraindik, eta horien artean Eskoriatzatik Gatzagara arteko zatia eta Gatzagatik Arabako mugaraino artekoa



Goierri auzoko baserrietara doan bidea, etorkizunean bidegorria izango dena. | M.A.

daude. Hala ere, bidegorri hori iritsiko den ziurtasun osoa dute gatzagarrek Gipuzkoarako egindako proiektuan jasota dagoelako –Gatzaga azken herrietakoa izango dela uste arren–.

Udal ordezkariak oso ilusinatua agertu dira Aldundiak egindako proiektu proposamenarekin, "nahiz eta data zehatzik jakin ez". Otsoa alkatearen arabera "herriarentzat oso garran-

tzitsua da bidegorri hori, turismoari begirako eskaintza polita egiteko azpiegitura izango delako. Izan ere, Gatzagaineraino iritsiz gero, bertatik Gasteizeraino joan ahal izango litzateke

Arabako bideekin bat eginda". Ez da samurra izango Eskoriatzatik Gatzagarainoko tarte hori, batetik kilometro asko direlako eta bestetik, tarte batzuek lan zailak eskatzen dituztelako. Hala ere, "Aldundiak hartutako konpromisoak bete egingo dituen" ziurtasuna du alkateak.

Bidegorriak bultzatzen

Aldundiko agintariak bultzada berria eman gura diete bidegorriari, batez ere eguneroko beharretarako erabil dezaten herritarrek. Hala, Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak 2011ko erabileraren gaineko txostena argitaratu du eta Debagoieneko hiru tarteren berri eman: Soraluze-Bergara; Antzuola-Bergara; eta Eskoriatza-Aretxabaleta. Guztietan bizikletaren erabilerak gora egin duela ondorioztatu dute.



Aretxabaletatik Eskoriatzara doan bidegorri tarteak. | M.A.

Aurretik datorren proiektua

Bidegorriaren proiektua aurreko agintaldiko udalbatzako kideek jaso zuten, eta ikusitakoak kezka sorrarazi zien. Kezka horien berri eman eta hainbat eskaera egin zizkieten orduko Errepide Sailari. Eta Udalak 2008ko irailean egindako osoko bilkuran honakoak erabaki zituen: alde batetik, ordu-ra arte herrian zeuden bideak guztiz errespetatzea; eta bestetik, Gure Ametsa jatetxe inguruan eginda zegoena errespetatzea.

Gainera, garai hartako proiektuaren arabera bidegorria ez litzateke Gatzaga herritik pasatuko eta horrekin ere ez zen batere konforme azaldu udalbatza.



Herrixa dantzan saioan, Patxi Montero Eskoriatzako dantzari koadrila gidatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



IÑAKI KORTAZAR
ANTOLATZAILEA

"Oso giro polita izan da eta jende asko ibili da. Balorazio oso positiboa egiten dugu. Bestalde, eskerrak ere eman nahiko genizkioke jendeari erakutsitako jarrerarengatik. Bazkarian, adibidez, denek lagundu dute jasotzen".



MARIA JESUS ARREGI
TALOGILEA

"Orain bertsoak entzuten daude denak, baina gero guztiak etorriko dira taloa jatera; gu gertu gaude. Laguntza behar denean, gu beti izaten gara prest; gainera, gustura ibiltzen gara hemen lanean emakume koadrila".

ESKORIATZA

Aitzorrotz eguneko ospakizunetan herriko plaza beteta izan da

Jende asko elkartu zen bertso saioan eta baita arratsaldeko kontzertuetan ere; bazkarian 100 lagun

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkartearen eguna ospatu zuten zapatuan Eskoriatzan, eta izan zen non gozatzeko aukera, egun osoko gitarrak prestatu zuten-eta.

Herriko plaza, beteta

Herriko plazan egin zituzten ekintza guztiak eta goizean goizetik elkartu zen jendea bertan. 12:30ean bertso saioa izan zen, eta asko izan ziren Andoni Egaña eta Uxue Alberdiren bertsoak entzutera joan zirenak. Elkarte

izan zuten hizpide bertsolariek batez ere, baina umore giroan ere ibili ziren.

Ostean, *Herrixa dantzan* saioa egin zuten; aurtengo berrikuntza nagusia. 30 lagun inguru batu ziren dantzarako.

Indarrak errekuiperatzeko bazkaria izan zuten gero, plazan bertan; 100 lagun elkartu ziren. "Jende asko animatu da eta izugarritzko giro ona izan dugu. Adin guztietako jendea elkartu da", adierazi digu Iñaki Kortazar Aitzorrotz elkartearen kidea.

Hankazgora, ezustekoa

Arratsaldean, kontzertuak izan ziren. Hori izan zen beste berrikuntzetako bat. Izan ere, formatua aldatu dute aurten antolatzailleek; lehen, kontzertu bakarra izaten zen, eta aurten bakarlarria eta bi talde izan dituzte. Hala, eszenatokira igotzen lehena Fermín Balentzia nafarra izan zen "kopla zaharrak kantatu ditu, politikoa; jendeak oso gustura entzun ditu", esan digu Kortazarrek. Ondoren, Londrestik etorritako Beaux Degats taldeak jo

zuen. Jende asko elkartu zen ingelesaren punk-rock doinuak entzuteko, baina ezustekoa herriko taldeak eman zuten. "11 urteko mutilek osatzen dute Hankazgora herriko taldea, eta jendea harrituta gelditu da emanaldia-rekin; izugarritzko maila dute".

Datorren urtean gehiago

Pozik da Kortazar egunak eman-dakoaz: "Balorazio positiboa egiten dugu. Datorren urtean gehiago eta hobeto; espero dugu berrikuntza gehiagorekin etortzea".



JUANJO AGIRIANO
ESKORIATZARRA

"Giro polita egon da; beste zapatu batzuetan ez da ezer egoten eta gaur badabil jendea. Eguraldia ere lagun dugu, bero itogarrik ez behintzat. Gero bazkaria ere badaukagu koadrilan; beraz, egun betea".

ARETXABALETA

Modelo lirainez bete zen ibiltokia 'Durana Fashion Day' moda desfilean

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA

Durana Fashion Day moda desfilea egin zuten egubakoitzean Aretxabaletan. Herriko hainbat komertzio ipini zuten arropa moda desfilerako eta herritarrek estilo handiarekin erakutsi zituzten Durana kalean ipinitako ibiltokian. Askok izan ziren desfilea ikustera batu ziren aretxabaletarrak. UDAko kideek, bestalde, jatekoa eta edatekoa eskaini zuten eta musika ere ez zen falta izan iluntze partean.



Bi modelo gazte ibiltokiaren gainean, estilo handiarekin. | MIRARI ALTUBE



Jende asko elkartu zen desfilea ikusteko Durana kalean. | MIRARI ALTUBE



Pilotalekuan ere denetarikojolasak egin zituzten. | ANDER MONEDERO



Hockeyan ere trebeak direla erakutsi zuten gaztetxoek. | ANDER MONEDERO

ARETXABALETA

Udaberriko Jaian jolasean eta dantzari ibili ziren Basabeazpiko ikasleak

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA
Arizmendi Ikastolako Besabeazpiko ikasle, irakasle eta gurasoek Udaberriko Jaia ospatu zuten zapatuan.

Goizean zehar adinka banatuta herriko plaza ezberdinetan jolasak egin zituzten. Txikiak dantzari ibili ziren eta beste batzuk, adibidez, *El Conquistador* tebibista saioko probak egin zituzten. Ondoren, batukadarekin batera eta hankapaloez lagunduta herriko plazan batu

ziren ikasle guztiak. Taloen txosna zuten bertan zain; herriarrek taloak erosteko aukera izan zuten eta txikitxoek eurek prestatu zituzten taloak. Tripa bete ostean gidatutako euskal dantzak egin zituzten.

Eguerdian, berriz, 250 lagun batu ziren paella jaterra. Arratsaldean tailerrak egin eta txokolate beroarekin bukatu zuten Udaberriko Jaia. Egun osoan zehar festa giroa herrira zabalzea lortu zuten.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

Trikiti doinuak eta dantza asko

Goizean hasi eta iluntzera arte trikiti doinuak eta euskal dantzak izan ziren nagusi Bergaran: Erromeria Eguna ospatu zuten zapatuan. Goizean dantza ikuskizunak egin ziren herriko gune desberdinetan eta ondoren Munibe plazan elkartu ziren 60 lagun inguru bazkaltzera. Arratsaldeko erromeriara jende dezente batu zen eta baita iluntzeko kalejirara ere.

ELGETA

Baserritarren kooperatibako urteko batzarra

Elgetako baserritarren kooperatibak gaur egun 65 bazkide ditu. Bada, atzo urteko batzarra egin zuten iazko akta irakurri eta aurtengo kontuen berri emateko. 30 bazkide inguru elkartu ziren Ozkarbi elkartearen. Datorren domekan, berriz, hala nahi duten bazkideekin bazkaria egingo dute leku berean.



JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

Gauerdian ere bolotan

Bolatoki tabernaren seigarren urteurrena ospatzeko zer, eta Jose ugazabari bururatu zitzaion bolo tiraldia antolatzea barikuan. "Jendea etorri arte beroketa ariketak egin eta gauerdian hasi ginen lehian, ordu bete iraun zuen", kontatu du David Peñalber partaideetako batek. Garaipena, 25 bat lagunaren artean, Zaldibarko Haritzek eskuratu zuen.



JOSETXO ARANTZABAL



UBANE MADERA

ARRASATE

Musakola alai eta jendetsu

Musakolako ikur den astoak "lagun" asko izan ditu asteburuan San Isidro jaien bueltan. "Zenbat jende zegoen Musakolan!", izan da, herrian entzun den esaldietako bat. Izan ere, musakolarrak, gehi herrira edo kanpora joandako musakolarrak, eta oro har, San Isidroak gogoko dituzten arrasatear ugari bertaratuta dira denetarikoko ekitaldiak izan dituzten jai horietara. Hurrengo hitzordua bihar, martitzena, dute baserritarrek, San Isidro zaindariaren eguna ospatzeko.





Arrasate Literatura Lehiaketetako irabazleen talde argazkia, saria jaso ondoren. | MIREIA BIKUÑA

AEDk etorkizuneko idazleak saritu ditu

Arrasate Literatura Lehiaketetako 25. edizioaren sari banaketara Jasone Osoro idazlea gonbidatu zuten; antolatzaileak, pozik parte hartzearekin

M.BIKUÑA/J.BEREZIARTUA | ARRASATE AEDk eman ditu ezagutzera Arrasate Literatura Lehiaketan 25. edizioeko sariak irabazleak. Guztira 18 sari, ipuinak, poesia eta bertso-paperak modalitateetan. 138 lan jaso dituzte antolatzaileek, eta epaimahaikoen izenean "oso maila oneko lanak" izan dira:

"Oso pozik gaude edizio borobil honen emaitzarekin. Parte hartzeak gora egin duelako nabarmen eta, epaimahaiaren esanetan, oso maila oneko lanak aurkeztu direlako", adierazi zuen Itxaro Artola AEDko kideak. Sari banaketa ekitaldian Jasone Osoro idazle eta kazetaria egon zen. Aretoan

zeuden idazle gazteei euren ametsak bete daitezten idazten jarraitzeko aholkatu zien.

Parte hartzearekin pozik

Ipuinen modalitatean 95 lan aurkeztu dira eta epaimahaia Arizmendiko, Arrasate Herri Eskolako eta Arrasate Institutuko

AED LITERATUR LEHIAKETETAKO IRABAZLEEN ZERRENDA

IPUINA

LH5-LH6

1. **Jone Buendia:** *Argiari diot beldur*
2. **Alaitz Barrutia:** *Hartza*

DBH1-DBH2

1. **Deiane Marcos eta Matilde Aizpuru:** *Nire ideiak ihesean*

2. **Beñat Aspe:** *Hiru sagu gaztazulon*

DBH3-DBH4

1. **Alba Bellido:** *Beti gogoan*

2. **Amaia Telleria:** *Aisha nire laguna*

17 URTETIK GORAKOAK

1. **Ainhoa Zabaleta:** *Arraindegi baten garrantzia*

2. **Ainhoa Urtzelai:** *Bizitza ez da arrosa kolorekoa*

POESIA

DBH3-DBH4

1. **Maria Aranburu:** *Ez du inork zapalduko*

2. **Irati Lopez:** *Eguzki izpi goiztiarrek ere*

17 URTETIK GORAKOAK

1. **Elene Etxaniz:** *Orri zurien madarikazioa*

2. **Uxue Agirre:** *Zapatok*

2. **Elene Etxaniz:** *Zauriak*

LH5-LH6

1. **Maialen Diaz:** *Nerabezaroa*

2. **Aitor Cortes:** *Euskara*

BERTSO-PAPERAK

LH5-LH6

1. **Maialen Diaz:** *Nerabezaroa*

2. **Aitor Cortes:** *Euskara*

DBH1-DBH2

1. **Marixe Ruiz de Austri:** *Hegazkineko bidaia*

2. **Nerea Madinabeitia:** *Nerabezaroa*

DBH3-DBH4

1. **Ane Zuazubiskar:** *Bertso berriak begiko ubeldurei jarriak...*

17 URTETIK GORAKOAK

2. **Maddi Labayen:** *Bidaia baten bueltan...*

irakasleek osatu dute. Poesian, berriz, antolatzaileek 15 lan jaso dituzte eta epaimahai lanetan aritu dira Arizmendiko irakasleak eta Oihan Zubizarreta. Amaitzeko, bertso-paperen modalitatean 28 lan aurkeztu dira eta epai-

mahaia osatu dute Unai Bergaretxe, Joxerra Agirreurreta eta Miren Arizmendiarrietak. Hala, Artolak ekitaldian jakinarazi zuenez, "aspaldiko partez" maila guztietara aurkeztu da gutxienez lan bat.

Gipuzkoako Historiaurrearen bilakaera azaltzen duen erakusketa Kulturaten

Hilaren 31era arte egongo da zabalik, arratsalde, 17:30etik 20:30era

J.B. | ARRASATE

Erakusketa interesgarria ireki zuten joan den egubakoitzean Kulturaten: *Historiaurrearen abentura Gipuzkoan* du izenburu eta Gipuzkoako Historiaurrearen bilakaera azaltzea du helburu. Hilaren 31era arte egongo da zabalik.

Bi atal ditu erakusketak: bate-tik, 1879. urtetik 1970eko hamarkadara arteko zatia dago, non lurraldeko lehenengo aurkikuntzak aipatu eta lan horietan parte hartu zutenak gogora ekartzen diren. Bestetik, 1970eko hamarkadatik gaur egunera bitarteko atala dago, non belaualdi berrien azken aurkikuntzak nabarmentzen diren.

Aspaldiko gure ikerlariei esker

Izan ere, azken mendeetako belau-naldi ezberdinek –Soraluce, Aranzadi, Barandiaran, Eguren, Altuna, Merino edota Apellanizek– gure iragana ikertzen eman dute bizitza eta, egindako lanari esker, gaur gure ondare kulturalaren parte ukaezina bihurtu direnak



Kulturateko klaustroan dago ikusgai erakusketa, hilaren 31era arte. | J.BEREZIARTUA

aurkitu eta ikertu dira; haitzu-loetako arte-kobak, trikuharriak eta burdin aroko herrixkak, tartean. Aztarna arkeologikoen bilaketa horrek, gainera, jarraipena dauka laborategietako ikerketetan eta *Munibe* bezalako publikazioetan. Ibilbide hori erakutsi gura du erakusketak.

Ekimen hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak susta-

tu du, San Telmo museoa, Aranzadi Zientzia elkarte, Ekainberri fundazioa eta Aia, Arrasate, Azkoitia, Beasain, Deba, Hondarribia, Oiartzun, Tolosa eta Zestoako udalen laguntzarekin.

Erakusketa Kulturateko klaustroan egongo da ikusgai, esandako moduan, hilaren 31era arte. Arratsalde bisitatuko ahalko da bakarrik, 17:30etik 20:30era.

David Fernandez | Coop 57 ekimeneko kidea

"Etorkizuneko eredu ekonomikoak gizartea izan beharko du ardatz"

J.B. | ARRASATE

Bagara herri ekimenak, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak eta Joxemi Zumalabe fundazioak elkarlanean antolatutako Kataluniako Coop 57 ekimenaren gaineko hitzaldia izan zen joan den egunean Kulturaten. David Fernandez komunikazio arduradunarekin egon ginen hitzaldia hasi aurretik; beste finantza eredu bat posible dela argi dauka.

Beste finantziario eredu baten sinesten duzula diozu. Zergatik?

Bost urte daramagu krisian eta finantza sistema dago krisi horren oinarrian. Krisitik irten-go garelada badakigu; galdera da, nola? Guk etika eta finantza kontzeptuak bateragarriak direla uste dugu eta etorkizuneko ekonomia eredu bakarra gizartearen ezaugarri eta berezitasunak ardatz dituen izango dela sinestuta gaude.

Helburu hori oinarri, nola egiten du lan Coop 57 ekimenak?

Ekimen txikia eta umila gara. 400 elkarte eta kooperatiba txiki osatzen dute Coop 57 eta



David Fernandez. | J.BEREZIARTUA

1.800 lagun daude zuzenean lanean. Arrasate kooperatibismoaren sehaska izanik, argi utzi gura dugu gure eredu beste testuinguru ekonomiko batean oinarritzen dela. Baina txikiagoak izan arren, praktikoki frogatu dela Katalunian ere beste eredu bat posible dela. Finean, gizartea aintzat hartzen duen proiektu kooperatiboaren aurrezkiak jaso eta erabateko helburu sozialak dituzten ekimenak finantzatzeko ditugu, hainbat arlo ezberdinetan.



Takolo biribilgunearen gainean, argazkian ikusten den lekuan, biribilgune txiki bat egitea da asmoa. | JOKIN BEREZIARTUA

Udalak Takolo gaineko bidegurutzua hobetzeko eskatu dio Aldundiari

Biribilgune txiki bat jartzea da asmoa, egungo bidegorriarekin lotuz; Udalak berriro jo du Diputaziora, azaroan egindako eskaerak erantzunik izan ez duelako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurreko legealditik Bedoñarako bidea eta GI-627 errepideen arteko bidegurutzua hobetzeko eskaera bidali zion Aldundiak Udalari. Udalak proiektua ontzat eman zuen iazko maiatzean baina lanak egiten hasteko eskaeraren aurrean ez du erantzunik jaso Aldundiaren Bide Azpiegiturako Departamenduaren aldetik. Azken Tokiko Gobernu batzarrean eskaera berretsi zuen Hirigintza batzordeak, GI-3554-Bedoñarako bidea eta GI-627 errepideen bidegurutzua hobetzeko. Asmoa da biribilgune

txiki bat jartzea, egungo bidegorriarekin lotuz. Bidegorrien harira, Hirigintzak beste eskaera bat egin du Diputazioan: herri barrutik igarotzen diren bidegorri zatiak "lehenbailehen" garatzea.

Beraz, Takolo gaineko bidegurutzua hobetzeko Aldundiaren zirriborroan biribilgune txiki bat egitea aurreikusten zen, Bedoñarako bidea, umezaintzara doan bidea, Arrasateko herri gunera doana eta Aretxabaletera doan errepidea lotuko lituzkeena. Proiektu hori ontzat eman zuen Tokiko Gobernu batzarrek iazko

maiatzean, eta Aldundiko Errepideetako zuzendaritzari proiektua "ahalik eta azkarren" garatzen hasteko eskatu zion.

Azalera irabazteko beharra

Egun gunea dagoen moduan egonda, ez dago biribilgunea egiteko azalera nahikorik. Omer Arregi Hirigintza zinegotziaren arabera, biribilgunea egiteko beharrezkoa den azalera hori irabazteko Fagor Arrasateren lur zati txiki bat hartu behar da eta lur zati hori errepidearen mailan jarri, erlaitz baten bidez.



JONE MARTINEZ

Kooperatiba ereduaz gain, alde zaharra ezagutzen

Joan den egubakoitzean amaitu zen Argentinako Sunchales herriko ordezkariaren bisita. Kooperatiben nazioarteko urtea dela eta etorri ziren eta gure kooperatiba ereduaz ezagutzeaz gain, Arrasateko alde zaharra ere bisitatu zuten Arrasate Zientzia elkarteak prestatu zieten bisitaren bitartez. Besteak beste, Harresi aretoa eta San Juan bataiatzailearen parrokia bisitatu zituzten. Argazkian, Ana Isabel Ugalde historialaria azalpenak ematen agertzen da Argentinatik bisitariari.

'Mendi Tour' jaialdiko film onenak bihar Amaia antzokian

Mendi eta abentura zinemarik onena izango da bihar Amaian, 20:30etik aurrera. Ascentium enpresak antolatzen duen jaialdi ezaguna, Udalaren eta Besaide elkartearen eskutik iritsiko da Arrasatera. Jaialdian sari-tuak izan diren filmak ikusi ahaliko dira: Hego Ameriketako goi basamortuetan kokatzen den *Solitaire* (55'), Pakistango zortzi milako bat neguan igotzea lortu zuen espedizioaren gaineko *Cold* film laburra (20') eta Dean Potter samurai hegalariaen lorpenak kontatzen dituen *Fly or die* (24'). Sarrera, bost euro-lau euro Besaideko bazkideendako-.

Sendabelarrak eta aromaterapia, Bedoña Baturen eskutik

Bedoña Batu elkarteak sendabelarren eta aromaterapiaren gaineko ikastaroa antolatu du maiatzaren 26rako. Itziar Salegi gaian aditua denak emango du hitzaldia, Bedoña auzoko eskola etxean, 09:30etik 13:30era. Hilaren 20a baino lehen eman behar da izena honako telefono honetara deituta: 688 88 79 02. Ikastaroaren prezioa da 20 eurokoa -auzotarrek 15 euro-.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, klase teoriko eta praktikoak egingo dituzte eta parte hartzaile bakoitzak xarabe bat eta krema eramango ditu etxera.

TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENA

Bidegorria errespetatzea eskatzen



Irakurle batek jakitera eman digunez, auto gidari askok ez dituzte errespetatzen herri barruan dauden hainbat bidegorri. Horren adibide moduan jarri digu Lidl supermerkatuaren aparkaleku ondoan dagoen bidegorria, goiko argazkian ikusten dena. Kontuan hartu behar da Udalak, Mugikortasun Planaren barruan, bidegorriei garrantzi handia eman gura diela.

Erregea eta bufoia nor baino nor gehiago egunean, gaztetxean

J.B. | ARRASATE

Joan den asteko geldialdiaren ostean Kooltur Ostegunak ekimena gogotsu dator bueltan. Izan ere, *Erregea eta bufoia* inprobisazioan oinarritutako antzezlan izango du eguen honetan gaztetxean (22:00). Sarrera bost euro, ohi moduan. Erregea bertsolaria da -ekitaldira arte ez da jakiten zein etorri behar den- bufoia Ander Lipus aktorea eta zalduna, berriz, gai jartzaile lanetan arituko den Unai Elizasu.



Ander Lipus aktorea. | GOIENA

Emanaldi guztiak ezberdinak Antzezlan horrek duen bereizgarri nagusia da emanaldi guz-

tiak ezberdinak direla. Inprobisazioan oinarritua denez erabat, erregeak zein bufoiak ez dakite saioa nola amaituko den. Ezta ikusleak ere, noski.

Argiterian aurrezteko neurriak hartuko ditu Udalak, energia gastua txikitzeko

Herri barruan, industrialdeetan eta auzoetan aplikatuko dituzte neurriak; energia kontsumoa %50 jaitea da Udaleko arduradunen helburua

EDU MENDIBIL | BERGARA

Argiztapen gastuak murrizteko helburuarekin Udalak hartuko dituen neurrien berri eman zuten eguenean prentsa aurrean. Leku bakoitzaren beharretara egokituko badira ere, herri barruan, industrialdeetan eta auzoetan jarriko dute plangintza martxan. %50 inguru aurrezte da helburua.

Udalak hainbat egokitzapen egingo ditu herri-argiterian datozen asteotan, behinik behin energia aurrezteko. Besteak beste, hainbat auzotan argiztapena murriztuko dute eta jenderik ez dabilenean argiteriaren potentzia %10 ingurura jaitsiko dute hainbat puntutan. Jesus Elortza alkateak azpimarratu zuenez, aurrezte bai, baina herria ilunetan ez gelditzea da helburua. Haren arabera, krisi ekonomikoak eta aurrekontuko murrizketek eragin dute neurriok hartzea.

Alkatearekin batera, *Piti Madariaga*, Bergarako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia, *Iñaki San Jose*, Obra eta Zerbitzuetako arduraduna eta *Juan Ramon Garitano*, argiteria alorreko arduraduna eta *Josu Martin* alkorta udal langilea azaldu ziren komunikabideen aurrean, hartuko dituzten neurrien berri emateko.

Udal aurrekontura egokitu

Energia aurreztearekin batera, kutsadura aluminioko jaitea da helburuetako bat eta udal arduradunek konfiantza azaldu zuten neurrien eraginkortasunagatik. Esan bezala, energia gastuak udal aurrekontura egokitzea da Udaleko arduradunen asmoa. Energia



Bergaran 3.031 farola daude gaur egun herrian banatuta.

gastuei dagokienez, iaz 250.00 euro ziren aurreikusita eta azkenean 281.000 eurora igo zen aurrekontua. Aurtengorako berriz 270.000 euroko partida bideratu du Ber-

garako Udalak. Hala ere, Garitanok azpimarratu zuenez, urtarrietik martxora bitartean 104.000 euro gastatu dira eta gastu hori geratzera datoz gaur aurkeztuta-

ko neurriak. Argiztapenak herri osoan duen presentziarekin leku, datu bat. Bergara, 3.031 farola daude gaur egun herrian banatuta.

OHARRAK

PAZKOETAKO HERRI

BAZKARIRAKO TXARTELAK

Herri bazkaria Pazkoetako astelehenean, hilaren 28an izango da. Txartelak 15 eurotan daude salgai daude hilaren 21era arte Depor, Ariznoa, Frontoiko tabernan eta Pikupeko bulegoan, Artekalean. 10 urtetik beherako umeendako tiketak, 10 eurotan.

JOSKINTZA IKASTAROA

OSINTXUN

Udalak, Osintxuko Herri Batzarra eta Bizikasik antolatuta, joskintza ikastaroa izango da Osintxun ekainean, hilaren 5ean hasita. Argibideak eta izen-ematea (10 euro) Osintxun, Euskalduna tabernan edo Txuringon, eta Bizikasin (943 76 93 94).

ONDASUN HIGIEZINEN

GAINEKO ZERGA

Udalak jakitera eman duenez, 2012ko ondasun higiezin gaineke zergaren erreziiboak ordaintzeko epea zabaldu dute. Borondatezko epea maiatzaren 15etik uztailaren 2ra dago zabalik. Ondoren, errekaraguz kobratuko da. Erreziiboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, ondorengo egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria. Agiri horrekin banketxetik edo udaletxetik pasa daiteke ordainketa egiteko. Halaber, agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez bada edo azalpenen baten beharra izanez gero, Kontuhartzailtzako bulegora jo daiteke. Argibideak 943 77 91 64 zenbakian.

SAN MARTZIALGO

TXOSNARAKO ESKAERAK

Uztailaren 1ean San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta txosnaren esplotazioa adjudikatuko ditu Udalak. Irabazi asmorik gabeko elkarteek eta talde herrikoiek maiatzaren 30era arte daukate eskaerak aurkezteko epea zabalik. Interesatuak udaletxean edo 943 77 91 00 telefono zenbakian jaso ditzakete argibide gehiago.

PARISERA SAN JOXEPE

ELKARTEAREKIN

Irailaren 17tik 22ra Parisera bidai iragarri du San Joxepe erretiratuen elkarteak. Plazak daude oraindik eta izen-emeta lehenbailehen egitea eskatu dute elkarte arduradunek. Argibideak Boni Laskuraineko egoitzan, ohiko ordutegian.

POL-POLEKO BATZARRA

HILAREN 23AN

Pol-Pol Mendizale Elkarteak ohi kanpoko batzarra deitu du maiatzaren 23rako. Elkartearen lokal berrian egingo dute, Udal Pilotalekuko lehen solairuan, lehen deialdian 18:30ean eta bigarrenetan 19:00etan. Parte hartzeko deia egin du zuzendaritzak.

Musika Eskolakoak, Katalunian

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko eta akordeoi taldekoak (35 ikasle eta 6 irakasle) Sant Celonin izan ziren aurreko asteburuan. Martxoan kataluniarrak izan ziren Bergaran eta oraingoan Musika Eskolakoak itzuli dute bisita. Harrera ezin hobea egin zieten eta bergararrek kontzertua eskaini zuten maiatzaren 5ean Sant Celoniko Areto Nagusian, hango abesbatza eta orkestrarekin batera. Asteburu ederra igaro zuten bergararrek.



MUSIKA ESKOLA

Iñigo Iñurategi | HUHEZI-Lankiko irakasle eta ikerlaria

"Arazoa ez da bilketa sistemarena, kontsumo kate guztiarena baizik"

- ▶ 'Transition Towns' mugimendua azaltzeko hitzaldia eman zuen egubakoitzean
- ▶ Uste du guztiondako onena eta arduratsuen dela atez ateko sistema

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udal Gobernuak eskatuta *Transition Towns* mugimenduaren gaineko hitzaldia eskaini zuen egubakoitzean Iñurategik.

Garapen eredu aldatu beharra dugula diozu. Aldatzera derrigortuta gaudela

Gure bizimodua epe luzera erabat jasan ezina den baliabideen kontsumo maila batean oinarrituta dago; Eta gainera energia fosil merkea eskuragai izatearen baldintzapean. Garai hori bukatzen ari da. Petrolio merkea, ikatz merkea, gas natural merkea... Bata bestearen atzetik amaitzen ari dira. Eta horrek egingo du ezinezko gaur egun daukagun bizimodua. Inork gutxi jartzen ditu zalantzan datu objektibo horiek. Nazioarteko Energiaren Agentziak, AEB zein Europako gobernu agentziek, eta gurean Eusko Jaurlaritzak "Euskadi 2020ko Garapen Jasangarrirako Estrategian" ematen digute krisi energetikoaren egoeraren berri.

Nola eragingo liguke horrek guri? Hasteko azpimarratu beharra dago EAEko subirautasun energetikoa %5 ingurukoa dela. Eta gainera petrolioarekiko daukagun dependentzia handiegia da. Ia denak behar dugu petrolioaren deribatuen bat: garraioa, elikagaiak, berotasuna, jantziak, edozein motatako gailuak, ... Petrolio eta petrolioaren energiari esker eraikitako bizimodua da gurea.

Energia berdeekin ez dago konponbiderik?

Momentu honetan oso urrutia gaude erregai fosilak energia berdeekin ordezkatzeko bermatzetik. Beraz, nahi edo nahi ez, gure bizimodu antolaketa intentsitate energetiko gutxiagoko parametro berrietara moldatu beharko dugu. Zenbat eta gehiago aurreratu teknologikoki, eta batez ere, zenbat eta gehiago murriztu gure energia eta materialen kontsumoa, orduan eta aldaketa errazagoa. Baina oso urrutia gaude hortik. Ez gaude prest. Eta ezin dugu denbora gehiago alferrik galdu. **Etorkizuna ilun samarra ikusten duzu zuk, orduan.**

Arduratzen nau etorkizunak, baina aldi berean ilusioz eta baikor nago. Alde batetik gure belaunaldiari tokatuko zaigulako erronka izugarri honi aurre egitea. Eta bestetik, bizimodu aldaketa, material behar gutxiago eta intentsitate energetiko gutxiago izango duen etorkizun bat ez delako bizimodu okerrago baten sinonimoa. Bizitza zoriontsuago bat asmatzeko aukera daukagu.

Non kokatzen da aldaketa behar horretan *Transition Towns*?



Iñigo Iñurategi, Lankiko ikerlaria. | ARRITXU BARRUSO

"Petrolioarekiko daukagun dependentzia handiegia da"

"Gai hau alderdien arteko lehiatik atera beharra dago. Garrantzitsua da"

Mugimendu hau 2006an Ingalaterran sortutakoa da, eta mundu guztian hedatzen ari da. Behetik gorako autoantolatutako mugimendu zibila da, eta hain zuzen ere energia fosil merkerik gabeko etorkizun horretara ahalik eta trantsizio ordenatuena, errazena eta eraikitzaileena egitea dute helburu. Horrelako hainbat ekimen interesgarri daude munduan, baina guri aspalditik deitu zigun atentzioa jende honek eta ia hasieratik gaude beraiekin elkarlanean, Bagara proiektuaren baitan.

Udal gobernuak atez ateko zabor bilketa sistema ipiniko du martxan, eta erabaki horren bueltan antolatu du zure hitzaldia. Zergatik?

Gu azkeneko bi urtetan ari gara han eta hemen era honetako hitzaldiak ematen, eta mundu mailan gertatzen ari denari buruz daukagun irakurketa konpartitzeko eskatu ziguten, zaborren inguruko eztabaida marko teoriko zabalago batean kokatzeko. Egungo errealitate mundiala krisi sistemiko gisa definitzen dugu. Horretan bat gatoz Ibarretzek egiten duen diagnostikoarekin. Berak pobrezia, aldaketa klimatikoa, elikadura krisia, krisi

energetikoa, finantza krisia eta krisi kulturala aipatzen ditu, nazioarteko erakundeen jarrera koordinatuaren gabezia batera. Otegik ere orain gutxi antzerako zerbait idatzi zuen Logroñoko kartzelatik. Eta bi politikari ezagun hauek aipatzen ditut azpimarratzeko gure txokoko eztabaida politikoen gainetik dagoelako arazo mundiala. Gai hau alderdien arteko lehiatik atera beharra dago. Garrantzitsuegia da. Ezin dugu zalantzan jarri ahalik eta azkarren iritsi beharko ginatkeenik zero zabor (edo ahalik eta gutxien) sortzera. Aberrazio bat da etorkizunean erabat baliagarri izango zaizkigun baliabideak hondakin artean galdu edo erretzea. Etikoki onartezina den luxu bat da. Etorkizuneko belaunaldien baliabideak xahutzen ari gara, eta hori lehenbailehen aldatu beharra dago.

Uste duzu atez ateko zabor bilketa sistema dela zaborraren arazoa konpontzeko egun dagoen bide hobereana?

Arazoa ez da bilketa sistemarena soilik, produktuen ekoizpen eta kontsumo kate guztiarena baizik. Nik ez dut interes berezirik atez ateko bilketa sistemarekin. Uste dut helburua garbia dela, eta horretan kontsentsu ahalik eta sendoena lortu behar dela: lehenbailehen zero zabor sortzea, eta ahalik eta ondoen aprobetxatzea baliabideak. Hortik aurrera, demostratzen bada bosgarren edukiontziaekin birziklai emaitza onenak lortzen direla horren alde egingo nuke. Kontua da momentu honetan alde handia dagoela atez atekoaren eta bosgarren edukiontzidun sistemaren emaitzen artean, eta beraz iruditzen zait guztiontzako onena eta arduratsuen dela atez ateko sistema.

'Euskaraz bizi nahi dut' lasterketa, irailaren 22an

A.B. | BERGARA

Beste ehun udalerrirekin batera, irailaren 22an, Bergarako herriak ozen esan nahi du, euskaraz bizi nahi duela. Horretarako, bat egingo du Kontseiluak abian ipini duen *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketarekin. "Kontseilua Bergarako Udalarekin eta Jardun elkartearekin harremanetan ipini da. Helburua da ehun udalerritan lasterketak antolatzea eta Bergara horietako bat izatea nahi dugu. Helburua da *Euskaraz bizi nahi dut* leloa aldarrikatzea", kontatu digu Jardun elkarte Nerea Mendizabalek.

Lehen batzarra martitzenean

Dinamika horrekin euskararen normalizaziori beharrezkoa duen bultzada herrikoia eman nahi dio Kontseiluak. Bergarak, esan moduan, bat egin nahi du ekimen horrekin, eta hori horrela, lasterketa antolatzeko lantaldea osatu nahi da. Horretarako lehenengo batzarra martitzenean egin zuten Irizar Jauregian. Euskagintzan diharduten hainbat pertsona, herri-

ko ikastetxeetako ordezkariak eta kirol munduko beste hainbat pertsona batu ziren. Lehenengo bilera izanda antolatzaileek azaldu dute oraindik gauza asko zehazteke daudela, baina gauza bat dute argi, lasterketa herrikoia izan behar dela: "Oraindik ez dakigu nola egingo dugun, baina asmoa da Korrika moduko lasterketa bat egitea. Modu horretan bakoitzak ahal duen luzerako lasterketa egingo du".

Modalitate desberdinak

Martitzenean egindako bileran erabakitako beste puntu izan zen kirol arloko modalitate desberdinak batzea lasterketan: "Hanka-labankako kideak bileran izan dira eta beraz, patinatzaileak ere etorriko dira lasterketara. Horrez gain skate gainean ere egingo dute batzuk lasterketa eta helburua da Lokatzarekin ere harremanetan ipintzea bizikletak ere batu daitezten".

Hurrengo bilera ere irekia izango da eta laster emango dute egunaren berri.

Sendabelarren inguruko tailerra egingo dute zapatuan Uberan

A.B. | BERGARA

Eguraldi ona egiten badu Ubera inguruko belarrak ezagutu eta sendabelarrak egiten ikasteko tailerra egingo dute zapatuan, maiatzak 19, Uberan. Itziar Egidazuk emango du ikastaroa. "Duela urtebete inguru Bergaran kaleratutako Erremeixuak DVDaren harira hainbat auzotarrek interesa azaldu zuten sendabelarren inguruan eta pentsatu genuen interesgarria

izan zitekeela ikastaro bat antolatzea", kontatu digu Gorka Buruaga auzo alkateak. Ikastaroan bertan unguentuek egingo dituzte golpeendako edo ximurrendako. Horrez gain, jarabeak ere egingo dituzte.

Ikastaroa Jaolatzela elkartearen izango da 10:00etatik 14:00etara. Interesa duenak 943 76 04 23 zenbakira deitu behar du. Ikastaroaren prezioa 15 euro dira eta 10 euro erretiratuendako.

Ekainaren 25etik uztailaren 7ra egingo diren Udaleku Musikaletan izena emateko epea zabalik

Musikarekin gozatzea eta sormena eta sentsibiltate musikala garatzea da Bergarako musika eskolak antolatzen dituen Udaleku Musikalen helburua. Ekainaren 25etik uztailaren 7ra egingo dira eta 5 eta 13 urte bitarteko umei dago zuzendua. Musika Eskolako ikasleek 105 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzeko haurrek 115 euro. Bergarako musika eskolan eman behar da izena 15:30etik 19:30era. Informazio gehiago nahi izanez gero 943 76 57 80 telefono zenbakira deitu behar da.

Egubakoitzak Kartzelan zikloaren hurrengo kontzertuan, Jon Gurrutxaga eta Giranice

Jon Gurrutxagak blues eta rock erritmoak odolean daramatza. Arima Beltzaren ostean Jon & Sugramas taldearekin aritu ondoren, bakarlari moduan etorriko da Bergarako kartzela zaharretara. Giranice, bestetik, talde berezia dugu. Kanta berean erritmo eta matiz aldaketa bortitz zein leunak uztartzen dituzte melodia batek gidatuta. Ohikoa izan ez arren, formatu akustikoan arituko dira. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira eta 3 euro ordaindu behar da sarrera. Txapa Irratiak ere eskainiko du kontzertua.



Jose Antonio Urteaga, Bidebarrietan duten lokalean. | MIREIA BIKUÑA

Ekainean abiatuko dira Argentinara edukiontzia

Debekuaren ostean, dohaintzako inportazioak baimendu dituzte

USOA AGIRRE | OÑATI

Otsailean arduratuta zeuden Oñatiko Hermansoloña GKEko kideak Argentinara bidali beharreko edukiontzia arriskuan zeudela-eta. Argentinako gobernuak kanpoko inportazioak debekatzeko lege bat jarri zuen martxan eta horrekin gobernu kanpoko erakunde inportazioak ere gelditu egin ziren. Hori horrela, otsailetik hona ez dute materialik jaso Hermansoloñako kideek, ez baitzekiten zer egin jasotako material guztiarekin Aste honetan, baina, albiste ona jaso dute Oñatiko GKEko kideek: Argentinako gobernuak iritziz aldatu eta legean aldaketa bat egin du. Ondorioz, dohaintzara bideratuta dauden inportazioak baimenduko dituzte.

Hala, ekaina bukaeran bidaltzeko asmoa dute aurtengo bigarren edukiontzia. Jose Antonio Urteaga Hermansoloña GKEko kideak esan digunez, "orain bigarren edukiontzia horretako materiala etiketatzen" ari dira eta "edukiontzia Argentinara bidaltzeko baimen guztiak lortzerako ekaina bukaera izango da". Urtean hiru edukiontzia bidaltzen dituzte normalean eta hirugarrena azaroa aldean bidaltzeko asmoa dute.

Materiala jasotzen

Argentinatik berri onak jaso ostean, berriz ere ireki dute Bidebarrietako 26. zenbakiaren aurrean (elkartearen lokalaren ondoan) duten edukiontzia eta GKEko kideek dei egin diete oñatiarrei

orain arte moduan produktuak bertan lagatzen segi dezaten. Batez ere arropak eta oinetakoak jasotzen dituzte, baina ekaineko edukiontzian adibidez, bestelako produktuak ere bidaliko dituzte: liburuak, botikak, jolasak, ume txikiendako sehaska eta karroak...

Hermansoloña GKEk 10 urte bete zituen 2011ko urrian. Hasiararik Argentinara bidaltzeko materiala bildu dute. Dagoeneko 31 edukiontzia bidali dituzte eta beharra badagoela diote: "Argentina hazi egin da ekonomikoki eta indarra hartu du. Baina, era berean, pobrezia handia dauka; batez ere, Buenos Aires inguruan eta kanpoaldeko probintzietan: Jujuy, Chaco, Misiones, Salta... eta komunitate indigenetan".

Erretiratuen elkarteko batzordea berritu dute

Aurtengo aurrekontuak onartzeaz gain, egingo dituzten zenbait ekintza ere zehaztu dituzte

U.A. | OÑATI

Asteon egin dute erretiratuen elkarteko urteko batzarra Pake-Lekun. 2012rako aurrekontuak onartu eta zuzendaritza batzordeko kide berriak izendatu dituzte. Javier Arriaranek presidente karguan jarraituko du, baina gainontzeko kideak berriak dira: Javier Galartza, Rafael Agirre, Arantxa Urtzelai, Manuel Castillo, Javier Arregi, Juan Luis Arabaolaza eta Manuel Gonzalez.

Bidaiek eta ikastaroak

Arrakasta handiena bidaiek izaten dute eta aurtun ere egingo dituzte: maiatzean Mediterraneoetik itsas-bidaia, uztailean Asturiasera eta irailean Kataluniara. Hondarribia eta Baztanera ere joango dira. Ikastaroak ere antolatuko dituzte.

Ekainean egingo duten erretiratuen astean Luis Guridi neurologo oñatiarraren hitzaldia antolatu dute; alzheimerrean gainean jardungo du.

Eskolako ortua sortu dute Zuazola-Larraña institutuan

Eskolako Baratza proiektuaren barruan jarri dute ortua ikastetxeko terrazan

U.A. | OÑATI

Dagoeneko landatu dituzte Zuazola-Larraña institutuan Eskola Baratza Proiektuko lehenengo haziak. Ikastetxe bertako terrazan loreontziak jarri dituzte eta bertan landatu dituzte barazki eta loreak. Irakasle eta ikasleak ari dira parte hartzen proiektuan. Zuazola-Larraña ikastetxeak eta Debagoieneko Landa Garapeneko elkartearen elkarlanari esker jarri da proiektua martxan eta bertan parte hartzen ari diren ikasle eta

irakasleak ZIG (Zeregin Ikasketak Gela) gelakoak dira.

Kontsumo ohiturak

Ikastetxeko arduradunen arabera, ikasleekin ortua lantzeko metodologia berriak ezagutu eta gaur egungo hezkuntza gaitasunak lortzeko aukerak eskaintzen ditu.

Eskola agenda 21 barruan martxan jarri dute proiektua eta kontsumo-ohitura eta elikadura jasagarri eta iraunkorra jorratu nahi dituzte.



Zenbait ikasle Zuazolako ortuan lanean. | ZUAZOLA-LARRAÑA IKASTETXEA

OHARRAK

1981EKO KINTOAK

Maiatzaren 26an egingo dute 1981eko kintoak, 1961eko irailaren 1etik 1962ko abendura arte jaiotakoak. 19:30ean hildako kintoen aldeko meza Agustinoetan, 20:30ean poteo hasiko da Izarraitz tabernan eta 21:30ean afaria Etxe Aundin. Izena emateko: iturraran@euskalnet.net, akelena@euskalnet.net, 665 72 37 09 edo 645 73 24 12.

1985EAN JAIOTAKOAK

Ekainaren 2an egingo dute ospakizuna 1985ean jaiotakoak. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira maiatzaren 15a baino lehen, kontu honetan: 3035 0005 38 0050048876 (Euskadiko Kutxa).

254 poltsikoko telefono batu ditu Ulma Fundazioak

Otsailaren 27an ULMA Fundazioak poltsikoko telefonoak emateko kanpaina jarri zuen abian bere bazkide eta langile guztientzat. Gurutze Gorriak eta Alboanek bultzatutako kanpaina lagunduz eta *Baietz 200 telefono lortu 2 hilabeteetan?* leloaren bidez ekimenaren helburua zen bazkideak eta langileak elkartasun proiektuak babesteko kanpaina berri batean inplikatzeko. Ulma Fundazioak arrakastatsutzat jo du kanpaina. Izan ere, 200 telefono batzea zen helburua eta 254 jaso dituzte. Ingurumen, hezkuntza eta garapen proiektuetara bideratutako fondoak lortzeko erabiliko dira.

Zapatua, mineralen jolasean parte hartzeko azken eguna

Mineralak hobeto ezagutzeko erakusketa-jolasa antolatu dute Arrikruz-Oñatiko kobak eta Txanda merkatarien elkarteak. Txandako dendetan, Arrikruz eta Turismo Bulegoan kartoi batzuk egongo dira eskura, eta kartoi hori beteta entregatu behar da hilaren 19a aurretik Turismo Bulegoan edo Arrikruzten. Kartoi bat beteta entregatzen dutenek lepotik zintzilik eramateko harri txiki bat izango dute opari, eta, horrez gain, amatista geoda baten eta Txanda elkarteko hamar opariren zozketan hartuko dute parte; maiatzaren 10ean egingo da zozketa, Arrikruzten.

Lorezaintza eta baratza ekologikoari buruzko tailerrak egingo dituzte datozen egunotan Elkar Hezi ikastetxean

Elkar Hezi ikastetxean maiatzeko zenbait ekintza antolatu dituzte. Maiatzaren 17an, eguna, Torrealdeko basoaren gaineko prentsaurrekoa eta bertan egindako artelanen aurkezpena egingo dute. Maiatzaren 18an, egubakoitza, DBH1eko ikasleek baratza ekologikoei buruzko tailer teoriko eta praktikoa egingo dute. Natura kontuekin jarraituz, helduendako lorezaintza tailerra egingo dute maiatzaren 22an, 18:00etan.

ESKORIATZA

Iñaki Uribe-Etxebarria | Gabez Takarraren lasterketaren antolatzailea

"Gabez mendian korrika egiteak alderik basatiena ateratzen du"

- ▶ Gabez Takarraren lasterketaren bigarren edizioa prestatzen dabilta
- ▶ Atxorrotzera bizkorren iristen denak sari berezia izango du aurtan

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Ekainaren 9an ospatuko da Gabez Takarraren lasterketaren bigarren edizioa. Prestaketa lanetan dabilen Iñaki Uribe-Etxebarria antolatzailearekin izan gara.

Zer moduz zabiltzate antolaketa lanekin?

Azken txanpan murgilduta gaude. Astero-astero elkartzen gara hamar lagun inguruko talde txo bat eta gutxi gorabehera guztia daukagu bideratuta. Hemendik aurrerako lana izango da herri-tar eta ingurukoei lasterketa egongo dela jakinaraztea eta animatzea ahalik eta jende gehienak parte hartzeko.

Lasterketa gauzez izatea da bereizgarri nagusia. Zergatik gauzez?

Mendi lasterketen egutegia ikusiz gero, martxotik azarora bitartean astebururo lasterketa bat baino gehiago egoten dira eta jendea erakartzeko zerbait espeziala egin behar da; gure bereiztasuna da gabez egitea. Gainera, gabez mendian ibiltzeak edo korrika egiteak gure alderik basatiena ateratzen du eta sentsazioak eta

emozioak askoz gogorragoak dira.

Aurtan gainera, Atxorrotzera azkarren igotzen denak saria jasoko du, ezta?

Bai. Korrikalariak plazatik zuzenean igoko dira Atxorrotzera; iaz kontrako noranzkoan egin zuten, baina aurtan beste apustu bat egin nahian, Atxorrotzeko errekorra deitu dioguna sortu dugu. Hau da, plazatik hasi eta Atxorrotzerainoko bide hori kronometratu egingo zaie korrikalari guztiei eta denbora gutxien egiten duenarendako sari berezi bat egongo da. Itxura denez, aitzina Eskoriatzan apustuak egiten ziren eta geuk ere hori bultzatu nahi izan dugu. Gainera, hurrengo egunetan hasi eta lasterketa egunera arte tabernetan apustuak egiteko aukera egongo da. Euro baten truke denbora bat emango da eta denbora asmatzen duenak edo gehien hurbiltzen denak sari bat eramango du.

Nolako harrera espero duzue?

Aurreko urtekoa baino harrera hobe espero dugu. Webgune bat

ere martxan daukagu www.eskoriatzagabektakarraren.com eta bertan eman daiteke izena. Irakurleei esan nahi diet animatzeko, hemen inguruan ez dagoelako horrelako beste lasterketarik eta parte hartzeko.



Uribe-Etxebarria antolatzailea. | A.T.



Gabez Takarraren lasterketaren aurkezpeneko irudi bat. | A.T.

Goi mailako kirolariak aurkezpenean

Egubakoitzean aurkeztu zuten Gabez Takarraren lasterketaren bigarren edizioa eta bertan izan ziren, besteak beste, kirolari hauek: Oihana Kortazar, Haritz Kortabarria, Josune Bereziartu eta Rikar Otegi. Argazkian Iñaki Uribe-Etxebarria antolatzailea ere azaltzen da aurtengo kartela eskuetan duela.

Herritar dezente izan diren Ibarraundi museoan egindako aurkezpenen ekitaldian.

ARETXABALETA



BASABEAZPI

Basabeazpikoak Porrotxekin

Joan zen astean Basabeazpi guneko bost urteko neska-mutikoak irteera egin zuten Zerainera. Irrien lagunentzako izan ziren eta hainbat lagun bisitatu zituzten: Tiritatxo pediatra, Largabista basozaina, Marikalanbre zientzialaria... eta nola ez, euren lagun Porrotx pailaoa.

Basotxoko erretiratuak alkatearekin elkartuko dira bihar, martitzena

A.T. | ARETXABALETA

2011ko apirilean, hauteskunde kanpainaren aurretik, Basotxokoek adinekoekin erlazioatutako gaien berri emateko gonbidapena egin zieten herriko alderdikideei. Orain, urtebete pasata, adinekoen ardurei Bilduk emandako erantzunak nolakoak diren jakin nahi dute eta bihar, mar-

titzena, Basotxon izango da Ana Bolinaga alkatea 17:00ean.

Gaur egun eurekin erlazioatutako gaiak nola dauden jakin nahi dute erretiratuak; joan zen urtean esandako zein gauza egin diren, zer daukaten momentu hauetan eskuartean, zeintzuk diren etorkizuneko planak eta aldaketarik etorriko diren.



EUSKALTEGIA

Olatz Zubizarreta irabazlea

Irakurketa astearren barruan, *Atxabaltan be leidu* izeneko ekimena jarri zuten martxan. 21 lagunek hartu zuten parte eta irabazlea Olatz Zubizarreta izan da. Rick Riordan idazlearen *Piramide gorria* liburua gomendatu zuen Zubizarretak eta berak lortu du saria; Elkarren gastatzeko 60 euroko bonoa. Argazkian bera ageri da liburua eta bonoa eskuetan dituela.

Udalak zaharren egoitza erosi berri du

A.T. | ESKORIATZA

Eskoriatzako zaharren egoitzak 390.000 eurotik gorako zorra zuela jakitera eman zuten 2010. urtean. Hasieran ekarpen ekonomiko boluntarioekin 82.000 euro batu zituzten, eta gero, Foru Aldundiak aurrez geldiarazitako diru kopurua ehuneko ehuneko berreskuratu zuten. Bestalde, orain Udalak zaharren egoitza erosi du 170.000 euro ordainduta. Horretarako, 150.000 euroko mailegua eskatu du eta lortu egin du. Hori dela-eta, sarre-irteera kontua orekatzea lortu dutela eta erresidentzia ekonomikoki bideragarria izango dela azaldu dute Egoitzako Patronatuak bidalitako prentsa oharrean.

Jose Arana Fundazioa

Kudeaketa ekonomikoaz gain, beharrezkoak izan dira beste zenbait tramite egitea eta horretarako Udal teknikarien, hainbat abokatuen eta notarioen laguntza behar izan dute. Hori esker, Jose Arana Fundazioa sortu da eta aurrerantzean izen hori hartuko du zaharren egoitzak.

OHARRAK

ESKORIATZA

PATINAJE IKASTAROA

Haur eta helduendako bi patinaje ikastaro antolatu dira. Parte hartzeko, egubakoitza baino lehen eman beharko da izena kultura etxean.

BERTSO JAIALDIA

Almeneko eta Luis Ezeizako ikasleek bertso jaialdia eskainiko dute eguenean 17:00ean kiroldegian, *Gu ere bertsoan* programaren barruan.

ARETXABALETA

LIBURU BANAKETA

Izena emanda zeukatenean Arkupen jaso dezakete 25 euroren truke *Isas Isasmendi* abizenari buruzko liburua.

ARETXABALETA

Udarako egonaldietarako eman daiteke izena

Hauek izango dira udako egonaldietarako izena emateko epeak: uztaileko egonaldietarako hilaren 18a izango da azken eguna, abuztuko egonaldietarako hilaren 31 eta iraileko egonaldietarako, berriz, ekainaren 15a izango da azken eguna. Plazak mugatuak dira.



Iñigo Carretero, Jon Errasti, Aitor Zabala, Maitane Unamuno, Ainara Inunziaga eta Jone Arriolabengoa. | 'HERRIRA' EKIMENA

ARAMAIO

"Goazen plazara, denon artean lortuko dugu-eta aulki huts guztiak betetzea"

Hainbat ekintza antolatu dituzte zaturako, herriko elkarten laguntzaz: tartean, Orixol elkartea, Gazte Asanblada eta Trikitixa zein dantza eskolak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

"Aramaiorrei parte hartzeko deialdia luzatzen diegu, denon ekarpenen bidez eramango dugu -eta aurrera *Herrira* ekimena, eta denon artean lortuko dugu Euskal Herriko aulki huts guztiak betetzea". Aramaioko *Herrira*-ko arduradunen hitzak dira Euskal Herri osoan zaturako deitutako *Goazen plazara!* ekimenaren harira.

Izan ere, Aramaioko *Herrira*-ren helburu nagusia da "aramaior guztion indarrak batzea": "Giza eskubideen ikuspegitik, erabat onartezinak diren neurriak aplikatzen zaizkie euskal presoei, hala nola, dispersioa, bizi arteko kartzela zigorra, gaixorik direnak preso mantentzea, isolamendua eta bakartzea. Gure helburua honekin guztiarekin behin betiko amaitzea da", diote.

Aramaioko taldea martxoan aurkeztu zuten eta orain arte herriarrek "oso ondo" erantzun dutela diote arduradunek: "Ekarpen pila bat jaso ditugu eta horietako asko oso interesgarriak. Oso pozik gaude parte hartzearekin".

PLAZAN EGINGO DIREN EKINTZAK

HILAK 19, ZAPATUA

10:00 Plazatik korrika, bizikletaz edo patinetan ibilbide motz bat egitea.

11:00 Jolasak eta eskulanak.

12:00 Dantza eta trikitilariak.

13:00 Kontzentrazioa.

'Kanto', geratzen den bakarra

Herrira ekimenek Luis Mari Azkargorta *Kanto*-ren egoera salatu gura izan dute bereziki. Apirilean, esaterako, preso aramaiarra askatzea eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuten Udalean. Aramaioko euskal preso bakarra da egun eta espetxean 24 urte daramatza. Orain Zuerako (Zaragoza) espetxean dago eta joan den hilean aurkeztutako ezarri zioten Parot doktrinaren aurrean babes helegitea onartu ez diotenez, printzipioz 2018ra arte egon beharko du espetxean.

Bestalde, zaturako egitaraua herriko elkarte eta eragile ezberdinen laguntzaz prestatu dute. Hala, Orixol mendizale elkarteak, Gazte Asanblada eta trikitixa zein dantza eskola inplikatu dira, besteak beste, hilaren 19rako ekintzak prestatzeko.

Hitzaldia eguaztenean

Erretiratuen elkarteak antolatuta, eguaztenean, hilaren 16an, hitzaldia izango dute elkarteak, 17:00etan. *Hitzaren artea. Eragin-kortasunez komunikatzea*, da hitzaldiaren izena. Bertan, komunikazioa errazteko teknikak izango dira berbagai, besteak beste.

Bestalde, odola ematera joateko dei egin dute Antzuolako odol emaleek. Odola ematera joateko hitzordua hilaren 17an, eguenean, duzue, beti bezala, 17:30ean, Orlaranen. "Jendea odola ematera animatu nahi dugu, behar beharrezkoa da-eta biziak salbatzeko", esan digute elkartetik.

ELGETA

Maiatzera bitartean 684 lagun erakarri ditu Intxortako ibilbideak

Azken bisitetan gainditu egin da 30 laguneko muga; irteerak domekero egitea erabaki dute

LARRITZ ZEBERIO | ELGETA

1936ko gerraren inguruan Elgetan egiten diren bisita gidatuak oso harrera ona izaten ari dira. Intxortako frontea jausi zeneko 75. urteurrena dela-eta domekero egin dira gidatutako irteerak apirilean, eta, bisitak ohiko maiztasunera itzuli diren honetan, antolatzaileek ekimena domekero egiteko aukera badagoela ikusi dute orain. "Azkeneko hiru bisita gidatuetan 40 lagun inguru elkartu dira; jarrita genuen 30 laguneko mugatik gora, beraz", adierazi du bisita gidatuok egiten dituen Iraitz Lazkano elgetarrak. Maiatzean, ekainean eta uztaillean, beraz, domekero egingo dira bisitak.

Urtarrila ezker 684 bisitari

Urtarriletik maiatzaren 6ko bisita gidatura bitartean 684 lagun erakarri ditu Elgetara Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroak. Profil askotariko lagunak etorri dira Intxortako gerra-gunea ezagutzera: ikasleak, familiak, norbanakoak...

Interesatuak jakin behar dute beharrezkoa dela aurrez izena ematea 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 telefono zenbakira deituta edo *turismo@debagoiena.net* helbide elektronikora idatzita. Taldeandako bisita gidatuak ere antolatzen dituzte -gutxienez, 12 lagun-. Kasu horietan, eguna norberak jar dezake.



Iraitz Lazkano, Asentzion, bisita gidatua egiten. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Ur depositua laster egongo da erabilgarri

Hilabete pare batean guztiz bukatuta izango dira lanak eta erabiltzeko moduan depositua

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagaingo ur depositu berriaren azpiegitura lanak eginda daude eta joan den astean sinatu zuen hitzarmena Udalak Etorlurrekin haren jabetza hartzeko. Hala, jakinarazi du Eugenio Otsoa alkateak: "Depositua gertu dago eta ura Gatzagain inguruan dagoela esan genezake". Hala, hodiaria sare guztia bukatuta dago, hau da, herriko depositutik Gatzagainerainokoa eta ur zikinak jasotzen dituen sarea. Hala ere, depositua oraindik ez dago erabiltzeko moduan, eta oraindik hilabete pare bat beharko dituztela egokitzeko jakinarazi du Asier Ugarte Hiritzinta zinegotziak.

Gaztainuzketako mendi etxeek jasoko dute bertako ura eta asmoa da Goierrri auzoko baserrietaraino ere eramatea.

Baina Udal ordezkariak ez dakite noiz izango den hori, hodiak sartzeko lanak egin beharko direlako aurretik: "Aurtengo aurrekontuan ezin izan genuen sartu horretarako partidarik. Baina urte erdi ingurutik aurrera hausnarketatxo bat egin beharko dugu eta nondik atera dirua erabaki. Hori bai, Udal aurrekontu oso estua dugu eta ondo pentsatu behar da", adierazi zuen alkateak.

Arlabango plana geld

Ur deposituak Arlaban gaineko plan bereziari ere eragiten dio, eta plan hori eginda eta onartuta dagoela esan du Otsoak. Hala ere, ez dutela presarik horri heltzeko jakinarazi zuen eta aurretik horren gaineko hausnarketatxo abiarazi gura dutela.

ANTZUOLA

Udalekuetan parte hartzeko 131 umek eman dute izena aurten

Uztailaren 2tik 12ra bitartean egingo dira aurtengo udalekuak, goizetan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Maiatzean egindako osokoan, udalekuak antolatzeko Udalararen eta Idolaz elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko proposamena onartu zuten. Aurtengo udalekuak uztailaren 2tik 12ra bitartean egingo dira; goizetan izango dira, 09:30etik 13:00etara bitartean. Guztira, 17 begirale

izango dira, eta koordinatzaile bat. Izena emandako umeak, aldiz, 131 izan dira. 5 urteko umeen gelatik hasi eta 6. mailarainoko umeak izango dira udalekuekin gozatuko dutenak; hau da, 6 urte-tik 11 urtera artekoak.

Izena eman duten umeen kopuruak gora egin du, eta arduradunak pozik azaldu dira.

MUNDUMIRA MATERIALAREN IRABAZLEAK



Mundumirako kamisetak

- Guadalupe Oteiza Iso (Arrasate)
- Izar Ijurra Goñi (Arrasate)
- Eukene Mondragon Arregi (Arrasate)
- Juan Miguel Pagaldai Zilaurren (Eskoriatza)
- Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)
- Marijo Erostarbe Garitano (Oñati)

Euskal Herria aldizkarian harpidetzak

- Asier Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Maite Arana Osinaga (Arrasate)
- Axun Otoa Ugalde (Arrasate)

Liburu sorta

- Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)
- Jose Angel Oianguren Arana (Aretxabaleta)
- Mireia Axpe Oianguren (Aretxabaleta)
- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
- Idoia Bengoa Lazkano (Bergara)



SARI NAGUSIA



SPA ZIRKUITUA ETA ASTEBURUKO MENUA

Debako AISIA hotolean, SPA zirkuitua eta asteburuko menua hoteleko jatetxean.

Bidali
KLUBA AISIA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



aisiahoteles.com • deba@aisiahoteles.com
943 60 80 52

ANTZERKIRAKO SARRERAK

Txalo taldearen HIL ARTE BIZI antzezlanerako sarrerak.

Arrasateko Amaia antzokian,
maiatzaren 27an, 19.30ean.

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Parte
hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Atera etekina

goienakluba 2012

%10 eko deskontua



- %10eko deskontua 20 eurotik gorako erosketetan.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL



AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03



AVIA MECAS
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39



BEGIENDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21



EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78




ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41



GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55



GUZTIZ
EDER
edertze zentroa
Oñati, 943 78 01 46.



IKER
SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48



IZENADUBA BASOA
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61



LASTAI
hautzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71



MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75



NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta, 943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA



Bolitas anaiak taldeko Izaro Rubio eta Michel Kuadrado helmugara iristen. | MIREIA BIKUÑA

ATLETISMOA

Izaro Rubio eta Michel Kuadrado irabazle Berdintxiketan lasterketan

Emakumeak kirola egitera animatzea da probaren helburu nagusia

IRATI GOITIA | OÑATI

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak antolatutako Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko II. Lasterketa Misto egin zuten egubakoitz arratsaldean Oñatin.

Berdintasuna helburu

Bikote mistoetan egiten den lasterketa da, izan ere, helburua berdintasuna sustatzea da. "Emakumeak kirola egitera animatu nahi ditugu. Izan ere, normalean, horrelako lasterketetan mutil gehiagok hartzen dute parte eta ea euren neskek animatzen dituzten. Hala ere, jakinean gaude emakume askok hartu nahi zuten parte proban eta mutil bila

ibilbi direla" adierazi digu Eunate Elio antolakuntzako kideak.

Guztira, 43 bikote animatu ziren korrika egitera. Hala ere, badago banaka parte hartzeko aukera ere; eta hala, 90 lagun izan ziren orotara.

Garrantzitsuena parte-hartzea

Bost kilometroko ibilbidea egiten lehenak Ordiziatik etorritako Izaro Rubio eta Michel Kuadrado izan ziren; 19:54ko denbora egin zuten. 19 segundora sartu ziren Naiara Casi eta Iban Estebez bigarrenak. Atzean zituzten David Gomez eta Nerea Arregi hirugarrenak.

Garrantzitsuena, baina, parte-hartzea da eta hori saritu nahi

izan zuen antolakuntzak; helmugara azkenengo iritsi zirenek ere saria jaso zuten.

Eliok amaieran adierazi zigun: "Oso giro polita izan da, plazan jende asko egon da korrikalariak animatzen. Bestalde, antolakuntza aldetik ez dugu arazorik izan. Oso pozik gaude".



DATUA

90

KORRIKALARI

43 bikote mistok hartu zuten parte lasterketan, baina izan zen banaka korritu zuen ere.

LASTERKETAKO SAILKAPENA

1. Izaro Rubio eta Michel Kuadrado
2. Naiara Casi eta Iban Estebez
3. David Gomez eta Nerea Arregi
4. Unai Pedrosa eta Olatz Arzubialde
5. Maialen San Sebastian eta Xabat Ibarbia
6. Amaia Bernal eta Asier Olasagasti
7. Egoitz Asurabarrena

IZARO RUBIO ETA MICHEL KUADRADO | KORRIKALARIAK

"Denbora ona egin dugu; Michelek iaz hobe egin zuen arren"

Bolitas anaiak taldeko bikote ordiziarra izan zen nagusi Enpresagintza Fakultateak antolatutako proban.

Ordiziatik Oñatira korrika egitera, nolatan?

I.R.: Michelek ezagutzen zuen lasterketa, izan ere, iaz beste neska batekin parte-hartu zuen. Aurten hark ezin zuen etorri eta niri galdetu zidan ea animatuko nintzen; baietz erantzun nion.

Nolako lasterketa iruditu zaizue?

I.R.: Polita izan da, jende asko zegoen lasterketa ikusten eta horrek animatu egiten zaitu korrika egiterako orduan. Agian, parte-hartzaile gutxi egon da.

M.K.: Nik errepikatuko dut, laguna izanez gero.

Hasieratik ekin diozue gogor?

I.R.: Hiru bikote irten gara batera, baina batek hartu du aurrea. Lehenengo kilometroan jada paso eman digute eta gu jarri gara lehenengo; zazpigarrenarako atzean utzi ditugu. Nire iritziz, nahiko denbora ona egin dugu; nahiz eta, Michel iaz bikote hobeagoarekin etorri zen eta denbora hobe egin zuten. Garaipena errepikatzen du.



Izaro Rubio eta Michel Kuadrado. | MIREIA BIKUÑA

Lasterketetan ibiltzen zarete?

I.R.: *Bolitas anaiak* izeneko taldea dugu eta entrenatzen ibiltzen gara, oso giro polita daukagu. Hainbat lasterketara ere animatzen gara. Sarri zaila izaten da kirola, lana eta umeak uztartzea, baina beti ateratzen dugu korrika egiteko denbora.



Proban parte hartu zuten bi bikote, plazan. | MIREIA BIKUÑA

KROSA

David Gartzia eta Marisol Ramos oñatiarra azkarrenak Ojala Zelaiko krosaren 34. edizioan

Aste barruan ez bezala, korrikalariak eguraldiaren laguntza izan zuten lasterketaren 8.410 metroak burutzeko

ANDER MONEDERO | ARETXABAETA

Azken urteetan bezala, Ojala Zelaiko krosak korrikalarien artean erantzun zabala izan du. Gainera, herri krosa izanda, normalean horrelako frogetan parte hartzen ez duten asko parte hartzerantz animatzen dira.

Goizeko 11:00etan hasi zuten senior mailakoek froga eta ibilbideak dituen 8.410 metroak egiten azkarrena David Gartzia durangarra izan zen. Lasterketa, baina, lasai hasi zen, eta nahiz eta Ojala Zelaitik Urkulura bidean taldeak sortu, taldeen artean ez zen alde handirik izan. Behin Urkulura heldu ostean, sailkapeneko lehenengo bost korrikalarien taldeak alde atera zien beste partaideei. Talde horren barruan zeuden David Gartzia, Sergio Gartzia, Walid Qualid, Yera Varela eta Gaizka Romero korrikalariak.

Lasterketak aurrera egin ahal, Yera Varela eta Gaizka Romero atzean geratu ziren, eta David Gartzia durangarrak eraso egin eta bakarrik egin zituen Urkuluko azken metroak. Gero, Urkulutik Ojala Zelairako aldapan, lasterketan bigarren eta hiruga-



David Gartzia Ojala Zelaiko helmugan azkarrena izan zen. | JOSETXO ARANTZABAL

ren zihozten Sergio Gartzia oñatiarra eta Walid Qualidek estutu, eta durangarrari segundo batzuk kentzea lortu zuten, baina bikoteak egindako ahalegina ez zen nahikoa izan David Gartzia harrapatzeko. Durangarrak 26 minutu eta 7 segundo behar izan zituen Ojala Zelaiko krosak dituen 8 kilometro eta 410 metroak egiteko. Sergio Gartziak, txapeldu-nak baino bost segundo gehiago behar izan zituen eta Qualidek durangarra baino 12 segundo beranduago heldu zen. Iazko kro-seko irabazleak, Yera Varela, laugarren postuan bukatu zuen lasterketa.

Emakumezkoetan, berriz, Marisol Ramos izan zen azkarrena (32.54). Azken urteetan bezala, korrikalari oñatiarrak ez zuen areriorik izan, eta lasterketa lasaitasunez hartu zuela adierazi zigun. Emakumezko lasterketako azkarrenak, konpainia onean egin zuen krosa, izan ere, bere semearekin batera egin zuen lasterketa. Bigarren postuan, eta ia hiru minutuko aldearekin, Mari Fran Alonso helmugaratu zen, eta hirugarrena, Idoia Velez de Mendizabal izan zen.

Gaztetxoak ere, korrika

Seniorren froga hasi aurretik, Aretxabaletako gaztetxoek lasterketa egin zuten. Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako gazteek froga desberdinak egin zituzten, txikienek 400 metro egin zituzten eta nagusienek, berriz 1.400 metroko ibilbidea bete zuten.

DAVID GARTZIA | IRABAZLEA


"Azken aldapan sartzerakoan nekea nabaritzen da"

David Gartzia durangarrak ondo ezagutzen du Ojala Zelaiko krosaren ibilbidea eta atzoko lasterketa Donostiako maratoi erdia prestatzeko froga polita dela esan digu.

Nola joan da lasterketa?

Aurtengoan lasai hasi gara, nahiz eta aldapa behera izan. Lasterketako lehenengo kilometroak taldean egin ditu. Kilometroak pasa ahala hiru bakarrik geratu gara eta zubiaren ostean eraso egin eta bakarrik geratu naiz. Hori bai, azken aldapan lasterketa galtzeko beldurra izan dut, atzekoek asko estutu dutelako.

Azkenengo aldapa gogorra egiten da.



David Garcia. | IRATI GOITIA

Oso gogorra egiten da, Urkulun oso arin joaten zara, eta azken aldapan sartzerakoan nekea nabaritzen hasten zara.

Bigarrenari tarte handia atera diozu.

Kilometro gutxiko lasterketa da hau eta momentu egokian eraso egin ezker, oso erraza da tartea ateratzea. Hori bai, azkenean, lasterketa irabaztea da garrantzitsuena.

Behintzat aste barruko bero itogarria ez duzue izan.

Gorputzarentzat hobe da horrelako eguraldia, beroarekin nire gorputza makalago egoten da.

MARISOL RAMOS | IRABAZLEA

"Niri ez zaizkit horrelako aldapak gustatzen"


Azken urteetan bezala, Marisol Ramos oñatiarrak parte hartu du Ojala Zelaiko kro-sean, eta aurten ere, emakume azkarrena izan da.

Nola joan da lasterketa?

Oso gustura egin dut lasterketa, nire semearekin batera egin dut eta konpetentzia handirik ez nuen, oso lasai bukatu dut lasterketa.

Konpetentzia gutxirekin, entrenatzeko aprobetxatu duzu?

Bai, hurrengo astean Donostiako maratoi erdia egin behar dut eta entrenatzeko froga egokia dela uste dut.



Marisol Ramos. | IRATI GOITIA

Azkenengo aldapa gogorra egin zaizu?

Egindako ibilbidearen ostean, gogorra egiten da; gainera niri ez zaizkit horrelako aldapak gustatzen.

Ez da aurten irabazten duzun lehenengo txapelketa?

Aste Santutan nire kategorian Europako txapeldu izan nintzen, gainera denbora ona egin nuen.

Zein da zure helburua Donostiako lasterketan?

Nire denbora jaitea da helburua, baina inork ez daki zer gertatuko den. Nire marrik onena gaintu ez arren, lasterketaz disfrutazearekin konformatzen naiz.



Marisol Ramos eta bere semea helmugaratzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Domekan ospatutako kro-sean saritutakoak. | JOSETXO ARANTZABAL



Gazteek ere lasterketa izan zuten. | J.A.



Mondrako jokalaria baloia kontrolatu guran, Tolosako jokalarien artean. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Askoz gehiago merezi izan zuen Mondrak Tolosaren kontrako lehian

- ▶ Epaileak bi penalti adierazi zituen Arrasatearren arean
- ▶ Atezainak txartel gorria ikusi zuen bigarren penaltia protestatzeagatik

EMAITZA

MONDRA
0-4
TOLOSA

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Gogotsu irten ziren zelaira Mondrako jokalaria. Bazekiten zer zuten jokoan. Harmailetan inoiz baino zale gehiago. Haiek ere bazekiten irabaztea ezinbestekoa zela. Tolosak ere asko zuen jokoan. Bigarren lekuan sendo jarraitu gura dute, eta puntuak behar zituen.

Baina futboleko golek agintzen dute, eta Mondrak ez zuen gol aukerarik sortu, eta ez zuen golik sartu. Egia da zelaian ez zela Tolosa baino gutxiago izan, baina ate aurrean hobeto asmatu zuten kanpotarrek.

Ordu erdia bete orduko aurreratu ziren tolosarrak, Urtzi Gurrutxagak egindako golari esker. Golak min handia egin zien arrasatearrei, baina, zaleen animoekin, ez zuten amore eman. Indartsu jarraitu zuten, baina, aldageletarako bidea hartu baino lehen, epaileak penaltia adierazi zuen Mondraren arean. Inaki Ugarte-mendiak ez zuen hutsik egin.

Bigarrenak gogor astindu zuen jokariengan eta zaleengan.

Aldageletatik bueltan, hirugarrena jaso zuen Mondrak 55. minutuan. Hori ere penaltiz. Gainera, epaileak Ander Ruiz de Azuari bigarren txartel horia atera zion protesta egiteagatik. Handik aurrera, nahi baina ezin ibili ziren. Mikel Loidi tolosarrak egin zuen laugarrena.

Minutu bateko isilunea

Partidua hasi aurretik, Iker Lopez jokariaren amak ohorezko satea egin zuen, eta minutu bateko isilunea gorde zuten Aldape base-rrian hildakoen oroimenez.

FITXA TEKNIKO

Mondra: Ander, Kevin, Alain, Mikel (Gartzia, 57. min.), Kepa, Iker (Lander, 54. min.), Gonzalez, Aitor (Haritz, 55. min.), Andoni, Julen (Asier, 64. min.), eta Jon Ander (Lopez Rekarte, 45. min.).

Tolosa: Serna, Elgorriaga, Lantzeta, Gomez, Telleria, Argiano, Ugarte-mendi, Gurrutxaga, Martinez, Valor eta Loidi.

Epaileak: Loran jaunak zuzendu zuen Mojategiko partidua. Villaquiran eta Etxeberria jaunak izan ziren marrazainak

OHOREZKO ERREGIONAL

Izandako aukera bakarra aprobetxatu zuen liderrak Bergara menderatzeko: 0-1

Anaitasunak talde sendoa dela erakutsi zuen, eta mahoneroek ezin izan zuten punturik lortu

M.B. | BERGARA

Partidu parekatua jokatu zuten Bergarak eta Anaitasunak zapatu arratsaldean Agorrosinen. Etxekoek maila ziurtatuta ez zuten ezer jokoan; bai, ordea Anaitasunak. Hirugarren mailara igotzeko hautagai nagusia da, eta puntuak beharrezkoak zituen lehen tokian jarraitzeko. Talde sendoa dute azkoitiarrek, eta hala, izandako gol aukera bakarra aprobetxatuz irabazi zuten.

Dena den, gol aukera garbiena mahoneroek izan zuten. Etxeko aurrelariak atezaina menderatuta zuenean, baloia jaurti, baina azken unean, zaleek gola kantatzen zutenean, defentsak baloia urrundu zuen.

Anaitasuna markagailuan aurreratu zenean, zelai erdiko jokoa nagusitu zen. Biek ala biek gura zuten baloia, eraso antolatzeko; baina ez zuten ondo asmatu.

Aukerak sortu barik

Bigarren zatian, sendo indartu zituen lerroak Anaitasunak. Urrezko puntuak ziren eurenako, eta emaitza mantentzeko ahalegin guztia egin zuten.

Bergara, aldiz, berdinketaren bila irten zen. Gogotsu, baina aukerak sortu barik.

Hori horrela, bigarren zatia nahiko aspergarria izan zen. Emozio eta gol bakoa. "Anaitasunak asko zuen jokoan eta guk ez. Halakoak partidua eskasak izaten dira. Eurek sortutako aukera bakarra sartu dute", esan zigun partidua bukaeran Bergarako entrenatzaile Neka Galanek.

Ohorezko Erregional mailako azken bi jardunaldietan Berio-oren eta Real Unionen kontra jokatu beharko du Bergarak. Lehen partidua Donostian, eta bigarrena, txapelketako azkena, Agorrosinen.

OHOREZKO ERREGIONALA

Intentsitatearekin jokatuz irabazi zuen Aretxabaletak

Jokoan ezer ez izan arren, UDAk intentsitate handiz jokatu zuen Urolaren kontra eta hiru puntu lortu zituen, 0-3 irabazi ostean.

Garaipen lasaia izan zen. 10. minuturako aurreratu ziren, Sanchezek penaltiz egindako golarekin. Urolako jokalariek asko protestatu zuten lehen zatian, eta orduan izan zituen UDAk aukerarik onenak.

Bigarrenean, askoz gehiago izan ziren aretxabaletarrak. Kontraeraso baten egin zuen bigarren gola Jokin Badillok, 70. minutuan; eta estrategia jokaldi batean, hirugarrena. Ibai Hernandez izan zen gole-gilea.



MIREIA BIKUÑA

JULEN ZAITEGI MONDRAKO JOKALARIA

"Sei puntu daude jokoan oraindik; eta lanean jarraitu behar dugu"

Buru-makur zegoen Mondraren aurrelaria partidua bukatu ondoren.

0-4 galdu duzue. Akaso emaitza zabalegia da.

Bai. Ez dut uste halako zaparrada merezi genuenik. Nik uste askoz gehiago merezi izan dugula. Baina, futbola horrelakoa da, eta ez badira golak egiten...

Bi penalti adierazi ditu epaileak.

Bigarren golak min egin digu, baina aurrera begiratu behar dugu. Elgoibarrek eta Hondarribiak egin dutena ikusi behar dugu, baina guk, orain arte bezala, lanean jarraitu behar dugu.

Bi partidua geratzen dira. Sei puntu daude jokoan.

Gure helburua da biak irabaztea. Sei puntuak lortzen baditugu ez gara besteen emaitzen zain egongo. Gure esku dago maila mantentzea.

Nolako giroa dago aldage-lan?

Triste, buru-makur, minduta... gaude, uste dugulako beste emaitza bat merezi izan dugula. Baina egoera honetara helduta, lanean jarraitu behar dugu; ez dago besterik.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak goitik behera menderatu zuen Elgoibar: 0-2

Aloña Mendik ondo irabazi zuen Elgoibarren kontra. Lehen zatia nahiko parekatua izan zen, baina oñatiarrek gol aukera askoz gehiago sortu zituzten, eta aurreratu ere egin ziren, Julen Palaciosek sartutako golari esker.

Elgoibarrek garaipena ezinbestekoa zuen, eta lerroak aurreratu zituen bigarren zatian. Hori horrela, Aloñak, gol aukera asko sortu zituen kontraerasoan. Baina, aukera asko izan arren, asko kosta zitzaion oñatiarrei lehia erabakitzea. Azken metroetan ez zuten asmatzen. 80. minutuan egin zuen bigarren gola Xabier Agirrek, eta puntuak Oñatira eroan zituzten.

TXIRRINDULARITZA

Carlos Cobo (Gios) heldu zen lehena Arantzazuko helmugara, laino artean

Leongo ziklistak ez zuen Unai Osaren errekorra gainditzerik lortu



Arantzazuko igoerako irabazleak, sariak jaso ondoren. | RUPER ARKAUZ

MIREIA BIKUÑA | ARANTZAZU
Arantzazuko 43. igoerako sari nagusienak Avila aldera joan ziren. Gios taldeko Carlos Cobo (22.59) izan zen azkarrena Sindika jatetxearen ondoko helmugan; eta Gios taldeak irabazi zuen talde onenaren saria. Guztira, 78 txirrindulari egon ziren. "Maila ona erakutsi dute, naiz eta eguraldia asko petraldu den. Eguzkiarekin irten dira Oñatitik, eta lainoarekin heldu dira Arantzazura", esan zigun Aloña Mendi txirrindulari saileko kide Ruper Arkauzek.

Bigarren lekuan sailkatu zen Caja Rural taldeko Peio Olabarria;

eta hirugarren, Alex Aranburu. Azken horrek eraman zuen mendiko saria. Azkenik, oñatiar onenaren saria Mikel Fernandezek lortu zuen. Guztiek jaso zituzten oroigarriak.

Katea irten eta bizikleta apurtu
Bederatzi kilometroko igoera izanik, oso azkar irten ziren guztiak. Lehen metroak egin orduko Ulma taldeko Iker Mugartzari katea irten zitzaion; eta Natra Zahorren parera heldu orduko Caja Rural taldeko ziklista bati bizikleta apurtu zitzaion.

Handik aurrera, ez zen beste arazorik egon. Lehen kilometroetan ihesaldi saiakera bat egon zen, eta metro batzuetako alde atera zuten tropelarekiko. Kilometroek aurrera egin ahala, ziklistak sakabanatu egin ziren, eta bakarka egin zituzten azken metroak.

Behin Arantzazura helduta, azken txanpa zuten aurretik: Sindika jatetxerainoko aldapa. Ordurako lainoa zen protagonista. Carlos Cobok, metro batzuetako abantailarekin, hortzak estutu, eta besoak altxatu zituen helmugan.

DATUA

78

ZIKLISTA

Horiek dira gazteendako Arantzazuko Igoeran parte hartu zuten txirrindulariak. Bi izan ezik, guztiak heldu ziren helmugara.



Gios taldeak irabazi zuen talde onenaren saria. | RUPER ARKAUZ



Mikel Fernandez oñatiarra, helmugan sartzen. | RUPER ARKAUZ

ERRUGBIA

Iker Elortza eta Ampo Ordizia liga txapelketa barik geratu ziren

Ampo Ordiziak VRAC Quesos taldearen kontra galdu (27-10) eta liga txapelketa barik geratu zen. Iker Elortza arrasatearraren taldeak 2.000 zaleen laguntza izan zuen, baina ez zen nahikoa izan partidua irabazteko.

Valladolideko taldeak mailako aurrelari onenak ditu, eta errugbian aurrelariak erabakitzen dituzte partidua.

Ordiziarrek aurreratu ziren bosgarren minutuan, baina VRAC Quesos taldeak berehala eman zion buelta markagailuari. 12-3ko abantaila hartu eta handik aurrera euren agindu zuten partiduan.

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak berdinketa, tramitezko partiduan

Eskoriatzak eta Isu Leihok taldeek hiruna berdindu zuten atzo eguerdian. Bi taldeek ez zuten ezer jokatu eta tramitezko partidua jokatu zuten. Hori bai, etxekoek eskura izan zuten garaipena: lehia bukatzeko 30 segundo geratzen zirenean jaso zuten berdinketa. Etxeko golegileak Barandiaran, Jonathan eta Mora izan ziren.



JOSETXO ARANTZABAL



Parte-hartzaileak euren txandaren zain, atseden hartzen. | JOSETXO ARANTZABAL

KARATEA

Kata mugimenduetan bikain ibili ziren karateka gazteak

Aloña Mendik antolatutako 17. Shotokan kata txapelketan 107 neska-mutiko egon ziren

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko karate sailak antolatzen duen Shotokan txapelketak 17. edizioa bete zuen zapatuan. Oñatiko, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako 107 neska-mutikok erakutsi zuten tatararen gainean katako mugimenduak nola egiten dituzten. Gerriko horitik hasita urdinerainoko karatekak egon ziren Zubikoan. "Maila ona eman dute.

Batzuek etorkizun handia dutela erakutsi dute. Oso pozik gaude", esan zigun Aloña Mendiko karate saileko presidente Ricardo Arrizabalagak.

Lau maila

Benjamin-aurreko, benjamin, alebin eta infatil mailak egon ziren, eta guztietan, karateka gazteen mugimenduak eta teknikak baloratu zituzten epaileek.



Neska gazte bat katako mugimendua egiten | JOSETXO ARANTZABAL



Epailea mutiko baten mugimenduak jarraitzen adi-adi. | JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Bergara Hiriko finalerdiak bihar jokatuko dituzte

Bergara Hiria txapelketa azken fasean sartu da. Bihar, 19:30ean, finalerdiak jokatuko dituzte pilotalekuan: gazteen mailan Ortiz-Ibarrondo eta Sarasti-Imaz; eta nagusietan, Elezkan-Diez eta Jaka-Peñas.

SASKIBALOA

Lehen Nazionalen jarraitzeko puntu inportantea MUREndako

Mondragon Unibertsitateak garaipen garrantzitsua lortu zuen San Inazioaren kontra: 56-68. Lehen nazional mailan jarraitzeko aurrerapauso handia eman dute arrasatearrek Iruñan irabazi ostean.

Azkena, La Salleren kontra jokatuko dute Iturripen, aste bukaeran.

MENDIA

Abenturazko hiru emanaldi egingo ditu Besaidek hilaren 15ean

Menditur emanaldia egingo dute Besaide mendi taldeak antolatuta, hilaren 15ean, 20:30ean. *Solitaire*, *Cold* eta *Fly or die* lanak erakutsiko dituzte. Bazkideek lau euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek bost euro.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Roteta-Beti Gazte	1-2
Behobia-Aurrera	1-2
Bergara-Anaitasuna	0-1
Oiartzun-Pasaia	1-1
Elgoibar-Aloña Mendi	0-2
Mondra-Tolosa	0-4
Hondarribia-Berio	2-1
Urola-Aretxabaleta	0-3
Trintxerpe-Real Union	0-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	67	32
2 Tolosa	61	32
3 Pasaia	59	32
4 Oiartzun	59	32
5 Real Union	55	32
6 Beti Gazte	54	32
7 Aretxabaleta	49	32
8 Berio	46	32
9 Bergara	45	32
10 Aloña Mendi	44	32
11 Aurrera	44	32
12 Trintxerpe	43	32
13 Urola	39	32
14 Hondarribia	33	32
15 Elgoibar	29	32
16 Mondra	28	32
17 Behobia	27	32
18 Roteta	21	32

HURRENGO JARDUNALDIA

Aurrera-Roteta
Pasaia-Behobia
Berio-Bergara
Anaitasuna-Elgoibar
Aloña Mendi-Oiartzun
Aretxabaleta-Mondra
Real Union-Hondarribia
Tolosa-Trintxerpe
Urola-Beti Gazte

ERREGIONAL PREFERENTEA

Zestoa-Antzuola 1-0

Aretxabaleta B-Orioko 2-3

1. ERREGIONALA, IGOERA FASEA

Lazkao-Mondra B 1-0

1. ERREGIONALA, KOPA

Trintxerpe-Aretxabaleta C 2-1

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Kostkas-Aloña Mendi 2-2

OHOREZKO GAZTEAK, JAITSIERA

Oiartzun-Mondra 4-0

KADETE OHOREZKO MAILA, KOPA

Aretxabaleta-Billabona 4-0

Aloña Mendi-Kostkas 1-1

Bergara-Beti Gazte 2-1

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

Arizmendi-Arrobi Berri 3-0

ESKUBALOA

GIPUZKOAKO KOPA

Ford Mugarrri-Elgoibar 23-22

LURRALDE TXAPELKETA KOPA

Aloña Mendi-Urola 35-35

Ordizia-Arrasate 24-24

SENIOR NESKAK KOPA

Leizaran-Aloña Mendi 25-24

GAZTEAK KOPA

Arrasate-Eibar 17-29

SASKIBALOA

LEHEN NAZIONAL MAILA

San Inazio-MU 58-64

GAZTEAK PARTAIDETZA

Grupo Zaher-Aloña Mendi 83-74

KADETE MUTILAK

Soraluze Bergara-EPI Kristal 33-66

MU A-BKL 80-47

KADETE NESKAK PARTAIDE.

Soraluze BKE-Landaberri 23-19

GU RE KI RO LA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **gurekirola**

Oihana Kortazar | Mendi lasterkaria

"Zegama-Aizkorri mendi lasterketako txapela defendatzea ez da lan erraza izango"

- ▶ Espainiako txapelduna da Oihana Kortazar eta motibazioz gainezka dago
- ▶ Zegama-Aizkorri mendi maratokia berriz irabazteko asmoa erakutsi du elgetarrak

XABIER URZELAI | ELGETA

Mendi lasterkari trebea eta nekazina da Oihana Kortazar (Elgeta, 1984). Mendian korrika egitea gogoko du elgetarrak eta makina bat garaipen lortu izan ditu orain arte. Aurten Salomon Santiveri taldeak fitxatu du. Oraingoan, aurtengo denboraldiaren eta Zegama-Aizkorri (maiatzaren 20an) lasterketaren gainean jardun du gurekin.

Espainiako txapeldun izan zara hirutan, azken biak jarraian, gainera. Horrek zer esan nahi du, iazkoaren antza izan dezakeela aurtengo urteak, ala larregi aurreratzea da hori?

Oraindik asko aurreratzea da hori, lasterketa asko eta gogorak falta dira.

Iazko urte bikainaren ostean, baina, erraza da berriro ere motibazioa bilatzea?

Motibazioa lortzea ez da horren zaila, batez ere aurreko urteko denboraldia horren ondo bukatu nahi nuenean, ez bakarrik emaitzen aldetik, baita lesio aldetik ere. Baina aurten lesio txiki batzuekin hasi naiz, eta hori entrenamenduetan igarri egiten da. Lesio txiki horiek egunero-kotasunean arazotxo batzuk sortzen dituzte. Edozelan ere, lasterketetan parte hartzeko gogotsu nabil eta motibazioa berbera daukat.

Ze falta zaio Oihana Kortazarri mendi lasterketen munduan oraindik egiteko?

Adibidez, aurten ekainean eta uztailean munduko txapelketak jokatu dira, eta hori ez da urtero gertatzen, baizik eta lau urterik behin. Niretzako lehendabiziko aldia izango da, eta garaipena lortuz gero, titulu ezberdina izango litzateke.

Salomon Santiveri taldeak fitxatu izanak eman dizu motibazio hori, adibidez?

Bai, azken finean hori ere errekonozimendua da. Batez ere 2011ko denboraldian lortutako emaitzei begira da errekonozimendua. Poztasuna eta ilusioa eragiten ditu, eta beste esperientzia bat ere bada.

Egin errieta zure taldekideei, oraindik ez zaituzte-eta webgunean sartu.

(Barre) Uste dut banagoela bertan, baina badirudi bi atal bereizten direla webgunean, Salomon España eta Salomon Internacional. Ziurrenik zuk nazioarteko atalean begiratu duzula eta ni Espainiako atalean agertzen naiz. Hurrengo batean begira ezazu Espainiako sailean.



Oihana Kortazar korrikalaria. | GOIENA

Espainiako Txapelketaz gainera, zelako denboraldi hasiera egin duzu?

Momentuz, Espainiako txapelketaz gainera, Italiako Kopako lehenengo lasterketan parte hartu dut, eta egin ditudan gainontzeko lasterketak ez dira izan zirkuitu batekoak, lasterketa solteak izan dira. Hemen, berriz, Euskal Herri mailan ere korritu izan dut. Baina, niretzat benetako denboraldia Zegama-Aizkorri mendi maratoiarekin hasten da. Munduko Kopako lehen proba

"Aurten munduko txapelketetan parte hartzeko aukera izango dut"

"Salomon Santiveri taldean egotea errekonozimendua da niretzako"

"Zegama-Aizkorri mendi maratolian ilusioa guztiak jarrita ditut"

"Probak egin ditudan arren, ez dut inoiz gaueko lasterketarik egin"

puntuagarria izango da berori, eta bertan jarrita ditut nire asmo nagusiak.

Aurten ere Zegama-Aizkorri duzu, beraz, gorritz markatuta; titulua defendatzea...

Motibazio berezia daukat, iaz espero gabe irabazi nuen. Esan bezala, aurten motibazioa daukat, baina beldurra ere bai. Gainera txapela defendatzea ez da lan erraza izango. Jendearen animoak eskertzen dira, baina norberak nahi eta ezin izatea sentsazio hori gogorra egiten da. Hala ere, berriro ere irabazteko ilusioa badaukat. Bestela, podiuma egitearekin ere konformatuko nintzateke.

Askotan kanpoko lasterketak etxe-koak baino gehiago baloratzen ditugu.

Bai, halaxe izaten da. Kanpoko jende askorendako Zegama-Aizkorriko lasterketan parte hartzea amets hutsa da, eta oro har, bertokoek ez dute gehiegi baloratzen. Nik neuk ere asko baloratzen dut, eta Euskal Herrian sekulako lasterketak antolatzen direla onartu beharra daukat.

Iazko garaipen kopurua gaindi ezin daitekeen muga da?

23 garaipen eta bi aldiz 2. postuak eskuratu nituen iazko denboraldian. Aurten hori errepikatzea zaila izango da, baina ahalginduko naiz. Izatez, aurten sasoi honetan iaz egin nituen baino lasterketa gutxiago egiten nabil. Iaz oso nekatuta bukatu nuen denboraldia, hori dela eta, zenbait lasterketetan ez parrte hartzea erabaki dut. Horrez gainera, iaz ez nuen lesiorik izan, denboraldi perfektua izan zen, eta oraingo honetan, baditut lesio batzuk, eta horrek entrenamenduetan badauka bere eragina. Orain, berriz, nire zalantza da nola arituko naizen uda parteko lasterketetan.

Ekainaren 9an egingo duten Eskoriatzako Gabez Takarran lasterketako aurkezpenean izan zinen; ibili zara gauez inoiz?

Ez, ez dut inoiz gauezko lasterketetan parte hartu. Entrenamenduetan probaren bat egin izan dut, baina lasterketa bezala ez. Gauez egiten den horrelako lasterketak osagai bereziak izan behar ditu, oso ezberdinak dira egun eta gauezko lasterketak. Eskoriatzako aurkezpenean egon nintzen arren, ezin izango dut lasterketan parte hartu. Kanpoan izango naiz Espainiako kopako lasterketan.

HEZIKETA

'Hazi Hezi' aldizkaria kalean da, haurren heziketan lagundu nahi duen tresna

Hik Hasi proiektuaren ekimena da; urteko harpidetzaren kuota 20 euro da

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Etxeko komunitate osoari zuzenduriko aldizkari bat izan nahi du; hau da, familiarentzat bere zentzu zabalean —gurasoak, aitona-amonak, izebak...—, baina baita bere zentzu anitzean ere; gaur eguneko familia eredu berriak ere kontuan izan nahi ditugu. Eta noski, hori guztia euskaraz egingo dugu". *Hazi Hezi* aldizkariaren erredaktoreburu Ainara Gorostitzuren hitzak dira.

Hik Hasi egitasmoa dago *Hazi Hezi* aldizkariaren atzean. Lehenengo zenbakia dagoeneko kalean dute eta helburua da urtean lau ateratzea. Askotariko gaiak landuko dituzte, guztiak haurren heziketarekin zerikusia dutenak. "Haurraren garapen kognitibo, psikologiko, emozional eta fisikoari buruzko teoriak azaltzetik harago, esperientzia errealak izango dira aldizkariaren bizka-



Hik Hasiko Joxe Mari Auzmendi eta *Hazi Hezi*-ko Ainara Gorostitzu. | HAZI HEZI

rrezurra; familien esperientziak, aholkularienak, irakasleenak, adituenak...".

Aholkulari talde zabala

Irakurleek profesionalei kontsultak egiteko aukera izango dute. Psikologoak, pedagogoak, psiko-

motrizistak, pediatriak, osteopatak... profesional zerrenda luzea da. Profesional horiek lagundu dute aldizkariaren atalak diseinatzen ere. Urtean lau zenbaki kaleratuko dituzte; harpidetza bidez lor daiteke, baita Elkar dendetan ere.

Auzolanean eraikitako jolas parkea Nafarroako Donamaria herrian

Itsaso Pagoagak haurrendako jolas parkeen inguruan hausnarketa egitera dei egiten du

L.Z. | ARRASATE

Gure inguruko herrietan haurrendako egiten diren jolasparkeak oso antzerakoak dira; plastikoa da nagusiki erabiltako materiala, kolore biziak dituzte eta estali gabekoak dira. Ia denek, gainera, jolaserako antzeko elementuak dituzte. Itsaso Pagoagak han eta hemen agertzen ari diren *adventure playgrounds* deituriko parkeak aipatzen ditu *Guraso.com* atarirako idatzitako artikuluan; eta Donamarian ezagutu duen parke baten berri ematen du. "Lehenengo begiratuan, ez du gaur egungo bestelako jolas parkeekiko desberdintasun handirik; berdegune hesitua da, eta bertan honako elemen-

tuak daude: eserlekuak, iturria, ziburuak (...). Jolas parke honen berezitasunak baina bi dira eta oso interesgarriak niretzat. Alde batetik jolas parkeko elementuak eraikitako erabili diren materialak ahal den neurrian bertakoak izaten saiatu dira. Jolaserako dauden elementu ia gehienak inguruetako egurrekin eginak dira, baita ere eserleku eta mahaiak eta jolas parkearen hesitura. Horretaz gain (...) herritarren artean auzolanean eraikitako da; herritarren parte hartzea eta berauen beharrak kontuan izanda". Eta gonbidapen bat egiten du Pagoagak; "irten kalea eta azter itzazue zuen herriko jolas parkeak".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

Ibilbideak: ibiltarien komunitatea



Juan Arbulu
Arizmendiko irakaslea

Eusko Jaurlaritzako Kirol eta Osasun Publikoak *Ibilbideak* izeneko ekimena aurkeztu zuen Gasteizen martxoaren 26an. Aire zabalean egiten diren kirol-letan gero eta ohikoagoa da teknologia berrien erabilera; GPSa adibidez. Ekimen horren bitartez pertsona edo erakundeei eskaintzen zaigu webgune baten ibiltarien komunitate bat sortzeko aukera. Komunitateko partaide izanez gero erabilgarriak diren gailuen bitartez —GPS zein Smartphonak— eginiko ibilbideak partekatze ingurune birtuala aproposa izango dugu. Egia da era horretako eskaintza ematen duten beste web aplikazio batzuk badaudela: Wikiloc, Endomondo, Every trail... Halere, tokian tokioa izateak ematen dio berezia den ezaugarri bat. Esan beharra dago, Wikiloc hartu dutela erreferentziazko eredu bezala eta

bera izan dela webgune hori garatu duena.

Lehen esan dugun bezala ekimen berri hori pertsonak edo erakundeak erabil dezakete. Hori bai, eginiko ibilbidea igotzeko eta egindakoak jaisteko derrigorrez erregistratuta egon behar da. Webgunean alta emateko norberaren izena, emaila eta pasahitza besterik ez dira idatzi behar.

Ibilbideak igotzeko bi modu

Bildutako ibilbideen kontsultak eta eginiko ibilbidea momentuan baldintza bat hartu behar da kontuan; hasi eta bukatu EAEn egin behar direla. Dena den, beti izango dugu aukera Wikiloc-en eta Google Earth-en ikusteko. Ibilbideak igotzeko bi modu erabil daitezke: lehena, mapa baten gainean eginiko bidea marraztuz, eta bigarrena GPSan edo Smartphonean gordetako track-a webgunera zuzenean igoz.

Era berean, bildutako ibilbideren bat sakelako gailuren bate-

ra jaisteko aukera ere eskaintzen du aplikazioak.

Partekatuta daitezkeen jarduerak modalitateetan sailka daitezke: mendiko txirrindularitza, errepideko txirrindularitza, oinezko ibilbideak, alpinismoa, mendi eskia, piraguismoa eta abar. Partekatutako jarduerak hainbat datu interesgarriekin aberats daitezke; hala nola, jardueraren luzera, altitua (minimoa eta maximoa) eta metatutako altitua. Dena den, egileak argazkiak igo eta ibilaldiaren deskribapena idatz dezake jasotako informazioari balio erantsi garrantzizkoa emanez. Ikusleek ere aurkitutako jardueraren balorazioa komunitatearekin parteka dezakete. Erakundeak ere —kirol-taldeak, ikastolak...— erregistra daitezke erabiltzaile gisa. Horrela, antolatzen dituzten txangoak egutegi baten bitartez plazaratzeko modu eroso batean bistaratu dezakete, eta euren webguneetan txertatu. Ekimenak gizarteratzeko aplikazio erabilgarria da honako hau.

XVI edición de la marcha de montaña en homenaje a Iñaki Beitia, a realizar en Urretxu-Zumarraga el 20 de mayo de 2012, organizada junto a la sección de

Urretxu-Zumarragan hilaren 20an egitekoa duten irteera bat. | ARIZMENDI IKASTOLA

<http://ibilbideak.euskadi.net>

Webgunearen zatirik handiena mapari dagokio. Mapa formatu desberdinetan ikus daitezke: satelitea, mapa, Orto GBV, Topo GBV eta beste formatu batzuk. Maparen ikuspegia hurbildu edo urrundu egin daitezke —zoom efektua—, eta pantaila osoan ere ikus daitezke. Maparen azpian jarduera fisikoaren altuera profila ere bistaritzen da. Maparen goiko aldean egun partekatze ohiko ikonoak ditugu: Twitter, Facebook... Gainera, ibilaldia askotariko formatuetan —GPX, TCX, KML— deskargatzeko aukera. Nahi izanez gero jarduera inprimatu eta gogoko bezala marka daitezke.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Irakurraldian parte hartu zuten hogeit hamar lagunak saioaren amaieran. | JOSETXO ARANTZABAL



"Francoren garaian antzera gaude, agintean direnak euskararen aurkakoak dira-eta"

"Hizkuntza bat ez bada beharrezkoa bere lurraldean, jai dauka"

TXILLARDEGI | IDAZLEA

Txillardegiren narrazioek Kulturate bete zuten barikuan

- ▶ AEDk antolatuta Txillardegiren omenezko irakurraldi kolektiboa egin zuten
- ▶ 20 lagunek idazlearen eleberri ezagunen pasarteak irakurri zituzten

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Zer da bakarrik egotea? Kalezkale lagun askok inguratuta ibili arren, ez ote naiz ni egon ohi, hala eta guztiz ere, orain nagoen baño askozaz bakarrago eta utziago? Bai, ziñez, eta sarri.

Nork ez du oroitzin Joxebenaren zalatza edo borroka existentziala? Txillardegiren *Leturiaren Egunkari Ezkutua* irakurri duen orok gogoratzen du hori eta baita Mirenekiko sentitzen zuen maitasun mingarria ere. *Argi epela zegoen pistan, izkiña batetik pantalla gorrixka batek zabaldua. Haren argitasunean Miren'en isla maitatua*

berezi dut. Lehengo egunekoa bera iruditu zait mutilla... Zein zurrut mingotsa!

Bada, egubakoitzean, horrelako esaldiak eta Txillardegiren beste asko entzun ahal izan ziren Arrasateko Kulturaten. AEDk antolatuta eta Literaturjauziak egitasmoaren baitan, Txillardegiren omenezko irakurraldi kolektiboa egin zuten: "Urtarrilaren 14an hil zen Txillardegi. Euskaltzalea eta abertzalea izan zen eta guk ere gure omenaldia egin nahi izan diogu. Horretarako hogeit hamar euskaltzalek euskal literatura modernoaren aitzindari izan ziren hiru eleberriren-

pasarteak irakurriko dituzte", azaldu zuen AEDko Eñaut Muxikak irakurraldiaren sarreran.

Aurpegi ezagunak

Hain justu ere herrigintzan eta euskalgintzan diharduten Arrasateko aurpegi ezagunak igo ziren taula gainera Txillardegiren esaldi ederrak eta sakonak errezitatzerara. *Leturiaren Egunkari Ezkutua* (1957) eleberriarekin hasi ziren –eleberri existentzialista eta euskal nobelagintza modernoan mugarri izan zena–. Ondoren *Peru Leartzako* (1960) eleberraren pasarteak irakurri zituzten eta *Elsa Scheelen* (1968)

eleberriarekin amaitu zuten. Azken honekin Txomin Agirre saria irabazi zuen –lehen aldiz narratzaile orojakileaz baliatu zen protagonistaren bizimoduaren gorabeheren berri emateko–.

Musikak gozotua

Ekitaldi xumea baina sentikorra izan zen egubakoitzekoa, eta are sentikorrago egin zuten Arrasate Musikaleko bi musikariek. Irakurleekin batera taula gainean ziren Ana Izagirre pianorekin eta Mario Fernandino saxofoiarekin. Txillardegiren hitzak, esaldiak eta narratiba borobiltzeaz arduratu ziren. Ederra izan zen

benetan Mikel Laboaren *Haika Mutil* abestia entzutea Txillardegiren pasarte eta pasarte artean.

Euskaltzale amorratua

Frankismoa gazte-gaztetatik bizi izan zuen Txillardegik, eta handik aurrera haren bizitzako ardatz izan ziren euskara eta Euskal Herria. "Sustraitik politika egoera aldatu gabe euskararen egin zuela ikusten genuen eta borrokan sartu ginen bete-betean". Horrelakoak ere irakurri ahal izan ziren barikuan, agertokian ipinitako pantailan. Txillardegiren esaldi esanguratsuak irakurri ahal izan ziren, tamalez, Horietako asko erabilgarriak oraindik ere: "Hizkuntza bat ez bada beharrezkoa bere lurraldean jai dauka". Zenbat egia borobil utzi dizkigun Txillardegik.



AEDko Eñaut Muxikak hasi zuen Txillardegiren omenezko irakurraldia. | JA



Eneko Barberena irakurtzen. | JA



Mario Fernandino saxoa jotzen. | JA

Alaitz Zabalo | Flauta-jotzailea

"Ez dut imajinatzen nire bizitza flauta barik, oreka handia ematen dit"

Euskal Herriko Flauta Orkestrak kontzertua eskaini zuen zapatuan Torresoroan eta flauta-jotzaileen artean zegoen Alaitz Zabalo antzuolarra

ARRITXU BARRUSO | ANTZUOLA

Alaitz Zabalo urte asko daratza flauta jotzen eta orain dela 12 urtetik Euskal Herriko Flauta Orkestrako kidea da. Zapatu ilun-teez kontzertua eskaini zuen Torresoroan familiarteko eta lagunen begiradapean.

Zure herrian, etxean, ematen duzun lehenengo kontzertua izan da?

Ez. Beste batzuetan ere jo izan dut, baina orkestrarekin natorren lehenengo aldia da. Programa antolatuta genuenean bururatu zitzaidan Antzuolan ere jotzea eta egia esan oso erraza izan da. Oso ondo portatu dira eta atek zabal zabalik izan ditut.

Nola sentitu zara kontzertuan?

Oso ondo. Hasiara urduritasun puntu bat neukan, baina oso pozik nago asko gozatu dudalako kontzertuan. Sentsazio oso ona izan

dut. Horixe zen nahi nuena, nire ingurukoei egiten dudana erakustea eta horrekin disfrutatzea, eta halaxe izan da. Oso pozik nago.

Solista moduan ere jo duzu momentu batean...

Bai. Momentu hori ere oso berezia izan da eta hor ere asko gozatu dut. Ondo sentitu naiz.

Musika klasikoa eta garaikidea uztartu dituzue kontzertuan. Flautarekin musika oso ezberdinak egin daitezke, ezta?

Horrela da. Gaur egun flauta oso zabalduta dago musika estilo ezberdinetara. Dena dela guk, gehien bat, orkestrako erreperitorioa jotzen dugu.

Zer suposatzen du flautak zuretzat?

Ez dut imajinatzen nire bizitza flauta barik; flautak oreka handia ematen dit. Bikotekide bat bezalakoa da, bizitza osorako harreman bat sortzen da, nahiko fidela gainera. Zenbat eta hobeto jo orduan eta zoriontsuago zara.

"Oso erraza izan da Antzuolara etortzea atek zabal zabalik izan ditut"

"Oso pozik nago asko gozatu dudalako kontzertuan"



Alaitz Zabalo flauta-jotzailea. | JOSETXO ARANTZABAL

Euskal Herriko Flauta Orkestraren bisita

Euskal Herriko Flauta Orkestrak kontzertua eskaini zuen zapatuan Torresoroan. Ordu eta hoge minutuko kontzertua izan zen eta flautaren doinu eta estilo ezberdinak ezagutzeko aukera izan zen. "Estilo ezberdinak nahastu nahi izan ditugu: barrokoa, klasizismoa, erromantizismoa eta XX. mendeko musika", adierazi zigun Alaitz Zabalo. Koloreei dagokienean ere, zapatuko kontzertuak balio izan zuen ikasteko flautaren familia oso zabala dela: "Biolinaren familian gertatzen den moduan zeharkako flautaren familia ere oso zabala da. Solen dagoen flauta, flauta baxua eta flauta kontrabaxua daude. Gertatzen dena da azken bi horiek ikustea, esaterako, oso zaila dela. Oso instrumentu garestiak dira". Zalantza barik kontzertuko momentu berezietariko izan zen Zabalo solista moduan jo zuen Franz Doppleren pieza.



Euskal Herriko Flauta Orkestra Torresoroan. | JA



Xabier Montoia Mursego eta Ibon Rodriguezekin. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Biluzik etorri da oraingoan Xabier Montoia

A.B. | ELGETA

Montoiaren Mundu Miragarria diskoa aurkeztera etorri zen egubakoitzean Xabier Montoia Elgetako Espaloia Kafe Antzokira. Hirukote formatuan etorri zen Mursego (Maite Arrotajaurregi) eta Ibon Rodriguezekin batera. Hortaz txelo eta organo doinuez lagunduta dator azken disko honetan.

Montoiaren Mundu Miragarria diskoa osatzen duten hamar kantuak jo zituen Montoiak, baina baita bakarka kaleratu izan dituen diskoetako kantuak ere; horren adibide *Ipurzuri* kantua.

Kontzertua amaitu, berriz, ingelesez amaitu zuen Montoiak The Clash talde ezagunaren *The Guns of Brixton* abestiaren bertsiorekin. Montoiak berak abestia aurkezteko esan zuen "horretarako garaia" dela.

FITXA

KONTZERTUA

XABIER MONTOIA

Diskoaren aurkezpena:
'Montoiaren Mundu Miragarria'.

Non: Elgetako Espaloia Antzokia.

Eguna: Egubakoitza, maiatzak 11.

Iraupena: Ordu eta erdi.

Kontzertu intimoa

Jende gutxi elkartu zen Elgetako antzokian, eta deigarria da hori, Montoia masak mugitzen dituen artista izan ez arren, izen handiko artista delako, eta Euskadi Literatura Saria ere lortu izan duelako.

Dena dela, gutxi izan baziren ere Espaloian batutakoak gus-tura asko egon ziren. Oraingoan formatu intimo batekin dator

-eta Montoia. Ohituta gaude Xabier Montoia bateria, baxua edo gitarra elektrikoarekin lagunduta ikustera. Badakigu artista kamaleonikoa dela, eta oraingoan ere estilo desberdinarekin topatu dugu agertokian; oraingoan biluzik etorri da, organoa, gitarra espainola eta txeloarekin lagunduta. Biluzik dago, halaxe nahi izan duelako, eta askotan mikrofono beharrik ere ez zuen izan egubakoitzeko kontzertuan.

Ahots landua

Ahotsetan eta koruetan ere lan dezente egin dutela erakutsi zuen hirukoteak. Hori argi gertatu zen, esaterako, Mikel Laboaren *Xoria* abestiaren bertsiotxo jo zutenean; hirurak elkarrekin abesten zuten eta koruetan erakutsi zuten ahotsa asko landu dutela.

Ikusleen bultzadari esker The Cubical taldeak ederki bukatu zuen

UBANE MADERA | ARRASATE

Ondo bukatzen denak zapora ona uzten du. Bada, horixe izan zen, justu, egubakoitzean Arrasateko Amaia Udal Antzokiko hallean batu ziren musika-zaleek etxera eraman zuten sentsazioa The Cubical taldearen emanaldiaren ostean.

Izan ere, bezperan Valentzian jardun ostean, oso nekatuta iritsi ziren Arrasatera Liverpooloko taldeko musikariak, eta hori nabariko izan zen hasieran. Ikusleek, baina, animatu, eta kontzertua aurrera joan ahala, eurak ere motibazio handiagoarekin jardun zuten.

Bukaerarako ikusleekin erabat konpenetratuta zeuden The Cubical taldeko kideak. Bitxikeria moduan, azken kantuetan gitarra-jole batek arazoa izan zuen aplikadore batekin, eta hala ere, jotzen segitu zuten.

Bitterren birtuosismoa

Britaniako taldearen aurretik, baina, etxeko Bitter Honeyk jardun zuen, eta beste behin agerian utzi zuten musikari moduan duten birtuosismoa. Bigarren diskoa izango denaren kantu batzuk aurreratu zituzten arrasatearrek, eta ikusleen aldetik erantzun ona eskuratu zuten.



The Cubical taldearen emanaldiaren unetxo bat. | JOSETXO ARANTZABAL

'11 kantatzeko' DVDa aurkeztu dute egileek

Egubakoitzean egin zuten ekitaldia Oñatiko kultura etxean. Bertan batutakoek gustura entzun zituzten euren azalpenak eta baita ipuinak ere; esaterako, txanogorritxo bertsotan entzuteko aukera izan zuten.



IRATI GOITIA

'Ekaitza' filmak irabazi du Goiena saria

Huhezinema Euskal Film Laburren V. Jaialdiko Euskarazko Film Labur Onenaren saria (Goiena saria) *Ekaitza* film laburrarendako izan da. Eguenean egin zuten sari-banaketa Aretxabaletako Arkupen.



MAIALEN REGUEIRO



GUUREA



TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

LEINTZ GATZAGA **ESKORIATZA**

EUSKAL HERRIA ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU

MUNDUKO KULTUREN FESTA



DE
BA
GO
IE
NA

MAIATZAK
18
19
20

KONTZERTUAK

RICHARD BUCKNER

ESNE BELTZA

ANARI

LA PEGATINA

KILEMA

BIZARDUNAK

GAFIEIRA MIÚDA

PATTA TA SENDAEZINAK

MUTÜRBELTZ

EEUU

EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIA

CATALUNYA

MADAGASKAR

EUSKAL HERRIA

BRASIL

EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIA



EKOFERIXA

PRODUKTU
EKOLOGIKOEN
ETA SLOW FOOD
GASTRONOMIAREN
AZOKA

UMEEN GUNEA

-ARTISAUTZA ETA
MUNDUKO ZAPOREAK
- ELKARTASUN
FOROA- **KALE
ANIMAZIOA...**



i 902 181 471

WWW.MUNDUMIRAFESTA.COM

info@mundumirafesta.com

ANTOLATZAILEAK

EUSKAL HERRIA

www.euskalherria-aldizkaria.com

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
TURISMO



BABESLE NAGUSIAK



BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



GURE MUSIKA TALDEAK

LOS GALERNA

Los Galernaren *Surfusion* lanaren argazki promozionala. | JON RODRIGUEZ

"Surfinstrumentaletik abiatuta, era askotariko estiloak nahasten ditugu"

- ▶ Jon Rodriguez aretxabaletarraren El Purgatorio estudioan grabatu dute
- ▶ CDa dagoeneko salgai dago; biniloa, berriz, hiru aste barru izango da kalean

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Los Galerna talde arrasatearrak bigarren diskoa kaleratu berri du. Aurrekoan bezala, surf doinu klasikoekin batera, beste estilo askoren nahasketa egin dute lan berrian.

Surfusion da Los Galernaren lan berria. Aurreko lanarekin alderatuta, zer eskaintzen du disko berriak?

Oraingo honetan, doinu klasikoa alde batera utzi gabe, bestelako doinu batzuk sartu ditugu. Taldeak ez du mugarik, estilo askotariko koktela egin dugu.

Saxoa eta harmonika sartu dituzue orain.

Duela bi urte inguru Ibai sartu zen taldean. Saxofoia eta harmonika jotzen ditu hark, eta abestiei ukitu berezia ematen die. Hasieran, saxofoi detaile batzuk sartu nahi izan genituen; orain, berriz, gure abestien doinu askotan saxoa da protagonista.

Diskoak 12 abesti ditu; noiz egingidakoak dira?

En el Purgatorio lana grabatu eta gutxira abesti berriak egiten hasi ginen, eta azkeneko abestiak disko berria grabatu baino hila-

bete batzuk lehenago egin genituen. Gero, estudioan zenbait konponketa egin genituen, baina esan beharra dago estudioa etxeko lanak eginda joan ginela.

Zaila da abesti instrumentalei izenak jartzea?

Ez. Izenburu bakoitzak bere istorioa izaten du: *Dale Fuzz!* adibidez, gure furgoneta omentzeko egindako abestia da. Orokorrean, kontzertuetan bizi izandako esperientziak, abestiek transmititzen dituzten sentazioak... izaten dira kantuen izenburuen oinarriak.

Aurreko diskoan bezala, Jon Rodriguezen El Purgatorio estudioan grabatu duzue.

Aspaldiko lagunak gara, soinu teknikari bikaina da Jon Rodriguez, eta harekin grabatzea plazer hutsa da. *Surfusion* lana lau egunean grabatu genuen Loranca de Tajuñan (Guadalajara) duen estudioan. Harekin etxean bezala grabatzen dugu, eta Jonek gure soinuan duen eragina ere nabarmendu nahi dugu.

Aurreko lanetik hona taldeak garapena izan duela argi dago.

Bai, batetik, abestiak egiterako orduan esperientzia handiagoa dugu; eta bestetik, bi musika tresna berri ere erabiltzen ditugu. Surf instrumentaletik abiatuta, era askotariko estiloak nahasten saiatzen gara, eta geure buruari ez diogu mugarik jartzen.

Diskoak zuzenean grabatu duzue. Zuzenean grabatutako diskoak freskoagoak dira; taldeak zuzenean duen indar guztia diskoan sartzea lortu dugula uste dugu.

CDa kalean duzue dagoeneko, baina biniloan ere kaleratuko duzue lan berria.

Geroago eta binilo gehiago saltzen dira, eta, horrez gainera, musika biniloan entzuteak berez xarma berezia daukara ere uste dugu. Gaur egun, CDa erosten dutenek MP3ra pasatu eta ez dute gehiago CDa erabiltzen. Bestalde, aurreko laneko biniloak CDak baino askoz ere azkarrago saldu genituen.

Zapatuan aurkeztu zenuten lan berria, etxean.

Momentuz, hiru kontzertu lotu ditugu. Lehenengoa zapatuan izan zen Arrasateko gaztetxean; hilaren 25ean, berriz, Arrasaten ospatuko den St. Pauli jaian joko dugu eta ekainaren 1ean, Azkoitiko *Matadeixen*.

IKUSPUNTUA

IKER BARANDIARAN
KAZETARIA |
'ibarandiaran@goiena.com'

Ahots gabe ere, espresabide aberatsa

Bigarren lan honetan arrasatearrek pauso bat haratago eman dute eta gai izan dira surfa parametro rockeroagoetara eraman eta surfaren mantopean beste hainbat estilori lekua egiteko: surf-rock klasikoa (*Xirimiri*), garagea (*Dale fuzz!*), latino eta funkyaeren groovea (*Surfusion*), espioi soinu-bandak (*Dr. Bocanegra*), westernak (*Quetzalcoatl*), baladak (*Cocktel the gambas*), rocka eta bossa (*Come/Escape*) eta psikodelia misterioitsua (*Coche del crimen*), besteak beste.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxea salgai Matienan (Laubideta). Guztiz berriztatua, kalitate handiko altzari eta materialekin. Hegoaldea. 3 logela, bainugela, 18 m²-ko egongela balkoiarekin eta sukalde hornitua, balkoi itxiarekin. Prezioa: 246.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-73 85 52 edo 688-86 18 78. Etorri ikustera!

Abadiño. 98 m²-ko pisua salgai Abadiño Muntzarat auzoan. Bizitzera sartzeko prest dago. Prezio negoziagarria. Tel.: 678-83 60 50.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurre kalean. Aukera paregabea. 70.000 euro. 75 m². Obra egiteko. 645 70 17 21

Cuzcurreta (Errioxa). Pisua salgai Errioxan, cuzcurretan. 3 logela, sukalde, egongela eta komunak. Guztiz jantzia. Garajea. Igerilekua eta belardipribatua. Leku lasaia. Behoko solairua 76 m²-ko terrazarekin. 670-36 03 63.

Durango. Aukera oso ona Durango. Pisu benetan polita salgai, herri erdi-erdian (Madelena auzoan). Leku ona. Bi logela, eskatz berri-berria eta diseinuzkoa. Etxea kapritxoz jantzia dago, altzari onekin. Bi logela, egongela handia eta eguzkitsua, eta oso polita. Nahi izanez gero, garaje/trasteleku eta guzti saltzen da. Etorri ikustera, merezi du. Gustatuko zaizu. Prezio ona. 656-78 10 21.

Elorrio. Elorrio erdialdean 75 m²-ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta 8 m²-ko trasteleku. Sukalde ekipatua. 2 armairu horman sartuak eta igogailua. 230.000 euro. Garajea aukeran. Tel.: 634-45 72 01.

Garai. Oarbeaskoa baserria salgai garaiko San Miguel auzoan. 6. zbk. 300 m²-ko zoru. 10.000 m²-ko lursaila. 8.500 m²-ko belardia, nahiko laua, nekazal turismo, negutegiak edo ortua jartzeko, Hegoalde begira. Berrikuntza behar du. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jantokiak (2) eta bus geltokitik 150 m. Tara. Durangotik 10 minututa. A-8 autopistatik 5 minututa. Udaletxean, proiektua aurkeztuz bifamiliarra egiteko aukera. Tel.: 639-83 34 89. jo.amantegi@gmail.com.

Gasteiz. 57 m² egoera onean kalafakzioa eta ura elektrikoak dira hegoaldera begira 1. Solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu 2 logela 2 komun (biak bainarekin) sukalde (garbigailua, mikroondasa, etab.) balkoia moketa logeletan, parketa egongelan eta baldosak gainontzean banakako garajea, itxiak gordetzeko tokia pisuzina eta belardia urbanizazioaren barnean aurrean plaza bat dauka, kolonpioekin eta b. orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zoru aldatu zenezalarietan Telefonoa: 665-75 78 07. Posta: marian.formigal@gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriandin, Iurretan. 78.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 metro koadroko garajea aukeran. Inigo. 659-72 06 64.

Otxandio. Otxandion 90 m²-ko pisua salgai. Oso eguzkitsua, 4 logela, egongela, sukalde, komunak eta balkoia. Berritua. 150.000 euro. Deitu 675-90 52 27 telefonora.

Urnieta. Pisuederra, 85 m² oso ondo banatua eta oso eguzkitsua. Sala oso ederra (24 m²), sukalde, 3 logela eta 2 bainu, guztiak kanpoaldera ematen dute (bainuak ere kanpoaldera ematen dute). 1998. urtean eraikia. Oso ondo zaindua eta kalitatezko eraikuntza bai kanpotik eta barrutik. Tarima flotante eta kanpoko zurgintza ere egurrezkoa, klimailit sistemarekin. Berogailua gela guztietan (gas naturala). Garajea eta trasteleku aukeran.

Zaldibia. 2008-an eraikitako etxebizitza herri erdian. 81 m². 3 logela, 2 komun, 3 armairu enpotratu, sala, sukalde eta terraza ederra. Garaje itxia bertan. 199.000 euro. Harremantant jartzeko telefono zenbakia: 626-62 37 92.

Zegama. Zegama. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, eta sukalde eta bainugela berrituta. Igogailuarekin. Dena kanpora begira. Garbara ere badauka. 160.000 euro. 653-71 61 55.

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errentan. Berritua. Bi logelakoa. Igogailuarekin. 645-00 89 97, 645-70 80 26.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Jantzia eta egoera onean, bi logela, egongela, sukalde, komunak eta trasteleku. Gasezko berogailu indibiduala. Erdialdean. 605 74 34 39 edo 645 00 90 03

Atxondo. Pisua alokagai atxondan. Berria eta guztiz jantzia. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Tel.: 680-42 77 02.

Bastida. Labastida (Errioxan) pisua alokatzen du igerilekuarekin. Torre-Otxandio urbanizazioan. Paisaia eta bista ikusgarriak. 2 logela, sukalde, sala eta bainugela. Hamabostaldialdiak eta hilabetekoa. Deitu 620-62 92 45 zenbakira.

Berriz. Pisua alokairuan Berrizen. Hiru logela, egongela handia, sukalde handia, despentsa eta bi komun. Deitu 656-78 02 15 telefonora.

Costa ballena (Andaluzia). Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bi bainu eta garajearekin. Hondartzatik oso gertu eta igerileku urbanizazioan. Oso aproposa familian opporak pasatzeko. Deitu zenbakia hauetara: 679-84 62 48 edo 648-03 21 53.

Donostia. Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan uztail eta abuztuan. Prezio interesgarria. 652 76 21 63. Kontxi.

Durango. Pisua alokairuan durango. Leku lasaia. 3 logela eta 2 komun. Berogailu zentrala. Garaje eta trasteleku. Animaliak ez da onartzen. Tel.: 625-70 41 12.

Elorrio. Hiru logela, egongela, sukalde eta komunak. Guztiz jantzia. Etxe argitsua eta ondo kokatua. Tel.: 696-701 345 (19:00etatik 21:00etara).

Elorrio. Bi logela, egongela, sukalde eta komunak, balkoi handi batekin. Behoko solairuan, ganbararekin. Etxebizitza guztia berritua eta altzairuekin. Tel.: 669-39 56 47.

Mañaria. Hiru gelako etxea balkoi handiarekin alokagai. Prezio onean. Tel.: 94-682 41 08 (goizez)

Miarritze. Aireportu inguruan apartamentua ematen da errentan. San Juanetan, Bergarako jaietan zein udarako. 2-4 pertsonarentako egokia. Aparkaleku eta igerileku dauka. 638 89 49 26

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Oñati. Errekalde auzoan. Hiru logela. Argitsua. Hornitua eta jantzia. Igogailua. Garajea ere alokatzeko aukera. Deitu zenbakia honetara: 19:00etatik aurrera. 679-87 87 48.

Otxandio. Etxea alokagai otxandion. Guztiz berritua. Tel.: 605-77 37 21.

Puerto Rico (Kanaria Handia). Apartamentu bat alokatzen dut gran kanariako puerto rico herrian. Bista oso polita ditu itsasora. Astebeterako edo 15 egunerako alokatzen dut. Oso merke. Abuztutik 2013ko martxora arte. Deitu 670-31 12 23 telefono zenbakira.

Sakana. Berria da, 3 gela, 3 komun, 2 terraza eta egongela sutondoarekin. Prezioa 450 euro. Deitu 679- 65 54 70 telefono zenbakira.

Villarcayo (Burgos). Etxea alokatzen da villarcayon. Bi gela, sala, sukalde eta komunak. Tel.: 610-61 52 60

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berritua. Deitu 660-45 87 56 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza behar dugu errentan 2012-13 ikasturterako. Hiru logelakoa, jantzia eta egoera onean. Partikularren artekoa. 685 72 32 50, 639 72 91 50

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa eta aukeran igogailuarekin, edo lehen edo bigarren solairuan. Partikularren artekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 689 45 06 98 eta lfiakirengatik galdetu

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

Durangaldea. Pisu edo apartamentu baten bila nabili durangaldea. Deitu 645-00 96 02 telefonora.

Durangaldea. Durangaldien hutsik dauen etxe edo pisu zahar baten jabe bazara, hona hemen gure proposamena: zure etxebizitza hori konpondu, zaindu eta bizirik mantenduko dogu trukien bertan bizi bageinke. Errenta bazu baten truke be izen leike. Deitu eta zehaztuko geunkez bi aldeetatik baldintzak. 659-99 07 40.

Malaga. Kostaldean etxebizitza hartuko genduke errentan abuztutarako Malagan. 618 90 23 66.

Oñati. Apartamentua behar dut errentan Oñatian. 627 39 98 46

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. 600 31 14 16

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678-73 66 54.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630-71 35 83.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620-52 94 98.

Arrasate. Lau gelako etxea osatzeko gela bat errentan. Langileak bizi dira bertan. Etxea oso eguzkitsua da. 653 71 44 57

Arrasate. Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko erdiguenean. Iñaki. 608-49 89 93.

Berriz. Logela alokagai, baserria konpartituzko. Oñati berriztatua, lur sailarekin eta leku paregabean. Aukeran, nahigo emakumea. Interesatuok deitu hona: 619-66 58 57.

Durango. Logela bat alokatzen da Durango. Tabira auzoan. Tel.: 645-00 96 02.

Zarautz. Pertsona bat behar da Zarautzen pisu bat konpartituzko. Etxea berritua dago. Hiru logela eta terraza handia eta eguzkitsua du. 658 71 66 93

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. 16 m²-ko garaje itxia salgai edo errentan, Irarabari plazan. 659-44 86 79,

Berriz. Garaje itxia salgai berriz. 42 m². Ate automatikoa, komunak, sukalde, txoko eta bodega txikia. Ura eta argia. 3 kotxe sartzeko. 615-75 21 36

304. ERRENTAN HARTU

Aramaion lokala. Aramaioko gazte talde bat lokal bila. Lokala errentan emateko maduz deitu 630 43 31 17 edo 665 75 79 57 telefono zenbakietara.

4. LANA

402. ESKAERA

Aretxabaleta. Emakume euskalduna umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 666-26 07 62.

Aretxabaleta. Emakumea lan desberdinak egiteko gertu: garbiketarako, nagusiak zaindu... 647-10 58 72.

Arrasate. Debagoienan tituludun eta esperientziadun ilea-paintzailea lan egiteko gertu. Makilajea eta manikura ere esperientzia. 629-01 40 33.

Arrasate. Nagusi edo umeak zaintzen lan egiteko nuke debagoienan. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauz edo ospitalean ere bai. Angela. 659-57 93 89.

Arrasate. Nagusi edo umeak zaintzen lan egiteko nuke debagoienan. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauz edo ospitalean ere bai. Elena. 627-60 49 99.

Arrasate. Bertako emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientziaduna. 943-79 60 89.

Arrasate. Neska gertu interna bezala edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen ere bai. 610-68 81 58.

Arrasate. Neska gertu interna moduan edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 689-95 12 83.

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu garbiketarako, nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Ordu-tegi malgua. 671-21 55 26,

Bergara. Emakume bergararra gertu arratsaldetan umeak edo nagusiak zaindu eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-75 41 32.

Bergara. Emakume euskalduna lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-50 25 67.

Bergara. Esperientziadun gizonetako gertu garbiketarako, nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Ordu-tegi malgua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691-72 67 38.

Bergara. Neska gertu etxeko garbiketarako goiz edo arratsalde. 605-51 96 89.

Debagoiena. Neska prest garbiketarako lan egiteko eta baita ere haurrak edo adinezko pertsonak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-04 15 45.

Debagoiena. Gela-zerbitzari tituludun emakumea hotel eta ostatuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671-98 94 34.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu asteburuetan zerbitzari lan egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-57 70 59.

Debagoiena. Mandatuak, portea edo etxeko bisitak egiteko gertu egongo nintzateke, etxe zein baserrietan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-80 16 10.

Debagoiena. Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Deitu 686-29 65 58 edo 943-76 00 54 zenbakietara.

Debagoiena. Gizon arduratsua lanerako prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-62 22 21.

Debagoiena. Autobus gidari, zerbitzari edo fenwick-a erabiltzen lan egiteko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 698-59 37 57.

Debagoiena. Autoen mekanikaria naiz eta lana egiteko prest nago. Bestelako lanak ere egiteko nitzuke. Nere telefonoa: 645-544 325.

Debagoiena. Lan egiteko gogoz dagoen arrasateko 37 urteko gaztea lan desberdinak egiteko prest: margoketa, iturgintza, igeltserotza, lorezaintza, ortu lanak eta abar. 683-42 87 04.

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. 636-77 44 24.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Berahala hasteko gertu nengoke. Asteburuetan ere bai. 689-18 04 12.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen edota atari eta bestelako lanetan jarduteko. Etxean bizitzeko edo bestela. 697-14 61 02.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari lanetan jarduteko. 636-77 44 24.

Debagoiena. Neska gaztea gertu askotariko lanak egiteko: garbiketarako, zerbitzari lanak, etxeko-lanak... Papelak ditu. 686-66 80 63 (Josiane).

Debagoiena. Neska bat eskaintzen da umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko atariak zein bulegoak garbitzeko. 679-30 65 28.

Debagoiena. Neska bat eskaintzen da umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko atariak zein bulegoak garbitzeko. 681-10 92 21.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko arratsaldetan. 610-34 97 88.

Debagoiena. Mutila gertu garbiketarako lanetan jarduteko. Cristian. 662-08 22 03.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean ere. Eskermentuduna. Peoi edo laguntzaile lanak ere egind izaket. Ofimatika ezagutzak ditut. 685-42 72 80.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbitasun lanetan aritzeko. 629-01 40 33.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo zama lanak egiten laguntzeko. 615-72 03 84, 943-04 45 38.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Deitu zenbaki honetara: 680-95 65 57.

Debagoiena. Mutil gaztea nekazaritzan esperientziaduna, baserrietako ortuetan lan egiteko prest. 698-38 00 32.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbiketarako eta bestelako lanetan jarduteko. 671-80 12 89 / 935-16 94 54.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari lanak egiteko, eta garbiketarako eta bestelakoetan jarduteko. 671-84 71 71.

Debagoiena. 25 urteko gaztea arotz lanak edo margoketa lanak egiteko prest. Prezio ekonomikoak 603-61 61 38.

Debagoiena. Gizon arduratsua, pladur montatzaile laguntzaile bezala lan egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-62 22 21.

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketarako lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943-71 53 74, 695-73 87 95.

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen eta garbiketarako lan egiteko prest. Beste-lako edozer lanetan ere bai. 699-07 99 69.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, etxean bizitzaren zain bezala lan egiteko. Ume edo nagusiak zaindu, garbiketarako eta abar. 682-31 97 37.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Egunez zaindu. Eskarmentuduna. Arratsen, Aretxabaletan edo Bergaran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-00 08 28.

Durungaldea. Sukalde laguntzaile edo erikuntza laguntzaile modura lan bila. Tel.: 686-58 67 69

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako lan bila. Interna, externa edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 696-63 95 21.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako lan bila. Interna, externa edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 632-99 96 92.

Durungaldea. Interna edo externa modura lan bila. Nagusien edo umeen zaintzaren edota garbiketarako lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-71 64 42.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzaren zain garbiketarako lan bila. Jardunaldi osoan, orduka, asteburuetan... 3 urtetako esperientzia. 681-21 82 30.

Durungaldea. Interna, externa edo ordukatu garbiketarako prest. Tel.: 634-07 27 38.

Durungaldea. Etxeko lanetarako lan bila, garbiketaren umeen edo nagusien zaintzan. Jardunaldi osoan, erdian, orduka edota asteburuetan. Esperientzia. Tel.: 638-88 98 57.

Durungaldea. Kutxazain, biltegi lanetan, okindegian, harategian edota pastelerian lan egiteko prest. Esperientzia. Nagusien zaintzaren ere, orduka. Geriatriako kurtsua eta administrazioko laguntzaile. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-37 61 88 thelma

Durungaldea. Andra sukaldari laguntzaile modura, nagusien edo umeen zaintzarako edota garbiketarako lan bila. Goizez, gauetz edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono honetara: 678-23 02 66

Durungaldea. Igeltserotzaren, arotzegian, margoketa lanetan edota basoan lan egiteko prest. Txofer bezala ere. Gidatzeko baimena. Esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-25 81 74

Durungaldea. Abeltzaintza, finken zaintzaren edota beste edozein lanetarako prest. Abeltzaintzaren esperientzia handia. Tel.: 669-10 24 12

Durungaldea. Pertsona nagusien zaintzaren, peoi modura, igeltserotzaren... Lan bila. Tel.: 663-62 57 43

Durungaldea. Nagusien zaintzaren, mendiko lanetan, lorezaintzaren, biltegietan edo edozein fabrikaren lan egiteko prest. Esperientzia batez ere mendiko lanetan. Tel.: 646-41 89 07. Santiago

Durungaldea. Basoan, nagusien zaintzaren edota laguntzaile modura aritzeko lan bila. Pape-rekin. Tel.: 681-11 41 62

Durungaldea. Etxeko lanetarako prest, baita ume eta nagusien zaintzarako, bulego edo tabernen garbiketarako... Esperientzia eta erreferentziak. Pape-rekin. Tel.: 648-845 554

Durungaldea. Pertsona nagusien edo umeen zaintzarako, garbiketarako, sukaldariko... Edota edozein fabrikarako lan bila. Lan baimenarekin. Esperientzia eta erreferentziak. 628-34 98 11. Juana

Durungaldea. Neska pertsona nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 660-70 66 18

Durungaldea. Neska nagusien zaintzarako edo sukalde lanetarako prest. Asteburuetan edo gauetz. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 645-89 89 38.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako, garbiketarako zein taberna edo jatetxe lanetarako lan bila. Tel.: 673-55 25 91.

Durungaldea. Pertsona nagusien zaintzarako edota edozein garbiketara lanetarako prest. Externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 630-08 82 97.

Durungaldea. Interna bezala pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 632-33 15 65.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Goizez, arratsaldean, orduka edota asteburuetan. Tel.: 690-68 73 95

Durungaldea. Pertsona nagusien edo umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Interna edo externa. Tel.: 638-42 20 30.

Durungaldea. Pertsona nagusien edo umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Interna edo externa. Tel.: 638-42 20 30.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Gauetz, asteburuetan edo orduka. Interna modura ere. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 681-38 40 24.

Durungaldea. Asteburuetarako edo gauetarako lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzaren. Erreferentziakin. Tel.: 664-73 38 75.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako, portalen, etxeen, tabernen garbiketarako edo beste edozein lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 620-82 85 79.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako lan bila. Gauetz, arratsaldean edo asteburuetan. Tel.: 696-75 35 30. Purificacion

Durungaldea. Neska pertsona nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan ere. Tel.: 660-64 20 89.

Durungaldea. Etxeen, portalen, tabernen... Garbiketarako, ume edo nagusien zaintzarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Pape-rekin. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-17 24 33.

Debagoiena. Neska gertu orduka lan egiteko nagusiak zaintzen, garbiketara edo beste-lakoetan. Tituluduna. Legezko pape-ara ere badit. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-40 64 65.

Durungaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. 24 ordutan edo egunez. Tel.: 632-11 77 23.

Durungaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. 24 ordutan edo egunez. Tel.: 602-00 83 58.

Durungaldea. Gauetz, arratsaldean, goizez edota asteburuetan garbiketarako lanetara ume edo nagusien zaintzaren aritzeko prest. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 690-68 73 95.

Durango. Emakume eskalduna etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675-70 32 61.

Durango. Garbiketaren zain ume edo nagusien zaintzaren lan bila. Lanaldi osoan, orduka edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 618-35 37 18.

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketarako lanetarako eta sukalde lanetarako ere. Tel.: 94-466 82 12 edo 653-33 06 05 (Genevieve).

Durango. Pertsona nagusien zaintzaren, garbiketaren, segurtasunean, lorezaintzaren, okintzaren, gurdigarrariolari... Lan bila. Tel.: 622-47 39 41. Julian.

Durango. Kontabilitateak eramanen esperientzia daukan LADEn lizentziatua, kontabilitatea eramateko eskaintzen da. Tel.: 619-55 52 16

Durango. Neska gaztea, zerbitzari lanak egiteko eskaintzen da, lan-erdi, lan oso edota asteburuetarako, esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32

Durango. Neska gaztea, zerbitzari lanak egiteko eskaintzen da, lan-erdi, lan oso edota asteburuetarako, esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32

Durango. Nagusien zaintzaren, interna modura lan bila. Esperientzia Alzheimerdun eta demenziadun nagusien zaintzaren. Tel.: 630-25 32 25.

Durango. Pertsona nagusien zaintzaren edo garbiketaren aritzeko lan bila. Interna, externa edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 603-95 41 94.

Durango. Pertsona nagusien zaintzarako lan bila. Interna modura. Esperientzia. Tel.: 632-86 92 82.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzaren. Esperientzia eta erreferentzia onak. Tel.: 678-80 96 01.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzaren. Esperientzia eta erreferentzia onak. Tel.: 603-07 13 83.

Durango. Pertsona nagusien zaintzaren edo garbiketaren lan bila. 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia. Tel.: 633-03 86 09.

Durango. Nagusien edo umeen zaintzaren edo garbiketaren lan bila. Lanaldi osoan edo erdirako. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94. Rosa

Durango. Emakume eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Barne-zaintza, kanpo-zaintza, orduka, gauetz edo asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. Tel.: 608-65 90 55 (Nieves).

Durango. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669-32 11 75

Durango. Etxe barrurako edo kanporako lan bila. Nagusien edo umeen zaintzaren edota garbiketarako lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619-15 58 04

Durango. Emakume eskalduna eta arduratsua haurrak eta nagusiak zaintzeko lan bila, baita etxeko lanak egiteko ere. Tel.: 659-08 81 85

Durango. 24 orduz, eguneko edo orduka lan egiteko. Garbiketarako edota pertsona nagusiak zaintzeko. Durango eta inguruetan. Tel.: 628-65 50 31

Durango. Neska gazte eskaldunak bere burua eskaintzen du umeak zaintzeko udako hilabeteetan. Haur hezkuntzako ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-71 62 32.

Durango. Uztailean umeak goizez zaindaturak zaintzeko prest dagoen neska eskaldun bat naiz (24 urte). Deitu: 646-538 390.

Elgeta edo Bergara. Emakume eskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

Iurretza. Pertsona nagusiak zain gaixo daudenak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. 699-74 57 23. Ines.

Lakuntza. Asteazken goizean edo asteburuetan. Tel.: 653-99 80 35.

Zornotza. Lorezaintza, altzairuen muntzia, elektrizitatea edota pintore lanetarako lan bila. Esperientzia baita fundizioan ere. Tel.: 678-21 39 67 (Rafa).

Zornotza. Umeak zaintzeko, jantokietan zerbitzatzeko, garbiketarako... lan bila. Esperientziaduna. Tel.: 688-68 66 08 (Geraxane)

Zornotza. Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia. Tel.: 688-68 66 08 (Geraxane) eta 678-21 39 67 (Rafa)

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Durungaldea. Euskal filologian lizentziatutako neska euskara klase partikularrak emateko prest, maila guztiaren. Gazte zain helduei. Esperientziaduna. Tel.: 686-809 628

Durungaldea. Psikologo eskaldunak ikasketek teknikak eskaintzen ditu. Tel.: 679-38 23 69

Durango. Irakasle eskalduna klase partikularrak emateko prest; Lehen Hezkuntza zain DBH. Tel.: 653-70 20 49.

6. MOTOR

601. SALDU

Autokarabana. Fiat Ducato. Egoera oso onean. 1994koa. 5-6 plaza, 1997 urtekoa, 126000 km, komuna dutxa eta wc-rekin, sukalde, harraska, hozkailua, berogailua, 3 bizkleta eramateko, arkoia, ur zikin eta garbientzako depositoak, beti teiatupean gordea, 18000 euro. Gasteiz. 945-27 00 96.

Autokarabana salgai. Aukeratu autokarabana salgai. 94. Urtekoa. 5 plaza. Egoera oso onean. Ekipamendu osoa. Prezioa: 15.900 euro. Tel.: 671-84 15 63.

Autokarabana salgai. Benimar fiat ducato 1.9td salgai, 5 plaza, 1997 urtekoa, 126000 km, komuna dutxa eta wc-rekin, sukalde, harraska, hozkailua, berogailua, 3 bizkleta eramateko, arkoia, ur zikin eta garbientzako depositoak, beti teiatupean gordea, 18000 euro. Gasteiz. 945-27 00 96.

Audi A4 salgai. Audi A4. Diezela. 2003 urtekoa. 160.000 km. Oso egoera onean. Tel.: 673-49 36 39.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Astoak salgai. 2 asto eme salgai. 3 urtekoak eta txikiak. Tel.: 616-919 061

Bildotsak eta ahuntzak salgai. Gorbeaiko elaietan hazitakoak. Ardi latxa arrazako bildotsak, jaioberriak. Ahuntzak azpigorriak. Tel.: 94-633 0574 edo 690-73 27 01. Maximo

Borde collie. Hiru hilabete borde collie bat saltzen da. Hiru hilabete borde collie bat saltzen da, oso polita da. 653-71 38 15,

Perikoak salgai. Oso prezio onean. 688-65 21 49.

Seter txakurkume ehiztariak salgai. Seter txakurkume ehiztariak salgai. 150 euro. Telefonoa: 695-71 00 68

703. EMAN

Arratoi txakurrak opari. Arratoi txakurrak oparitzen dira. Tel.: 656-74 34 57

Txakurkumeak oparitzen dira. Labrador arrazako hirukume ar etxe bila dabilta. Martxoaren 2an jaiotzen. Ondo zainduko duen/dituen pertsonarik badago, email bat bidal dezala ondoko helbidera: mzu-bizaga@yahoo.es

Txakurra opari. Arratoi txakur bat oparitzen da. 645-71 48 59

704. BESTELAKOAK

Brako ertaina gurutzatzeko. Brako ertain eta kolore ilun baten bila gabiltza gure txakurrekin gurutzatzeko. 617 29 59 65

8. DENETARIK

801. SALDU

Almirante trajea. Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 200 euro, negoziagarri. 618 00 08 28,

Anplifikagailu salgai. Alvia acoustic 25c anplifikagailu salgai, interesatuak: 686 61 35 52 edo 943 53 27 20

Aumak ederrak salgai. Bizirik 5 euro/kg. Hilda 10 euro/kg. Telefonoa: 667-93 93 70 20:00etatik aurrera deitu.

Bernedo. Lursail eraikigarria urturin salgai dago, Bernedo. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minutara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursaila eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665-75 78 07 (Ana)

Bizikletarako umeen aukia salgai. Bizikletarako umeen aukia salgai. Ume txikia atzean eramateko, eroso. Oso gutxi erabilia, eta merkea. Tel.: 648-63 58 06

Bizikletarako umeendako aukia salgai. Umeak bizikletan eramateko aukia salgai. Etzan eta siesta egiteko ere erabil daiteke. 647-58 40 73.

Bizikletarako umeendako aukia salgai. Umeak bizikletan eramateko aukia salgai. Etzan eta siesta egiteko ere erabil daiteke. 647-58 40 73.

Bikientzako gurditxo bi salgai. Bikientzako gurditxo bi salgai. McClaren eta Yanet markakoak. 94-682 41 08 (goizez).

Bularretik esnea ateratzeko. Philips avent markako esnea ateratzeko tresna elektriko salgai. Eskuz ere erabil daiteke. Esnea gordetzeko hainbat poterekin. Martxo amaieraren 80 euro. Deitu 635-12 87 82 edo 615-73 58 38 telefono zenbakietara.

Bulego altzariak. Bulegoko altzariak salgai: mahaiak, aukiak, batzar gela... Egoera oso onean daude. Tel.: 656-73 77 79.

CDak salgai. laberriak 6 Euroan. La Polla Records (6CD), Serrat (5 CD), Gari Moore, Vomito, Manu Chao, Jarabe de palo, Prince, AC/DC... Eta beste asko. Emmanuel Lantxas. 699-77 86 38.

Casualplay s6 karrotxo salgai. Casualplay s6 karrotxo salgai. Kapazua, prima easy arrautza eta karrito saltzen du. Euritarako 3 burbuila eta bizkua oparitzen dira. 275 €. Ikusi konpromisua barik. Deitu 618-21 38 62 zenbakira.

Ileapaindegiko produktu profesionalak salgai. Tintea, dekolorazioa, ilearen erorketa sahisteko anpollak. Deitu 696-57 70 54 (Itziar).

Isolatzaila salgai. Isolatzaila (kortxo beltza) salgai Elorrion. Teilatua, paretak eta lurra aislatzeko balio du. Prezioa negoziagarria da, eroandako kopuruaren arabera. 661-82 93 59.

Karrodenda salgai. Karrodenda. Wolder-tuareg salgai. Zabalteko eta jasotzeko oso erraza. Gutxi erabilia, 2008koa. Udako toldoa du eta 3 bizikleta eramateko gertatua. 678-90 86 30.

Labeska eta argi-lanpara salgai. Kanpango labeska (su txikia) eta argi-lanpara saltzen ditut, behin ere erabilgabe daude. Bakoitza bere bonbona urdin txikiarekin, bonbonak beteta daude. 50 €. 692-71 85 00.

Lehorgailu salgai. EVCR-1980 Ecron lehorgailua. Oso gutxi erabilia. 60 €. 94-658 25 31.

Mp4a salgai. Mp4a. 4gbkoa. Screen, Slot Micro SD, 16 orduko bateriarekin, usb eta fm irratia. Berria, estreinatzen 7an. Oxo etxekoa. Jaso duenak deitu mesedez telefono honetara: 699-86 17 79.

Ohe elektriko salgai. Pertsona ezinduentzako, ospitaleen motako ohe elektriko saltzen ditut. Berri-berria. Akaroen kontrako koltxoia, oheburuko eta segurtasun barra. Mandoak zortzi botoi ditu. Lurretik 30 cm-tara jaitsi daiteke eta 95 cm-tara igo. Ikusi, konpromiso gabe. 700 €. 636-43 00 20.

Piragua. 3,50m luze den piragua salgai kubrea eta palagaz. Kirol honetan hasterako egokia. 635 75 20 08

Relax besaulki salgai. Pavia modelo. Etzan egin daiteke eta zuti jartzen laguntzen du. Astebe-te bakarrik erabilia. 500 €. (Debagoienan). 670-43 16 62.

Silofia eta perkusioa salgai. Honsuy markako silofia edo perkusioa salgai. Prezio onak: 50 €. 94-681 25 58. Ander.

Txirindulari zapatillak salgai. Txirindulari zapatillak salgai. Northwave evolution fbs leopard-trek. 43 zenbakia (27,5 cm-ko plantilla). Ia berriak (3 aldiz erabilia). Prezioa: 125 euro. 626-46 44 22. Mikel.

Umeak eramateko kid-sit salgai. Berri-berri dagoen Kleine Dreumes markako kid-sit bat saltzen du. Umeak eramateko aukian, bigarren ume bat eratzasunez eraman nahizenez gero oso aproposa da. 619-55 52 16.

802. EROSI

Baby Jogger City Mini. Baby Jogger City Minirako kapazua erosiko nuke. 652 71 74 49

Bugaboo bee. markako umearendako karroa erosiko nuke. 645 00 98 09

Bugaboo Bee. Bigarren esku-ko bugaboo bee-a erosiko nuke. 678 04 56 05

Zilarra erosten ditut. Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu: 657-70 43 16. Posta: numipega@gmail.com.

803. EMAN

Bidali zure ordenagailu Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviara eskolentara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskolentara. Tel.: 655-71 76 66.

806. GALDU

Estutxe beltza baso galdu. Baso lanerako tresnak dituen estutxe beltza galdu nuen joan den astean asentzio mendi azpian. Beltza da eta oinarri zirkularra du. Topatuz gero mesedez deitu zenbaki honetara: 663-72 77 68 edo 629-73 30 28.

Patinetea galdu.

'App' eskaintza uholdera batu da Facebook ere

Aplikazio denda-plataforma berria martxan jarri du Facebookek, web ala aplikazio bidezkoa




Dendaren itxura, webean eta mugikorrean. | ALT1040.COM

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Spartan zeritzon poriketu batekin eman zituzten lehen arrastoak orain urtebete. HTML5ean eraikitako aplikazio eta jokuen denda izango zela esaten zen bere garaian eta azkenean esames guztiak bete eta plataforma berria aurkeztu berri dute *App Center* izenarekin. Sare sozialak dituen milioika erabiltzaileak kontuan hartuta eta haien erabilpen ohiturak ere ikusita, agerikoa da garatzaileek erakutsi duten interesa.

Denda barruko denda

Aplikazio baten barruan legokeen denda bat eskaintzen du Facebook-ek eta aplikazio horiek, bide horretatik, bestelako aplikazio denden arau zorrotzetatik izango ez luketen aukera izango dute orain garatzaileek. Facebook barruko aplikaziotik gainera App Store ala Android Market-erako loturak ere eman ahalko dira. Momentuz Draw Something, Pinterest, Spotify ala Viddy moduko aplikazioak aurki daitezke Facebooken *App Center*-ean baina espero da datozen asteetan, aurkezpen ofizial eta handi batekin, ezagutzera eman eta bestelako aplikazioei zabalduko diotela plataforma berria. Nabigatzailetik eta Android eta Apple-eko aplikazioetatik sarti ahalko da denda berrira.



Aplikazioaren pantaila irudi bi. | TUME

WhatsApp eta Viber-en alternatibarekin aurrea hartu du Telefonikak

J.B. | ARRASATE

WhatsApp moduko mezularitza aplikazioek orain arte operadoreen eskusiba ziren mezularitza zerbitzuetaz jabetu eta irentsi egin dute merkatua. Konpainia handiek baina prest daukate erantzuna eta Telefonikak *Tu Me* delako aplikazioa aurkeztu du, doakoa publikitatearekin, eta, momentuz, Apple-eko iOS-arentzat soilik.

Zerbitzuen batuketa

Mezuak jaso eta bidali, deiak egin, fitxategiak partekatu eta bideo eta lokalizazioak bidalzeko aukera ematen du *Tu Me*-ek. WhatsApp eta Viber moduko aplikazio ezberdinen batuketa bat da, hortaz. Honekin, Vodafone-ek dagoeneko prest daukan Joyn zerbitzuari aurrea hartu dio Telefonikak eta guztietan lehena izan da.

Foursquare monetizatzen plana aurkeztu dute

Kupoi eta bilaketen emaitza pertsonalizatuak eskainiko dituzte uztailetik aurrera

J.B. | ARRASATE

Poliki-poliki aldaketak eginez eta zerbitzua zabalduz, Foursquare-ek ere egin du bere bidea lokalizazio sareen artean. Sortzaileen helburua orain errendimendu ekonomikoetan gehiago pentsatu eta sistemaren monetizazio moduetan pentsatzea da, konpainiako CEO eta sortzailea den Dennis Crowlyk aurreratu duenez. Pertsonaliza-

tutako kupoiak izango dira etekinertarako bidea.

Kupoi bereziak

Check-in delakoan bitartez egingo dira beharpen deskontuak eta *check-in* kopuru batera helduzan eskainiko zaizkio deskontu pertsonalak erabiltzaileari. Sistema honekin oso gertutik atzetik dabilzkion Yelp eta Groupon



Foursquare-ren irudietako bat. | GENBETA.COM

lehiakideei aurre egingo die Foursquare-ek. Bilaketen emaitzetan ere berrikuntzak egitea da asmoa ze orain arte emaitzak

berdinak ziren bilaketaren araberako emaitzak eskaintzen hasiko dira.

Spotify-k ligatzeko aplikazioak kaleratu ditu

Gustu musikalen araberako pertsona iradokizunak egiten dituzte Tastebuds eta Fellowdy 'app'-ek

J.B. | ARRASATE


Spotifyren etapa berri honetan aplikazio eta gehigarriek sekulako bizitasuna eman diote hasiera baten sarean musika entzuteko tresna hutsa zenari.

Erabilpen berrien artean ligatzeko aukera ere gehitu behar zaio orain, aplikazio berriak erabiltzailearen musika gustuak kontuan hartuta "gustatu" lekio-

keen jendea iradokizun baitzaizkio zerbitzu berri batekin.

Tastebuds

Aplikazio Spotify-ri gehitu eta entzuten den musika eta egindako zerrenden arabera gustu antzeko erabiltzaileak bilatzen ditu Tastebuds izeneko aplikazioak. Erabiltzaileen artean mezuak eta musika iradokizunak trukatzeko



Aplikazioaren pantaila-irudi bat. | SEOKID.COM

aukera ematen du eta abesti zerrenda zehatzen bitartez ere egin daitezke bilaketak. Emaitzak adin, genero eta kokapen adie-

razita filtratu daitezke. Fellowdy izeneko aplikazioak ere gauza berdina egiten du eta *flirt* direlako keinuak bidali.

VLC programak, 1.000 miloi deskargatik gora

Bideoa eta audioa jotzeko programa aske ezagunak 1.000 miloi deskarga baino gehiago izan ditu 2005etik. Irabazi asmorik gabeko Videolan erakundea da proiektuaren atzean dagoena eta eurek jakinarazi dute zifra ikusgarri hori. Windowseko erabiltzaileak dira gehienak.

Artxiboak trukatzeko aukera, Facebooken

Taldeetako kideak diren erabiltzaileek euren artean fitxategiak trukatu ahal izango dituzte Facebooken bertan. Taldeko muga 25 MB-ekoa da. Aurreko astean hasi ziren zerbitzu berriarekin eta poliki-poliki erabiltzaile guztientzat egongo da erabilgarri datozen asteetan.

ACTA legea onartzea zail ikusten dute Batasunetik

Nazioarteko mailan egile eskubideak defendatzeko asmoarekin atera nahi duten legea onartzea zail ikusten dute Bruselatik. Agenda Digitelako Europako komisarioak dio Batasuneko legeak urratzen dituela legeak.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON



Sautrela ez da Athletica

UEFAko finalaren egunean idazten ari naiz lerro hauek eta egun aproposagorik ez dago Joxemari Ostolazak Argian idatzitako artikulua lerro hauetara ekartzeko, Sautrelaren heriotzaren inguruan.

Luze hitz egiten aritu gara Athleticmaniaz azken egunotan, benetan ere, ukatu ezin den fenomeno soziala dugu. Eztabaidak, baina, beste bide moralistago batzuk hartu ditu, eta desadostasunak egon dira Athleticari aitortzeko masak eta audientziak mobilizatzeko duen gaitasuna.

Zortez ala tamalez, telebista-agenda erabakitzeke eskubidea aspaldi galdua dugu eta Sautrela izan da azkenengo biktima. Apirilaren 8an emititu zen azken saioa, eta literaturak ez du ordezkorik aurkitu telebista publikoan.

Erabakiak erabaki, heriotza honek ez du altxamendu sozialik eragin; pentsatzeak ere surrealista dirudi. Ondo azaltzen du arrazoia Ostolazak: "Euskara ez da UEFA, bere literatura ez da futbola, Alberto Surio ez da Rodolfo Ares, ETB ez da Ertzaintza, euskal idazleak ez dira Athletica."

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 14	MARTITZENA, 15	EGUAZTENA, 16	EGUENA, 17	EGUBAKOITZA, 18
12:30 Magazinea	12:30 Magazinea	12:15 Magazinea	12:30 Magazinea	12:30 Magazinea
13:30 Zorion Agurrak	13:25 Zorion Agurrak	13:00 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak
13:35 Onein	13:30 Harmailatik	13:05 Harira	13:20 Ekogune	13:20 Gipuzkoa kultura
14:05 AsteON	14:15 AsteON	13:35 Beranduegi.tv	13:50 Ikusmira	13:50 Onein
14:40 Zorion Agurrak	14:45 Berriak	13:53 Azpeiti Rallysprint	14:15 Hamaika.bit	14:22 Planik bai?
14:45 Berriak	15:05 Eguraldia	14:28 Erreportajea: Alzheimerra	14:45 Berriak	14:42 Berriak
15:05 Eguraldia	15:10 Zorion Agurrak	14:46 Berriak	15:05 Eguraldia	15:02 Eguraldia
15:10 Ur eta lur	15:15 Harmailatik	15:06 Eguraldia	15:10 Ikusmira 1	15:07 Planik bai?
15:34 Erreportajea	16:00 Onein	15:11 Gipuzkoa kultura	5:35 Azpeiti Rallysprint	15:17 Bizitegia
16:16 Ikusmira	16:21 Azpeiti Rallysprint	15:41 Onein	16:10 Erreportajea	15:47 Berbaz
16:40 Zorion Agurrak	16:56 Berriak	16:08 Berbetan	16:52 Berriak	16:47 Berriak
16:45 Berriak	17:21 Eguraldia	16:43 Berriak	17:12 Eguraldia	17:07 Eguraldia
17:05 Eguraldia	17:24 Bizitegia	17:03 Eguraldia	17:15 Walker	17:12 Planik bai?
17:10 Ikusmira	17:54 Harmailatik	17:06 Harmailatik	17:45 Ur eta lur	17:32 28.Klip
17:35 Onein	18:37 Walker	17:49 Ikusten	18:25 Ekogune	17:58 Harira
17:56 Berbaz	19:07 Hamaika.bit	18:44 Ekogune	18:55 Berbetan	18:28 Berbetan
18:56 AsteON	19:39 Beranduegi.tv	19:14 Gipuzkoa kultura	19:28 Planik bai?	19:03 Beranduegi.tv
19:31 Ikusten	19:56 Berriak	19:44 Zorion Agurrak	19:48 Berriak	19:22 Zorion Agurrak
19:43 Zorion Agurrak	20:16 Eguraldia	19:49 Berriak	20:08 Eguraldia	19:27 Berriak
19:48 Berriak	20:19 Magazinea	20:09 Eguraldia	20:11 Magazinea	19:47 Eguraldia
20:08 Eguraldia	21:04 Berriak	20:12 Magazinea	20:51 Planik bai?	19:52 Planik bai?
20:13 Magazinea	21:24 Eguraldia	20:50 Lehiaketa	21:11 Berriak	20:12 Harira
20:58 Berriak	21:29 Harira	21:00 Berriak	21:36 Eguraldia	20:42 Berriak
21:23 Eguraldia	21:59 AsteON	21:20 Eguraldia	21:39 Hamaika.bit	21:02 Eguraldia
21:28 Harmailatik	22:29 Magazinea	21:23 Magazinea	22:11 Gipuzkoa kultura	21:07 AsteON
22:13 Magazinea	23:14 Azpeiti Rallysprint	22:01 Ekogune	22:41 Planik bai?	21:37 Berriak
22:58 Harmailatik	23:49 Berriak	22:31 Harira	23:01 Magazinea	21:57 Eguraldia
23:43 Berriak	00:14 Eguraldia	23:01 Berriak	23:46 Berriak	22:00 Planik bai?
00:08 Eguraldia	23:14 Azpeiti Rallysprint	23:26 Eguraldia	00:11 Eguraldia	22:10 Ikuskizuna: Lobak
21:28 Harmailatik	00:14 Eguraldia	22:01 Ekogune	00:16 Planik bai?	23:50 AsteON
22:13 Magazinea	23:49 Berriak	22:31 Harira	21:39 Hamaika.bit	00:20 Planik bai?
22:58 Harmailatik	00:14 Eguraldia	23:01 Berriak	22:11 Gipuzkoa kultura	21:02 Eguraldia
23:43 Berriak	23:14 Azpeiti Rallysprint	23:26 Eguraldia	22:41 Planik bai?	21:07 AsteON
00:08 Eguraldia	00:14 Eguraldia	23:26 Eguraldia	23:01 Magazinea	21:37 Berriak
			23:46 Berriak	21:57 Eguraldia
			00:11 Eguraldia	22:00 Planik bai?
			00:16 Planik bai?r	22:10 Ikuskizuna: Lobak
				23:50 AsteON
				00:20 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

Aurtengo 'Mundumira' jaialdiari buruzko berri guztiak

Datorren asteburuan ospatuko den Mundumira musika eta kultura ekitaldiaren inguruan jardungo dugu 107.7ko uhinetan. Egubakoitzean antolatzaileekin berba egingo dugu, besteak beste, eta kamiseta solidarioak zozketatuko ditugu saioan parte hartzen duten guztien artean.

'Erregea eta bufoia' antzezlanerako sarrerak zozketan

Txatxilipurdik kaleratu duen gazteei zuzendutako Sua karta joko eta *Erregearen Bufoia* antzezlanerako sarrerak zozketaren zakuan izango dira. Zozketan parte hartu nahi baduzu: deitu ezazu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat irratia@goiena.com edo [@arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena)-ra. Zorte on!

'Goazen plazara' ekimenaren berri gure uhinetan

'Goazen plazara' ekimena egingo dute 19an Arrasaten, eta xehetasunak eta nondik norakoak jasotzeko aukera izango duzu *Igo autobusera!* irratsaioan. Horrez gain, astero bezala, astean herrian izango diren zerbitzu eta gertakizunen berri emango dizuegu. Elkarrizketak eta musikaz gozatzeko aukera ere izango duzu 107.7ko uhinetan.

TELE-ALBISTEAK

Garaiko eta bertako produktuak bergagai 'Ekogune' saioan

Eguaztenan, 22:01ean, 'Basherri' izeneko ekimenaren gainean jardungo dugu.

AKETZ ZUBIA | ARRASATE
Etzi, eguaztena, garaiko eta bertako elikagaiak izango dira protagonista *Ekogune* saioan. *Basherri* ekimenari buruzko erreportajea ikusteko aukera izango duzue. Mugimendu honen inguruan jardungo dugu, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko salerosketa zuzena bultzatzen dute. Hau da, bitartekaririk gabekoa bultzatzen duen ekimena da *Basherri* deiturikoa.



Bergarako Basherri taldea.. | BERGARAKOBASHERRITALDEA.BLOGSPOT.COM.ES/

Oscar Rodriguez legebiltzarkidea izango da 'Harira' saioan

PSE-EEko legebiltzarkide arrasatearra elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak

A.Z. | ARRASATE

Aste honetan, martitzenean, Oscar Rodriguez PSE-EEko legebiltzarkide arrasatearra gonbidatzen dugu *Harira* izeneko saiora.

Gaurkotasun politikoaren gainean eta Legebiltzarreko jardunaz arituko da alderdi sozialistako politikaria. Euskadiko popularrek sozialistekin gobernu ituna hautsi izana, balizko hauteskundearen aurrepena, gaur egungo egoera politikoa, Patxi Lopezen jarduna eta bestelako gaiak jorratuko dituzte legebiltzarkideak eta Eneko Azkarate aurkezleak.



Oscar Rodriguez legebiltzarkidea.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Unax Gartzia Dorronsoro
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak, *wapeton!* Muxu potolo bat Shane eta etxeko guztien partetik! Muak!



BERGARA
Anartz Asula Errezil
Maiatzaren 19an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat amatxo, aitaxo eta familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto igaro egun berezia eta bazkarian. 9 patxo potolo-potolo eta belarri tirakada handi bat, etxekoan, aitaxo, amatxo eta Marenen partetik. Muxutxuek!



BERGARA
Iker eta losu Gorriti Bengoa
Maiatzaren 18an, 15 urte. Zorionak, bikote. Segi horrelakoak izaten eta muxu potolo mordoak etxekoan eta bereziki Ziortza eta Endikaren aldetik.



ARRASATE
Unai Lopez Ormaetxea
Maiatzaren 18an, 40 urte. Zorionak, tio Unai! Berrogeitona zarea gogoratu! Bazkarian amatxoren "age perfect"-a utziko dizugu, egon lasai! Muxu potoloak etxekoan eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik. Laztan bat!



ARAMAIO
Rafa Alonso Esquina
Maiatzaren 17an, 45 urte. Zorionak, tio Rafa! Ederto pasatu eguna Aramaion. Muxu zaparrada potolo-potoloak, etxekoan eta bereziki loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, mutikote!



OÑATI
Aimar Osa Jimenez
Maiatzaren 16an, 3 urte. Zorionak eta ondo pasatu etxeko guztien eta bereziki Juneren partetik.



OÑATI
Miren Leibar Agirrezabal
Maiatzaren 15ean, 13 urte. Zorionak, neskato. Patxo handi bat amatxo, aitaxo eta Malenen partetik.



ARETXABALETA
Oinatz Iturbe Murgiondo
Maiatzaren 14an, 6 urte. Zorionak, mutiko handi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danan partetik.




BERGARA
Harkaitz Ilarduia Arteaga
Maiatzaren 14an, 3 urte. Zorionak, Harkaitz! Kamioikada bat patxo etxeko danon partetik, mutil handi!



OÑATI
Lur Biain Aranburuzabala
Maiatzaren 14an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Jarraitu oin arte moduen, irribar horrekin! Pa!



ARRASATE
Uhaiitz Apraiz Arabiourrutia
Maiatzaren 14an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxekoan partetik. Oso ondo pasatu eguna eta gaur ere jantzi astokiloa.




ARRASATE
Aitor Auzmendi Berezibar
Maiatzaren 14an, 2 urte. Zorionak, bihurri! Patxo handi bat etxekoan partez eta gaur parkera, salto-salto eta izozkia zuretako! Ondo pasatu egune! Pa!



BERGARA
Uxue Arenaza Bergaretxe
Maiatzaren 13an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familia danare, eta batez ere, Unai, Naroa eta Ekainen partetik.



ARRASATE
Lur Bengoa Zubizarreta
Maiatzaren 13an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeko guztien partetik.



ANTZUOLA
Irati Sodupe
Maiatzaren 11n, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat etxekoan eta batez ere Izadiren partetik!



ARRASATE
Ibai Ormaetxea Ezpeleta
Maiatzaren 11n, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familia danaren partetik. Aupa rugbylari!



BERGARA
Ion Agiriano Larrion
Maiatzaren 11n, 8 urte. Zorionak etxeko guztien eta bereziki, Maitane arrebaren partetik!



ARETXABALETA
Laida Eraña Larrea
Maiatzaren 11n, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Belarritik tirakada handi bat eta muxu pila-pila bat! Familixa danon partetik!



ARRASATE
Ximun eta Hur Leturia Lete
Maiatzaren 11n, 10 urte. Zorionak, bixoi! Ximuni garaiz, Hurri piska bat berandu, baina tira... Oretetako bi Arrasatear jatorreari zorionak eta mila patxo! Naroa, Jon, Noa, Garazi, Libe eta familixa danan partetik.



ARETXABALETA
Aitzolek eta Ange
Maiatzaren 10ean, Aitzolek 9 urte eta Angek urtebete. Zorionak bixoi! A ze parea! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunien. Muxu handi bana familixako guztien partetik.



ARETXABALETA
Martin Bereziartua Altube
Maiatzaren 10ean, 4 urte. Zorionak, mutiko handi! Eta patxo mordo-mordoa lehengusu guztien partetik.



ESKORIATZA
Garbiñe Beitia
Maiatzaren 10ean, urtebetetzea. Zaletasunez beteriko Maringo neska(tila) jatorrenari zorionak eta patxo handi bat! Peñia Karapaixo.




OÑATI
Josune Kortazar Arejolaleiba
Maiatzaren 10ean, 35 urte. Zorionak, amatxo. Muxu potolo bat eta jarraitu oin arteko moduko amatxo ona izaten. Asko maite zaittuen loritz, Garazi eta aitaxo.



ARETXABALETA
Maddi de Cesero Eraña
Maiatzaren 10ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat gure printzesarri etxekoan partetik.




OÑATI
Maite Kortazar eta Uritz Guridi Kortazar
Maiatzaren 10ean. Zorionak tia pirula eta sorgintxo zuen 35 eta 2. urtebetetzeetan! Bihotz-bihotzez patxo potolua eta besarkada handi-handixa zuendako. Joritz eta Garazi.




OÑATI
Xabi Irizar Freire
Maiatzaren 9an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.




BERGARA
Eder Elkoroberezibar Rivas
Maiatzaren 9an, 9 urte. Zorionak etxeko printzesa politari. Oso txintxo zarelako, muxu handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
Haizea Oلابarria
Maiatzaren 9an, 4 urte. Zorionak, *tomatexa...* muxu potolo bat Jone eta Gorkaren partetik.



ARRASATE
Ivan Gomez Martins
Maiatzaren 8an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetzea!



BERGARA
Julen Otero Larrañaga
Maiatzaren 8an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu pilo bat etxeko guztien partetik. Ondo-ondo pasatu.



BERGARA
Erik Gartzia Perez
Maiatzaren 8an, urtebete. Zorionak, potxolo, zure lehen urtebetetzean! Patxo handi bat Ane, Jurgi, Elene eta familia guztiaren partetik!




OÑATI
Uxue Osinaga
Maiatzaren 8an, 11 urte. Zorionak, polittori! Merezitako moduko egun on eta polita pasatu! Eta ospatuko danon artian ahalik eta onduen! 11 patxo erraldoi egun berezi honetarako, *rubia!*



ARRASATE
Eider Amurrio Sáez
Maiatzaren 7an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat Jon Ander, Josu eta Jokinen partetik.




ARETXABALETA
Alba Mier Pavon
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak, potxolin! Oso ondo pasatu zure egunean festa handiarekin! Gero Disneyland Parisera joango gara ospatzeko. Zuhaitz, ama eta etxeko guztien partetik, zorionak zure laugarren urtebetetzean eta muxu handi bat.



ARETXABALETA
Maialen Diez Castro
Maiatzaren 7an, 9 urte. Zorionak, polit hori! Eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Haizea Laskurain
Maiatzaren 6an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat familia guztiaren eta bereziki Unai, Aiaitz eta Eñauten partetik.



ARRASATE
Alejandra Zaldunbide Mallabia
Maiatzaren 3an, 102 urte. Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetzea ospatzen. Zure 11 birloben, bidean dagoen birloba berriaren eta 5 loben partetik, zorionak eta musu handia!

Zorionak!

Internet
Sar zaitzez goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitzez GOIENAKo ordezkari zure batera.

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

MEZA

**Giomar
Fernandez Agirre**

—Goian bego—

2012ko maiatzaren 12an hil zen, 35 urte zituela.

Haren arimaren aldeko
hileta elizkizuna gaur,
astelehena, maiatzak 14a,
19:00etan, Bergarako
Santa Marina elizan.Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

JAIOTAKOAK

**Aiur Lezeta Iturralde**Bergara. 3,770Kilo. Maiatzaren 2a.
Gurasoak: Ane eta Jesus Mari. Argazkian, Aiur amarekin.**Oxel Aldalur Zuazua**Aretxabaleta. 2,810Kilo. Maiatzaren 6a.
Gurasoak: Mirian eta Borja. Argazkian, Oxel amama Linarekin.**Xanet Aramburu Isasmendi**Olaberria. 4,300Kilo. Maiatzaren 7a.
Gurasoak: Lorea eta Unai. Argazkian, Xanet sehaskan bapo lo.**Pello Elu Urien**Abadiño. 4,140Kilo. Maiatzaren 7a.
Gurasoak: Jaione eta Aritz. Argazkian, Pello ama eta anaia Xabierrekin.**Enaitz Pastor Alonso**Aretxabaleta. 3,710Kilo. Maiatzaren 7a.
Gurasoak: Ainara eta Aitor. Argazkian, Enaitz aitaren besoetan.**Unai Mendieta Rodriguez**Bergara. 2,660Kilo. Maiatzaren 9a.
Gurasoak: Asun eta Mendi. Argazkian, Unai sehaskan.**Haizea Kortazar Moreno**Atxondo. 3,700Kilo. Maiatzaren 10a.
Gurasoak: Goizane eta Kimetz. Argazkian, Haizea saheskan lo.**Helene Morales Perez**Aretxabaleta. 2,900Kilo. Maiatzaren 9a.
Gurasoak: Nerea eta Ivan. Argazkian, Helene aitarekin.**Acram Elaissati**Arrasate. 3,240Kilo. Maiatzaren 10a.
Gurasoak: Tamimount ban Omar eta Said. Argazkian, Acram sehaskan lo.**Jon Altube Porras**Arrasate. 3,900Kilo. Maiatzaren 10a.
Gurasoak: Almudena eta Andoni. Argazkian, Jon jaioberria.

BABESLEA

Egunero eskaintza bat*

70eko deskontua familia ugariarentzako

Arropa eta zapaketan


tipi tapa

Oinetakoak

Arropa

Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.esJarrailu
gaitzazu
Facebooken:

* Maiatzaren 15etik 26ra

Maiatzaren 25ari zain egon barik...

Pasa berri dena ez da aste erreza izan zuri-gorriendako. Gauzak horrela, ez dirudi iragarki honek grazia gehiegi egingo dienik.
www.facebook.es



"Nire gurasoek bazekiten ni ez nintzela mutiko normala".

TIM BURTON | ZINE ZUZENDARIA

Eskerrak, ez zutela Burton normaltzeko ezer egin. Izan ere, horrela egin izan balute, baliteke mutiko normaldua handitu eta heldu normala bihurtzean, *Big Fish* edo *Eduardo Manostijeras* bezalako maisulanak egiteko gai ez izatea. Eta hori bai ezin dela onartu.
www.larazon.es



Max. 21°

Min. 8°

Eguzki giroa gailenduko da. Ipar-ekialdeko haize ahula ibiliko da.
euskalmet.net

goiena

2012-05-14

Natxo de Felipe Mediku izateko bidean zegoen bilbotar honen izena Oskorriri lotuta entzun dugu beti; egubakoitzean, The Pub Ibiltariarekin egongo dira Elgetan. Etorkizuna baina, beltza da... | TXOMIN MADINA

"Ez gure erabakiz, baina uste dut Oskorri gabe geratuko garela"


1. Elgetakoa, Oskorriren zenbatgarren kontzertua izango da?
Kontua zeharo galduta daukagu. 40 urtetan plazatan ibili ostean, 2.000 izango dira akaso, baina ez dugu kontua eroaten.

2. 41 urteren ostean, gogo berarekin igotzen da bat agertokira?
Horrela da; lanbide honetan grina edo emozio hori galduz gero, hobe etxean geratzea. Agertokietan jarraitzen badugu da antzina bezala oso ondo pasatzen dugulako; hori da gure zortetik onena, lana plazerra bihurtzea.

3. Hastapen horietako zer botatzen duzu faltan?
Gauzak nahasi samar zeuden, musikarekin batera beste gauza batzuk ere jokoan zeuden. Kantaldietan su handia nabaritu arren, denbora grisak ziren. Ez zegoen behar besteko askatasunik eta kontzertuetan -eta sentimenduak adierazteko modua bilatzen zuen jendeak. Gauzak bere onera etorri dira.

4. Musikan lehen urratsak, eliza munduan eman zenituen...
Lehen pausuak etxean eman nituen, musika giro handia zegoen-eta. Lehen pausu profesionalak, lehen eskola, kantua bidez izan zen, Bilboko katedraleko kantaria izanda.

5. Mediku ikasketak jarraitu izan bazenitu, non egongo zinateke orain?
Ez nintzateke izar bat izango, baina mediku on bat bai. Hura gustuko nuen arren, askoz gustukoagoa dut egiten dudana.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Denak zeregin artistikoetan"

"Euskaldun bakoitza bere zeregin artistiko edo kreatiboan jarriko nuke: idazten jaioa dena idazten, pintatzeko balio duena pintatzen, musikariak musika egiten... Horrela hobeto biziko ginateke. Hainbat jende ibiltzen da musika eskoletan-eta, eta gero esfortzu hori ez du ezertarako erabiltzen".

6. Zuen kantak lagunartean kantatzen diren bakoitzeko euro bat emango balizute...
Aberatsak ginateke! Gure abestiak, behin plazaratuta, herri kantuak dira eta horrek ez du preziorik.

7. Oskorri soinua entzun ohi dugu sarri. Nola definitu?
Hasi ginenean, euskal kantari gehienak kantautoreak ziren eta gu izan ginen lehenengotakoak munduko folk-rock ildoan sartzen. Euskal instrumentuak modu berrian erabili genituen, hori izan zen gure tinbre -nortasuna. Gure soinua bada partikularra, baina munduan gure tankerako talde asko daude.

8. Rock-and-rolak ez, baina folkak, ematen al du dirurik Euskadin?
Rockerok zioten moduan, euskarazko ezker ez du dirua ematen. Maiatzean izan dugu urteko lehen kontzertua; horrela, esango didazu nola aberastu... Euskal kulturaren jendea oso gaizki pasatzen dabil, ez dago kontratatzen duenik. Etorkizun beltza ikusten dut.

9. Tunelaren amaiera ikusten da?
Nik neuk, ez dut irteerarik ikusten; Oskorririk argitaratu gabeko hainbat proiektu ditu, eta uste dut horrela geratuko direla.

10. Oskorri gabe geratuko gara?
Uste dut baietz, baina ez gure erabakiz. Ez dugu kekatzeko motiborik, jendeak estimatzen gaitu; baina Oskorri mugitzeak dirua eskatzen du, eta ez dago udalik ordaintzeko prest dagoenik.

XABIER ZUBIZARRETA



Porrotik porrot, garaipenera arte

Idazten hasi aurretik, bi notizia irakurri ditut; bataren arabera, euskal talde batek, 3-0 galdu zuen Europako Futbol Leagueko finala, madrildar gabeko talde madrildar baten aurka; bukaeran Bucarest, bukaera Bucaresten bihurtuz. 3-0 galdu genuen futbolearen, bai, baloia ate barrura zenbat aldiz sartu ziguten kontaktan badugu, bale; baina ze zalego, ze ikuskizun gradetan, ze kiroltasun, ze "galtzen jakite"; erakustaldi bat azken finean Bucaresteko kaleetan; total, baloia barrura sartu ala ez!, ia denpora guztian euskaldunen oinpean egon zen eta; garrantzitsuena jokatzeko dela. Hori bai, arbitroaren aurka, ezer ez. Porrota versus garaipena, garaipena versus porrota; bigarrenaren arabera, aldir, beste euskal talde batek 3-2 galdu zuen madrildarrez osaturiko beste talde madrildar baten aurka, Madrilen, Zutik Euskal Herria lehiaketako partidari, Auzitegi Gorenaren aurrean. Han bai sartu zigutela benetako gola. Oraingoan kontua, golak sartzea ezezik, bost euskal hiritar espetetik ateratzea zen; baina benetan, Madrilen dauden arbitroekin, ez dago modurik: Europara jo beharko dugu. Eta zalego garen aldetik, garrantzitsuena partehartzea bada, badakigu; Euskal Herria "beti zurekin"; porrotik porrot, garaipena lortu arte. Maiatzak 19an aukera bat denok plazara.

Orain Arrasaten



Esan baietz betiko

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta berria irekiko du:

Pronokal[®] metodoa
Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA
Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko